

Gasteiz, 2017ko ekaina

**DOKTOREGO PROGRAMA: PSIKODIDAKTIKA**

**Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saila**

# **Hezkuntza graduako ikasleen autokontzeptu artistikoa eta artearekiko jarrera**


---

*Egilea: Eneko Balerdi Eizmendi*

*Zuzendariak: Eider Goñi Palacios*

*eta Igor Camino Ortiz de Barron*

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea





## ESKER ONA

Tesi hau pertsona askoren laguntzaz garatutako lana da eta berau aurrera eramaten lagundutako guztiei nire esker ona adierazi nahi nieke:

### *Lehenengo aitari...*

Eskerrik asko tesi honen zuzendaritzan aritu zaretenoi: Alfredo Goñi, Eider Goñi eta Igor Camino. Zuri Alfredo, inspiratzaile eta motibatzaile izan zarelako, eta maisu nigan ikertzeko griña sustatu eta proiektua bideratze lanetan; zuri Eider, proiektua bere garapenaren erdi bidean jaso eta bideratzeko egindako lanean izan duzun entregatit; eta zuri Igor, hasieratik, proiektu honen kudeaketa eskakizunetan eskainitako laguntzagatik, bereziki, baina lanari, orokorrean, eman diozun babesagatik. Nire eskerrik zintzoenak.

Ikerketa honetan parte hartu duzuen guztioi ere eskerrik asko, zuen antolaketa eta erantzunik gabe ez bait litzateke posible izango komunitatea ikertzea: (1) Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateari eta bertako irakasleei zein ikasleei, bereziki Amaia Urzain eta Joserra Vitoriari, euren konfiantzak eta lankidetzak esperientzia honi emandako bultzadagatik, baina baita Ixiar Rozas, Itziar Imaz eta Maite Beitia kideei ere, lankidetzak kritikorako eta aberatserako eskuzabaltasunagatik; (2) Cantabriako Unibertsitateari eta bertako kideei, Alicia Gómez, Raquel Palomera eta Elena Briones, proiektuak hastapen sendoa izan zezan adierazitako konpromezuagatik, eta, bereziki, Alicia Gómezi, bere etengabeko jarraipen eta babes indarragatik; (3) Euskal Herriko Unibertsitateari eta bertako irakasle diren Natalia Monge, Paloma Rodriguez, Mónica Encina eta Ainhoa Gómezi, baina bereziki Natalia Mongeri, nekaezinezko borroka indar horrek emandako onurengatik; (4) Begoñako Andra Mari irakasle eskolari eta bertako irakasle Lander Intxausti eta June Kortazarri,

berehalako erantzun eskuzabalagatik; eta, azkenik, (5) Deustuko Unibertsitateari, eta bertako Virginia Torres eta Javier Aguirregabiriari, proiektuaren azaldutako konfiantzagatik eta berau osatzen laguntzeagatik.

Gogoan izan nahi ditut Braunschweig hiriko Unibertsitateetan egonaldiak bideratzen eta garatzen lagundu didatenak: (1) Technische universität Braunschweig unibertsitateera heltzeko gako izan zen Ruben Gutierrez eta Unibertsitateko ikertzaileak Simone Klauffeld eta Florian Klonek; eta (2) HBK Braunschweig University of Art Unibertsitateko Dorothea Hilliger eta Sylvia Heyden, azken hau, bereziki, berak eskaintako esperientzia teknikoa baino gehiago izan delako, bere etxean jasoaz babesle eta lagun izan delako.

*...gero, amari...*

Ama eta aita, eskerrik asko. Eskerrik asko ama proiektu honi tira zein bultza egiten dion konfiantza hori nigan txikitandik indartu izangatik, eredu izanez irakasteagatik ezagutzen ez duguna ere lortu daitekeela pulamentuz lan eginez gero. Eskerrik asko aita, ikasteko aukera izatearen garrantzia irakasteagatik eta baita erreparua zein zuzentasuna zaintzen irakasteagatik ere. Eskerrik asko Koro, Mila, Josune, Jone, Iñaki eta Patxi, zainduz eta mimoz kritika eginez erakutsi didazuen guztiagatik. Eta, azkenik, Ainhoa eta Ziortza, garapen hau ez baitzen zuek gabe posible izango, harremanen eta jokabideen ikerketa txikitandik zuen ondoan abiatu dudalako.

*...gero, anai arrebari...*

Irakaskuntzan zein ikerketan ondoan izan ditudan lagunei eskerrik asko. Prestaketa programetan elkarrekin izanda zein lanaldien garapen profesionalaz gain pertsonalki berezi zaindu nauzuen horiei. Mila esker: Ana Usabiaga, harrotasunaz dudan eredu zara, astindu pertsonal handia

izan da zu ezagutzea, desobedientziatik eraiki daitezkeen ikaste-irakaste harreman zainduen inspiratzailea; Nerea Agirre, post-it zein liburu eta disken forma duen hezkuntza eta harremanen zilegitasuna ezagutzera eman izanagatik; eta halaxe, Huhezin, Nagore, Agurtzane, Alex, Izaskun, Iker, Xabi, Olaia eta, Neritzel ere, zein Asier, Larraitz, Aitziber eta Maite.

Eskerrik asko, azkenik, gaur ondoan dudan talde gazteari, lehen egunetik elkar zaintzeko duzuen jarreragatik: Garazi, Ane, Itziar, Mikel, Mirian, Oihane, Cristina, Alaitz, Patxi, Javi, Iker, Jon, Nekane, Leire, Agustin, Joserra eta Nuria.

*...ta azken orduan, isil-isilik, nere matte politari.*

Eskerrik asko Iker.



## Aurkibidea

<b>Introduction</b>	18
<b>Artea eta Hezkuntza</b>	27
1. ARTEA: kontzeptualizazio ariketa errizomatikoa	28
2. Artea eta bere eragiketak	29
2.1 Hautematea, epaiak eta kritika, artean.	31
2.2 Artea bizipena da.	33
2.3 Artea kontzientzia hartzea da.	35
2.4 Jarrera, intentzioa eta interesa.	36
2.5 Artea hizkuntza da eta ulermena eskatzen du.	37
3. Artea eta ikuskerak	38
3.1. Akademizismoa.	38
3.2. Espresionismoa.	40
3.3. Aro postmoderno.	41
4. Arte hezkuntza eta arte-diziplinen irakaskuntza	44
4.1. Arte plastiko eta bisualen irakaskuntza.	45
4.2. Dantzaren irakaskuntza.	46
4.3. Musikaren irakaskuntza.	48
4.4. Antzerkiaren irakaskuntza.	49
5. Irakasleen prestakuntza	50
5.1. Espainiako legediaren ikuspegi historikoa eta arte hezkuntza.	50
5.2. Arte hezkuntza: espezialistarik gabeko formakuntza.	56
6. Irakaslearen hasierako prestakuntza eta prestakuntza iraunkorra	58
7. Irakaslearen gaitasunak	60
8. Irakasleen autokontzeptua eta jarrera	61
<b>Autokontzeptu artistikoa</b>	67
1. Autokontzeptua	68
1.1. Ikuspegi historikoa.	69
1.2. Kontzeptuen formulazioa	75
1.3. Autokontzeptuaren garapena	76
2. Autokontzeptuaren barne egitura	77
2.1 Eredu independentea eta korrelazionatua.	78
2.2 Autokontzeptu akademikoa.	82
2.3 Autokontzeptu ez akademikoa.	84

3.	Autokontzeptu artistikoa	95
3.1.	Autokontzeptu musikala.	95
3.2.	Autokontzeptu artistikoa.	97
	<b>Artearekiko jarrera</b>	107
1.	Jarreraren definizioa	107
1.1.	Jarreraren ezaugarriak.	109
1.2.	Jarreraren osagaiak.	110
2.	Desiragarritasun soziala: zintzotasunaren arazoa	112
2.1	Disonantzia kognitiboa: jarrera eta jokabidearen arteko inkongruentzia.	112
3.	Artearekiko jarrera	117
3.1.	Jarreraren neurketa	118
3.2.	Artearekiko jarreraren neurketa	119
3.3.	Irakasleek artearekiko duten jarrera	121
4.	Artearekiko jarrera neurketa tresnaren eraikuntza	122
	<b>Aurretiko ikerketa</b>	127
1.	Autokontzeptu artistikoaren barne egitura eta neurketa	127
1.1.	The Art Self-Perception Inventory —ASPI— (Vispoel, 1993a; 1995).	129
1.2.	AUART autokontzeptu artistikoa neurtzeko galde sorta berria	130
2.	Artearekiko jarreraren barne egitura eta neurketa	131
2.1.	“Creative Arts Students’ Attitude” —CASA— (Yeung eta McInerney, 2001)	132
2.2.	“Attitude Scale for Art Experienced in School” —ASAES— (Pavlou eta Kambouri, 2007).134	
2.3.	ATTART artearekiko jarrera neurtzeko galde sorta.	135
3.	Aurretiko ikerketa arte hezkuntzan	136
3.1.	Eskolaz kanpoko arte ekintzetako esperientziaren arabera ezberdintasunak.	137
3.2.	Irakasleen prestakuntzaren arabera ezberdintasunak.	138
4.	Aurretiko ikerketa autokontzeptu artistikoan	139
4.1.	Sexuaren arabera ezberdintasunak.	139
4.2.	Arte-espezialitatearen arabera ezberdintasunak.	141
5.	Aurretiko ikerketa artearekiko jarreraren	142
5.1.	Ikasmilaren arabera ezberdintasunak	142
5.2.	Sexuaren arabera ezberdintasunak.	143
6.	Aurretiko ikerketa autokontzeptu artistikoa eta artearekiko jarreraren	143
	<b>Method</b>	149
1.	Research question	149



2. Objectives	151
3. Hypotheses	152
4. Research importance	154
5. Variables and instruments	155
5.1. Socio-personal variables	155
5.2. The artistic self-concept and its measuring scale AUART	156
5.3. Attitude towards art and its measuring scale ATTART	157
6. Participants	159
7. Procedure	160
7.1. Phase 1	160
7.2. Phase 2.	166
7.3. Phase 3.	166
8. Data analysis	167
8.1. Verification of the psychometric properties of the instruments	167
<b>Results</b>	173
1. Validation of the artistic self-concept scale AUART24	174
1.1. Centrality and items' discriminatory capacity.	174
1.2. Reliability of the scale.	176
1.3. Exploratory factor analysis.	179
1.4. The internal structure according to sex.	184
1.5. The internal structure according to the age.	188
1.6. Confirmatory factor analysis.	195
2. Second objective: the structure of the attitude towards art	203
2.1. Centrality and items' discriminatory capacity of the ATTART24.	203
2.2. Reliability of the scale.	205
2.3. Exploratory factor analysis.	207
2.4. Reduction of the scale: ATTART15.	211
2.5. Exploratory factor analysis.	212
2.6. The internal structure according to sex.	215
2.7. The internal structure according to the age	218
2.8. Confirmatory factor analysis	223
3. Third objective: variability of artistic self-concept and attitude towards art	228
3.1. Mean difference between sexes.	229
3.2. Mean difference between B.Ed. Degree type	231

3.3. Mean difference regarding to experience in arts	232
<b>Discussion</b>	241
1. Synthesis of results and contribution to knowledge	242
1.1. The internal structure of artistic self-concept.	242
1.2. The internal structure of artistic attitude towards art.	246
1.3. Variability of artistic self-concept and attitude towards art.	248
2. Future perspectives	252
<b>Annexes</b>	257
1. ANNEX ONE: dossier of administered questionnaires	257
AUART	259
ATTART	261
<b>Bibliography</b>	267

## TAULAK

Taula 1. Arte hezkuntzako ereduak .....	45
Taula 2. Musika irakaskuntzan lan egiteko eskakizunak.....	55
Taula 3. Irakasleen formaziorako hobekuntza proposamenak (Estatuko Eskola Kontseilua) .....	59
Taula 4. Eskala eta neurketa tresna motak (Edwards, 1957a, Moralesek aipatua, 2006).....	118
Taula 5. Artearekiko jarrera neurtzeko tresnak.....	120

## TABLE LIST

Table 1. Hypotheses of the investigation in regards of the objectives.....	152
Table 2. The structure of the items of the AUART regarding to the domain and the skills within it .....	156
Table 3. Self-concept scales of reference when editing the items for AUART .....	157
Table 4. The structure of the items of the ATTART regarding to the domain and attitudinal components .....	158
Table 5. Participants' characteristics .....	159
Table 6. Participants in Data collection .....	162

Table 7. Participnats' distribution in Data collection 1 .....	162
Table 8. Participants' distribution in Data collection 2 .....	164
Table 9. Participants' distribution in Data collection 3 .....	165
Table 10. Descriptive analysis of the items of the artistic sel-concept scale (AUART24) .....	175
Table 11. Items' reliability statistics regarding the AUART24 scale .....	177
Table 12. Correlation among AUART24 scales .....	180
Table 13. Communalities of the items of AUART24 .....	181
Table 14. Exploratory factor analysis of AUART24 with Oblimin Kaiser Rotation .....	183
Table 15. Factorial analysis with Oblimin Kaiser rotation (men's sample) .....	185
Table 16. Factorial analysis with Oblimin Kaiser rotation (women's sample) .....	186
Table 17. The adequacy of the samples regarding to age-groups .....	188
Table 18. Factorial analysis with Oblimin Kaiser rotation (sample aged from 18 to 20).....	189
Table 19. Factorial analysis with Oblimin Kaiser rotation (sample aged from 21 to 23).....	190
Table 20. Factorial analysis with Oblimin Kaiser rotation (sample aged 24 or more) and four components .....	192
Table 21. Factorial analysis with Oblimin Kaiser rotation (sample aged 24 or more) and three components .....	194
Table 22. Indexes of goodness of fit AUART .....	195
Table 23. Descriptive analysis of the items of the attitude towards art scale (ATTART24).....	203
Table 24. Items' reliability statistics regarding the ATTART24 scale .....	205
Table 25. Correlation among ATTART24 scales .....	207
Table 26. Communalities of the items of ATTART24 .....	208
Table 27. Exploratory factor analysis of ATTART24 with Oblimin Kaiser Rotation .....	209
Table 28. Correlation among ATTART15 scales .....	212
Table 29. Communalities of the items of ATTART15 .....	213
Table 30. Exploratory factor analysis of ATTART15 with Oblimin Kaiser Rotation .....	214
Table 31. Factorial analysis with Oblimin Kaiser rotation (men's sample) .....	216
Table 32. Factorial analysis with Oblimin Kaiser rotation (women's sample) .....	217
Table 33. The adequacy of the samples regarding to age-groups .....	219
Table 34. Factorial analysis with Oblimin Kaiser rotation (sample aged from 18 to 20).....	220
Table 35. Factorial analysis with Oblimin Kaiser rotation (sample aged from 21 to 23).....	221

Table 36. Factorial analysis with Oblimin Kaiser rotation (sample aged 24 or more).....	222
Table 37. Indexes of goodness of fit ATTART .....	223
Table 38. Mean difference between sexes in the artistic self-concept and attitude towards art .	229
Table 39. Mean difference between B. Ed. Degree type in the artistic self-concept and attitude towards art.....	231
Table 40. Mean difference by students' previous experience in music in the artistic self-concept and attitude towards art.....	233
Table 41. Mean difference by students' previous experience in dance in the artistic self-concept and attitude towards art.....	234
Table 42. Mean difference by students' previous experience in drama in the artistic self-concept and attitude towards art.....	236
Table 43. Mean difference by students' previous experience in plastic arts in the artistic self-concept and attitude towards art .....	238

## **IRUDIAK**

<i>Irudia 1.</i> Shavelson, Hubner eta Stantonen (1976) eredu hierarkiko dimentsioaniztuna. ....	80
<i>Irudia 2.</i> Marsh eta Shavelson (1985) autokontzeptu akademikoaren eredu hierarkikoa. ....	83
<i>Irudia 3.</i> Marsh, Byrne eta Shavelsonen (1988) autokontzeptu akademikoaren eredu hierarkikoa. ....	84
<i>Irudia 4.</i> Aktibitate fisikoetan parte hartzeko eredu psikologikoa (Sonstroem, 1978).....	86
<i>Irudia 5.</i> Marsh eta besteen (1994) PSDQ galdesortaren dimentsioak eta antolaketa hierarkikoa. ....	88
<i>Irudia 6.</i> Foxen (1987) PSPP galdesortaren dimentsioak eta antolaketa hierarkikoa.....	89
<i>Irudia 7:</i> Chaseren (1991) Pertsona helduen autokontzeptu fisikoa, PSPP-A.....	90
<i>Irudia 8.</i> Esnaola (2005) Autokontzeptu fisikoaren Itaketa, AFI. ....	91
<i>Irudia 9.</i> Goñiren (2009) Autokontzeptu Pertsonalaren galdetegia (APE).....	94
<i>Irudia 10.</i> Vispoelen (1993b) Music Self-Perception Inventory, MUSPI. ....	96

<i>Irudia 11.</i> Vispoel (1993c) The Art Self-Perception Inventory (ASPI). .....	98
<i>Irudia 12.</i> Yeung eta McInerney (1993) <i>Creative Arts Students' Attitude</i> (CASA).....	100
<i>Irudia 13.</i> Disonantziaren guztizko magnitudea kalkulatzeko formula.....	114
<i>Irudia 14.</i> Autokontzeptu artistikoa neurtzeko galde sortaren egitura (AUART).....	131
<i>Irudia 15.</i> “Creative Arts Students’ Attitude” —CASA— (Yeung eta McInerney, 1999). Autokontzeptu artistikoa eta artearekiko jarreraren dimentsio mailako korrelazioa. ....	134
<i>Irudia 16.</i> Artearekiko jarrera neurtzeko galde sortaren egitura (ATTART). .....	136

## FIGURE LIST

<i>Figure 1.</i> The tetradimensional model of the artistic self-concept. ....	198
<i>Figure 2.</i> The final model of the artistic self-concept .....	201
<i>Figure 3</i> The tetradimensional model of the attitude towards art.....	225
Figure 4. The final model of the attitude towards art .....	227



# ***INTRODUCTION***



## **Introduction**

This investigation is based on the exploration of the self-description that Bachelor of Education Degree students built based on their perceived competences, and their attitude towards art is the second base point. The attitude is considered a significant variable to achieve the objectives of art education and it's also an indicator of the academic performance (Lekue, 2010). When considering whether self-concept and academic performance are positively related to each other and whether teachers influence student's self-perception, the logical continuation of this positioning would be: that teacher attitude positively affects student performance and, consequently, their academic development (Aspy & Buhler, 1975). On this basis, this study aims to analyse the artistic self-concept of future teachers, their attitude towards art and analyse the differences in regards of some personal characteristics and experiences.

Bachelor of Education Degree students are trained to transmit the knowledge, abilities and value of art, among other things. The Council of the European Community (2006) established the basic competencies for continuous training and the Basque Autonomous Community Basic Education Curriculum (2007), responded to this by specifying the requirements for the development of human and artistic cultural competence. Teachers should ensure that students willingly acquire this cultural knowledge and develop appreciation and expression skills and an open attitude towards the diversity of cultural expressions, based on the will to work on creative and aesthetic capacities. A study carried out with different profiles of art education teachers has shown that, teachers having an extensive specific knowledge has a direct relationship with students' attitude (Pavlou, 2003). Besides, Gouvêa (2009) in regard to teacher training says that specific art education training on teachers must be robust; however a strong



artistic training does not mean that teachers have to be artists, but that they must experience artistic processes. These experiences will give students the knowledge and skills, with a positive impact on their artistic self-concept and attitude towards art.

Art —either concept or object— should be put in its historical and social context because that context works as a mediator (Hernandez, 1996). The author also says *art* is a social construction that changes through time, space or culture, and it reflects on institutions, media, art-works, artists and audiences. Therefore, considering that the self-concept has the concept as a reference, the *Art* concept should be conceptualized. In this line, Dewey (1934) says Art as experience is continuous, as one is constantly interacting with its surroundings and with the variables performing within it. So, as an alive experience is a *work in progress* and resistant to become simply into an object, through that we could conclude Art is not on objects but at the symbolic use we make of them. Last, Art is within ideas, sensations and in the way of using the components of the object so that audience can project themselves in order to achieve knowledge and grow personally (García, 2007).

The perspective has a lot to say within the arts, in many ways. Focusing on the object or the subject —either artist or audience— changes the conception of art and consequently has changed the art education. Hernández (1997) classifies the art education within three main modes: the academic, the expressive and the conceptual. And so similarly sets Aguirre (2000) its three models in which could be classified most of the approaches to art education: the logocentric model, the expressionist model and the philologist model.

The cultural, conceptual and philologist, based on understanding, share an open look. The open look is a pragmatic perspective that focuses on the trace left by the object in reality: the resonance. That resonance —the trace— is the Art says Oteiza (Oteiza, In San Martin & Moraza, 2006), the place where can be seen the fundamental processes and the resonances that operate as exercises to develop projects. The artist also states that the artist creates a whole reality throughout its art-work and the object is the most effective materialization.

Kaprows' (1993) look is that of an un-artist, so that art is seen as a cultural intermediary which states that cultural practise is complex so that individuals can satisfy their own needs, enrich the experience and grow on knowledge.

In conclusion, teacher training is particular and related to each period and study plan set by the current laws (Beas, 2010). However, often teachers feel that they do not have enough specific training to meet the various functions required from the society, students requested, or the ones required by them.

Therefrom, this investigation is going to depart from exploring the *art* concept so afterwards self-concept and attitude can be brought into context. Analysing the theoretical background of the self-concept and the attitude we aim to understand how is structured the artistic self-concept and attitude towards art in our participants. That is the key to then design each specific measuring instrument that will allow describing as deeper and wider as possible participants artistic self-perceptions and attitudes towards art.

**LEHEN ATALA**

***OINARRI TEORIKOA***

---





# ARTEA ETA HEZKUNTZA

## **1 ARTEA: kontzeptualizazio ariketa errizomatikoa**

### **2 Artea eta bere eragiketak**

- 2.2 Hautematea, epaiak eta kritika
- 2.3 Artea bizipena da
- 2.4 Artea kontzientzia hartzea da
- 2.5 Jarrera, intentzioa eta interesa
- 2.6 Artea hizkuntza da eta ulermena eskatzen du

### **3 Ikuskerak**

- 3.1 Akademizismoa
- 3.2 Espresionismoa
- 3.3 Aro posmoderno

### **4 Arte hezkuntza ereduak**

- 4.1 Arte plastiko eta bisualen irakaskuntza
- 4.2 Dantzaren irakaskuntza
- 4.3 Musikaren irakaskuntza
- 4.4 Antzerkiaren irakaskuntza

### **5 Irakasleen prestakuntza**

- 5.1 Espainiako legediaren ikuspegi historikoa eta arte hezkuntza
- 5.2 Arte hezkuntza: espezialistatik gabeko formakuntza.

### **6 Irakaslearen hasierako prestakuntza eta prestakuntza iraunkorra**

### **7 Irakasleen gaitasunak**

### **8 Irakasleen autokontzeptua eta jarrera**



*Erriturik gabe edota pantominen zeremoniarik zein dantzarik gabe,*

*eta horietatik garatutako dramarik gabe,*

*dantza,*

*kantua eta musika instrumentuak,*

*tresnak eta egunerokotasuneko materialak,*

*ereduei jarraiki eginak,*

*estanpatuak,*

*eta beste arte adierazpenez manifestatzen diren kideen bizi ikurren zigiluak*

*...*

*horiek guztiak*

*iraganeko gertaerak*

*ahantzuran hondoratuak lirateke gaur.*

*John Dewey*





## **Lehen kapitulua**

### **Artea eta Hezkuntza**

Kapitulu honetan Arte kontzeptua aztertuko da, mugimendu artistiko, filosofiko eta sozialen ikuskera eta diskurtsoen baitan, baina ez da helburua definizio bakar bat eratzea. kontzeptualizazio ariketa horren printzipioetan oinarrituz definitu daitezke dantza, musika, antzerkia zein arte plastikoak ere, hau da, praktika artistiko horiek guztiak ere, ezberdin hautemanak direlako ikuskera horien arabera, baina artearen kasuan moduan, kontzeptualizazio ariketa honen helburua ez da definizioak erdiestea, bai, ordea, artearen eragiketak identifikatzea.

Akademizismoa, espresionismoa eta aro posmodernoa dira aurkeztuko diren ikuskerak, eta XIX. amaiera eta XX. mendeetara mugatuko da errebisioa, tesi honen honek aurkezten duen problematika testuinguratzea baitu helburu errebisio historikoak, eta ez artearen historiaren konplexutasunak eta zehaztasunak garatzea. Hala ere, ezinbestekoa da testuinguru hori aurkeztea ikuskera edo kontzeptzio horiek baitira autokontzeptu artistikoa eraikitzeko erreferentziak; izan

---

ere, arteak, hezkuntzak eta arte hezkuntzak arteaz dugun irudiaren eraikuntzan eragiten du. Horregatik, ikuskera horien hezkuntza printzipioak ere aipatuko dira.

Azkenik, kapitulu honek irakasleen prestakuntzari buruzko errebisio historiko-legeztatzailea egitetik hasita irakasleen prestakuntza —hasierakoa eta iraunkorra— testuinguratuko ditu, eta, jarraian, irakasleen gaitasunen garapenak, eurek gaitasun horien garapenarekiko duten pertzeptzioak eta euren jarrerak ikaste-irakaste prozesuan duten eragina aipatuko dira.

## **1. ARTEA: kontzeptualizazio ariketa errizomatikoa**

Kontzeptualizazioa eraikuntza errizomatikoa da. Ezin da artearen esanahia eraiki modu kronologiko, lineal eta norantza bakarrekoan. Ez dira horiek jarraian aipatuko diren autoreen hausnarketa moduak, eta ezta eztabadiatuz eta erabiliaz eraikitako hiztegiaren ordena ere. Jarraian aurkeztuko diren terminoen arteko dantza kiribildua da.

Norberak bere autokontzeptua eraikitzean, erreferentzia gisa du kontzeptua; beraz, autokontzeptu artistikoa aztertzeke, arte kontzeptua aztertzea beharrezkoa da. Arte kontzeptua eraikitzeke oinarri ditugun erreferentzia horiek gure testuinguru fisikoan eta sozialean garatzen dira, eta taldean garatzen dira. Horregatik, artea —objektua zein kontzeptua— bere edukitik hartu eta dagokion testuinguru historikoan eta sozialean kokatu beharko litzateke, kulturaren bitartekaritza funtzioa betetzen baitu (Hernandez, 1996). Errepresentazio soziala norbaitek (pertsona edo taldea) zerbaitekiko (objektu) duen irudipenean oinarrituz eraikitako konstruktio psikologikoa da. Horrela, errepresentazioa objektua ordezkatzetik objektu izatera pasatzen da.

---

---

Artea eraikuntza soziala denez, eta denboraren, espazioaren edota kulturaren arabera aldatzen dela esan daiteke, eta erakundeetan, komunikabideetan, ekoizpen artistikoetan, artistengan eta publikoarengan islatzen da (Hernandez, 1996). Hau da, eraikuntza soziala, gizartean eratu, eta hautematen den konstruktoa da, alegia, errepresentazio soziala da. Moscovicik (1988) errepresentazio eta talde-errepresentazio kontzeptuen inguruan soziologia alorretik garatutako kontzeptualizazioaren aldeko aldarria egiten du, psikologian loratutako kontzeptualizazio gatazkari bere ekarpen kritikoa eginez. Hala, Moscovicik (1988) galdetzen zuen, nola litekeen, bada, objektua hain sakon ezagutu, inoiz norberak objektuarekin harremanik edo esperientziarik bizi izan gabe. Bestalde, Evans-Pritchard (1981) autorearen hitzez baliatuz, zera dio: errepresentazio kontzeptuaren adiera ez dela ideia, nozioa edo sinesmena kontzeptuena baino zabalagoa; eta talde- (aurrizkia) adierak guztientzako ohikoa denari edo gizarte batetako kideen gehiengoari egiten diola erreferentzia.

Aipatu bezala, autokontzeptuaren eraikuntzan norberak inguruarekin —taldearekin eta taldean— dituen harremanek duten zeresana: inguruarekin eta ingurukoekin batera, gizartean eraikia da autokontzeptua. Horregatik, hala eraikitako ideiak, errepresentazio sozialak direla esatea ontzat ematen badugu, *arte* kontzeptuaren errepresentazio sozialak autokontzeptuaren eraikuntzan zeresana duela esan genezake.

## **2. Artea eta bere eragiketak**

Eragiketak esperientzia artistikoko subjektu eta objektuen arteko ekintzak dira. Artistak, bere interesen arabera, hautatu, sinplifikatu, argitu, laburtu eta kondentsatu egiten ditu elementu psikikoak —ideiak, sentimenduak— zein fisikoak —materialak—; eta hartzaileak, bere interesen

---

eta ikuspuntuaren arabera, eragiketa hauetatik igaro behar du (Dewey, 1934). Alabaina, adierazpen artistikoa ez da artistak dituen ideien —adieren— baliokide diren ikonoak ekoitziz eginiko itzulpengintza ariketa (obra); eta ezta alderantzizko prozesua ere interpretazio artistikoa, alegia, ikono horien adieretatik artistak adierazi nahi duena asmatzeko jolasa. Esanahia eraikitzeke adieren adierazpen eta interpretazio ariketa horien ingurunean dauden beste hainbat eragile ezinbesteko dira. Beste era batetara esanda, artean ere ez da nahikoa hizkuntza menderatzea komunikazioa eraiki ahal izateko; horretarako gainerako komunikazio elementuak kontuan izan behar dira, alegia, igorlea eta hartzailearen egoera baldintzatzen duten testuinguruko aldagaiak —testuinguru fisikoa eta tenporala, alegia, soziala, politikoa,...; eperientzia pertsonalak; erreferenteak; eta abar;—.

Komunikazio elementu horiek eragiketen bi funtzioak baldintzatzen dituzte: kanpo objektuan eragitea eta barne materialean (mentalean). Deweyren (1934) arabera, transformaziorako bi funtzio horiek eragiketa bakarrean gauzatzen direnean soilik da obra artistikoa. Obra da esperientzia artistikoaren materia: artistak operatuta ekoitzia (bere barne materiala kanporatuaz) eta hartzaileak operatua (bere barne materialaz kanpo materiala interpretatuaz).

Esan daiteke beraz, artea bere eragiketek dinamizatzen duten komunikazio esperientzia dela, eta esperientzia horretan eragin zein hautemandako eragiketa horiek —operazioek— epaia eta kritika ahalbidetzen dutela. Ondorioz, operazio horiek dira bide kontzientzia, jarrera, eta, azkenik, hizkuntza eta ulermena garatzeko.

Por lo general reconocen que los dos teóricos y su trabajo están en acuerdo básico sobre el principio de que la conducta y la acción humanas están embebidas en un proceso social y que el

---

---

yo surge de este proceso como producto de la reflexividad empática y la interacción social basada en la comunicación.

## **2.1 Hautematea, epaiak eta kritika, artean**

Kontzepzioen eraikuntza gizartean egin dela esan dugu —errepresentazio soziala dela— eta, beraz, pertzeptzioen eraikuntza ere, neurri batean, gizartean egiten dela esan dezakegu. Hala, zioten Mead eta Cooley psikologoek prozesu sozialean txertatuta daudela giza jokabidea eta ekintza, eta, ondorioz, kontzeptzioen eraikuntza prozesu horren produktu dela, hau da, isla empatiko eta komunikatiboan oinarrituriko elkarrekintza sozialaren produktua (Glenn, 2009). Bizitzako lehen urteetan gehiago gertatzen da hau, norberak bere esperientziak oraindik mugatuak dituen aroan. Haurraren lehen jolasak bere hautemate trebetasunak garatzeko bide dira eta esperientzia iturri. Deweyk (1934) dio pixkanaka helburuek doitzen dituztela ekintzak eta doikuntza horiek arau bilakatuz doazela, ekintzak gero eta harilkatuagoak bilakatuz. Prozesu hau urteetan egiten da, noski. Hala, urteek aurrera egiten duten neurrian, esperientziek erreferentzia pertsonalak eskaintzen dizkigute —kontrastatuak— eta pertsonalitate autonomoa eta kritikoa eraikitzen dugu. Orduan, jolas hori, lan bilakatzen da —ez diru truke egiten den lana— (Dewey, 1934).

Jolasa eta haurra aipatu dira, sarri arteari loturik aurkezturiko ekintza eta subjektua baitira. Artea lana eta serioa da, ordea. Baina haurra jolasean ikusita ezin uka jolasa eta seriotasunaren erabateko fusioa (Dewey, 1934). Artistaren egitekoa ere —helburuak ez, agian, baina— erreferentzia objektibo batek du okupatua, eta, hala, materia jakin batean eraginez —operatuz— eraldatzen —itxuraldatzen— du objektua adierazpide bilakatuz.

---

Alabaina, esperientzia —ezagutza: objektuan hautemandako osagaien analisi kritikoen ondorengo kontzientzia hartzea— alor bakoitzean dugun esperimentazio kontzienteetatik eraikitzen da, eta naturala da hainbat alorretan esperientzia gutxi izatea edo ez izatea. Kasu horietan hautemateko gaitasuna urria da, eta barne erreferentziarik izan ezean, eta kanpo erreferentziez inguratzean, haietaz baliatzen gara, alegia, besteen hautemateez —eta, zenbaitetan, baita epaiez ere—, geure epaiak egiteko. Ondorioz, kanpo pertzeptzioetan eta epaietan oinarrituriko kritika ere kanpokoa dela esaten da, eta, egoera horietan, autoritatea ere kanpo erreferentzien baitan uzten da.

Pertzeptzioek elikatzen dute epaia —izan hauek inguru fisikotik, politikotik zein biografikotik eratorriak—, eta epaiak kritika osatzen dute. Bestela esanda, kritika epaia da (Dewey, 1934). Kritika —izan hau hitzekoa, idatzizkoa, irudi bidezkoa zein ekintzazkoa— ekintza komunikatiboa da, eta kritikoak, kritika burutzean, baliozkotasun uziak asmoak egiten ditu inplizituki, eta baita entzuleak onartu ere, inplizituki honek ere: bai proposamenaren egiaren uzia, bai adierazpenaren egiazkotasuna, bai esandakoaren ulergarritasuna, eta baita ekintzaren arauen zuzentasuna ere (Cortina, 1992).

Kritikoa eta publikoaren arteko ekintza komunikatiboan, harremana sarri subordinaziozkoa izan ohi da. Publikoak kritikoaren epaiak egia direla balioesten du —beste norbaitenak, alegia, kanpo pertzeptzioetan oinarrituak—, kritikoak baino ezagutza murriztagoa duelako, —edo uste duelako—. Norberak hauteman ezean, azterketarako aukerarik ez dugu, ezta epai propioak eraikitzeko zilegitasunik ere. Autoritatea, orduan, kritikoari onartzen diogu —esperientzia eta argudioetan jantzia izan zein ez— eta publikoak bere epaia kritikoaren epaien mendean uzten du.

---

---

Sarri, kritikoari emandako autoritatea —mezua formetan zaindua izan zein ez— itsu-itsuan hartzen du ikusleak; are gehiago, kritikoak ziurtasunez, indarrez eta zorrotzasunez emandako epaiari egiazkotasun gehiago erdietsi ohi zaio. Gainera, pertsonen interesa piztu eta gozamina sortzen duten esperientziak, sarri, abiadura eta indar haundiko objektuek edota arrisku egoerek sortzen dituzte. Esperientzia horiek, ordea, ez dira kritikoak, ezta artistikoak ere.

Kanpo-estimuluek —argiak edo soinuak nagusiki— organismoan eragitean aktibatzen den kontzientzia dela zioen pertzeptzioa Rogersek (1959), baina definizio hori orokorregia izaki honela zehaztu zuen: estimuluek organismoan eragitean kontziente bilakaturiko ekintzaren hipotesia edo iragarpena da pertzeptzioa. Alegia, objektuarengandik jasotako estimuluek, hari atxikitako ezaugarriak erakusten dituen egindako iragarpena da. Pertzeptzioak eta kontzientziak antzeko adiera dute, baina estimuluei erreferentzia egiten die pertzeptzioak, eta, beraz, estimuluek prozesuan duten eragina adierazgarri egiten du termino honek.

Norbera kritikoa ez bada, zerbaiten inguruko iritzi propiorik eraiki ez duelako da —informaziorik izan ez duelako edota hauteman ez duelako, eta ondorioz ez du azterketarik egin ere—, autonomiarik ez du bere erabakian eta autoritatea kanpoan kokatuko du: kritikoarengan. Kasu horretan, kritikoarengan jarri da objektuaren inguruko kritikaren autoritatea, hau da, ikaste objektua erantzuna da: *egia* da helburua. Aldiz, autoritatea norbere kritikotasunean duen subjektuaren ikaste objektua *egiaren eztabaida* da helburua

## 2.2 Artea bizipena da

Artea bizipena da eta bizipena etengabea da, pertsona aldi oro elkarrekintzan bizi baita bere ingurua eta inguruan eragiten duten eragileekin (Dewey, 1934). Gainera, bizipen artistikoa

---

dinamikoa da, gorabeherak, aurrera-atzerak, geldialdiak eta bestelako egoerak igarotzen ditu; osotasuna du —atalek euren nortasuna badute ere—, ondoz ondoko atalen bateratzeak ez du hutsunerik uzten: kohesioa du; koherentzia du; eta, azkenik, izena du.

Bizipen artistikorako jolasaren teoriaren oinarriak talka egiten du kritikaren eraginaren mendekotasuna zein diru trukeko lanaren mendekotasunarekin. Batetik, askatasuna edo beharra, eta, bestetik, bapatekotasuna edo ordena, dualismo harreman horrek subjektuaren eta objektuaren arteko ilusioaren jolasean eragiten du (Dewey, 1934). Kritika eta kanpo erreferentzietatik at artista libre da eta arte lana da horren seinale. Horregatik, artean jolaserako jarrera materiaren eraldatzeko interes bilakatzen da eta garapen bidean den bizipenaren zerbitzura jartzen da.

Arte lanak bizipen edota prozesu denean —work in progress— produktu izateari erresistentzia egiten dio eta, beraz, artea ez dago objektuetan, euren erabilera sinbolikoan baizik. Hau da, artea ideietan, sentazioetan zein objektuetan hauteman daitezkeen osagaiak erabiltzeko modu berezian dago, gure nortasuna proiektu dezagun; ezagutza garatzeko eta garapen subjektiborako (García, 2007). Alabaina, adierazpenerako bitartekoa ez da objektiboa ez eta subjektiboa, baizik eta bien kooperazioak eraikitzen duen esperientzia berri baten materia (Dewey, 1934).

Bizipena —esperientzia— iraganeko adieren eta egoera berrien fusioak eragindako itxuraldaketak egiten du kontziente, eta itxuraldaketa hori irudimena da, ondorioz, artea —ilusio forma den heinean— kontzientziarako esperientzien abiapuntu ona da (Dewey, 1934).

---



### 2.3 Artea kontzientzia hartzea da

Bizipena, ordea —etengabea bada ere—, esperimentazioa baino gehiago da. Intentzioa du beregan bizipenak: sentimendu zein ideien kontzientzia hartzea (Dewey, 1934). Esperimentazioa bizipen izatera hel dadin, arreta galdu gabe, sortze prozesuak bere bidea amaitu bitartean jarraitu behar du: lanari uzteak ez du amaiera bermatzen, heburua burutu izanak baizik. Gainera, lana modu eraginkorrean eginda ere, baliteke ekintza ez kontzientea izatea, alegia, jarduna automatikoa izatea, zentzurik eta norabiderik gabekoa; ondorioz, ez litzateke artea.

Bi arreta mota bereizten dira behaketan: fokalizatua eta fokalizatu gabea (Ferrando, 2012). Lehenak subjektua du jomuga, baina beregan islatuko bagina bezala itzultzen da begirada norberarengana, eta Jacques Ranciére filosofoa (2010) dago gizakiak ikuskizunean behatzen duena norberari ebatsi zaion ekintza dela, alegia, bere esentzia duela, eta, urkoarena bilakatuta, norbere aurka itzulia dela, gainera, dago ebaste horren errealitatea dela kolektiboa antolatzen duena.

Bigarrenak, aldiz, ez du jomugarik eta irekia bezain zabala da, eta subjektua arreta jartzea bera disolbatuko bailitzan desagertzen da. Biek jarrera ezberdinak eta elkarrengandik aldeniak eragiten dituzte eta, begiradaz gain, beste zentzumenak ere arreta mota hauetaz baliatu daitezke.

Arretaz gain, intentzioak ere eragina du behaketan. Ferrandok (2012) dioenez, begiradak intentzionalitatea badu, behatzen dena kontrolatzeko desira du, eta objektuaren izaera eta zergatia kuestionatzea dakar berau etiketatuz, determinatuz edota zentzua aldatuz. Aldiz, intentzionalitaterik gabeko begiradak ez du zentzua aurkitzeko desirarik eta, kontrolatzeko desira ezan, mementuan zentratzen da.

Esperientzia bakoitzean hautematen ditugun estimuluen arabera aldatzen dira arreta zein intentzioa, eta aldagai hauen eraginez, kontzientzia garatuz doan heinean, esperientzia ere aldatzen da. Esan daiteke, beraz, estimuluak hautemateko sentikortasuna izateak kontzientzia garatzea ahalbidetzen duela edota, Oteizak zioen moduan, kontzientzia garatua izatearen adierazle dela sentikortasuna bera (Oteiza (1984), In San Martin eta Moraza, 2006). Oteizak, izan ere, artea kontzientzia hartzeko eskola politikotzat zuen.

Kontzientzia norberak bere barnera egiten duen begirada da (Ferrando, 2012). Barne begirada horrek nork bere burua eta ingurua ulertzea eta ezagutzea ahalbidetzen du eta, aldi berean, dio poetak, bietatik aldentzea ere eragiten du. Alegia, norbera behatzaile izateak subjektuaren kontzientzia indartzen du, eta baita norbera zein ingurua hautemateko gaitasuna ere; aldi berean da ezaguna, baita arrotza ere (Ferrando, 2012).

#### **2.4 Jarrera, intentzioa eta interesa**

Arte esperientziaren aberastasuna hauteman eta kontzientzia garatzeko jarrera ezin da deskriptiboa edo teknikoa izatera mugatu, jarrera estetikoa izan behar dela baizik. Herritarrentzat ikusgarritasun gehien duten arteak, dio Deweyk (1934), arte kontsideratzen ez dituen horiek dira: zinema, jazza, komikia, baita amodio, hilketa edota gaizkileen oldarraldien kontakizunak ere. Aipatutako ekintza zein objektu hauetako bakar bat ere ez da museo edo antzokietan aurkitzen, eta gaur egungo herritarrak ere bere komunitatean integraturik dituen adierazpen artistikoak ditu gogoko, ez horrenbeste antzokietan edota museoetan bildutakoak. Hau, ordea, ez da gaur egungo kontua, ez baita lurraren sorrera bitartean atzera egin behar gizakiak artea bizitzaren beste dimentsio bat bailitza bizi izan duela jakiteko: dantza eta antzerkia erritu eta ospakizun

---

---

erlijiosoetan, marrazketa bizitoki zituzten aitzuloetako hormetan, arkitektura jainkoei ostatu ematen zieten eraikinetan (Dewey, 1934).

Begiratzeko moduak eragiten du esperientzia artistikoa —esperientzia estetiko— bizitzeko desira eta gaitasuna: ikusminak, alegia. Egunerokotasuneko egoeren aurrean jarrera irekia izateak eta gertakariak dituzten hainbat geruza hautemateko desira izateak ahalbidetuko dute esperientzia. Deweyk (1934) Coleridge olerkaria aipatzen du irakurle baten jarrera deskribatzean: irakurlea ez du ikusminak bakarrik estimulatzen, ezta amaiera ebaztera iristeko desira nekaezinak ere, ibilaldia —txangoa— ekintza atsegina izateak baizik.

## 2.5 Artea hizkuntza da eta ulermena eskatzen du

Jerome Bruner (1991) psikologoa hizkuntzaren garapenerako mekanismoek ulermenerako bidea zabaltzen zutela babesteko Peirceren (1960) teorian oinarritzen zen, izan ere, autore honek esanahiaren eraikuntzan, zeinuaz eta erreferenteaz gain, kontuan hartzen zuen interpretatzailea ere. Ez du bat egiten hizkuntzaren garapenaren ikuspegi biologikoarekin, eta, ondorioz, ez du zilegi ikusten Chomskyk (1989; In Bruner 1991) —beste hainbaten artean—, babesten duen teoriaren oinarria, alegia, hizkuntzarako gaitasuna berezkoa duela gizakiak.

Hala ere, Brunerrek deritzo bizipena kontatzeko modua antolatzekeo gizakiak duen indarrak —aurretiko joerak— eragiten duela hizkuntzaren garapenean, eta, ondorioz, ulermenaren garapenean (Bruner, 1991). Izan ere, dio ulermen praktikoa elkarrekintza sozialaren bitartez erregulazen eta agertzen dela. Beraz, berezkoa —*innatoa*— ez da hizkuntza, elkarrekintza sozialerako joera baizik. Harira dator Fernando Hernandez (1997) psikologoa, dio besteen esperientziak eta ikuspuntuak ezagutzeak ikuspuntua zabaldu eta ulermena aberasten duela.

---

### **3. Artea eta ikuskerak**

Artearen ikuskerak garai eta gertaera historikoekin batera aztertu behar dira, euren ezaugarriak ulertu ahal izateko, baina, aldi berean, independenteak dira garai zein gertaerekiko. Jarraian aurkeztuko diren ikuskerak ez dira, ordea, mugimendu artistikoak, artea esperimentatzeko jarretan eragiten duten begiradak baizik.

Akademizismoa, espresionismoa eta aro posmodernoaren begirada objektuetan, artistetan edota subjektu eta subjektibitateetan zentratzea bideratzen duten sistemak dira. Sistema horietan arte eragiketak ezberdin gauzatzen dira, eta horren isla bada arte ekoizpenetan —adierazpenean zein apreziazioan—, baina baita kritikan, erakundeetan eta hezkuntzan ere.

Ondorengo ikuskerek, beraz, artearen eragiketen bi funtzioak dituzte, hau da, kanpo objektuan eragitea eta barne materialean (mentalean) eragitea da euren helburua, baina begirada kokatzean edota zentratzean duten ezberdintasunak adierazten duen moduan, perspektiba ezberdinak dira. Deweyren (1934) arabera, transformaziorako bi funtzio horiek eragiketa bakarrean gauzatzen direnean soilik da obra artistikoa, baina, obra artistikoa bera ere aldatu egiten da ikuskera aldatzen bada, izan ere, aldatuak eragiketak aldatua obra.

#### **3.1. Akademizismoa**

Akademizismoarentzat arteari buruzko ezagutzak oinarrizkoak dira: artearen historia, kritika, estetika eta sorkuntza artistikoa. Esaterako, ikuskera honen arabera, gaitasun artistikoak garatzeko hezkuntza antolamendurako eredu egokia sekuentziala edota metatze bidezkoa da,

---

---

ikasleak artista izaten ikasi baitezakete ikaskuntza erreproduzitzailan oinarrituz, alegia, teknikak ezagutuz eta, konstantziaz, prozesuak errepikatuz. Horrela, ikasitakoa ulertzen doan neurrian garatzen du ikasleak ahalmen sortzailea, eta, beraz, ikuskera honen arabera, irakaskuntzarik gabeko barne adierazpenak ez du zertan sorkuntza izan.

Akademisizmoaren ideia hauek XIX. mendearen hasieran sortu ziren, baina XX. mendean garatu zen mugimendua. Garai honetako artistak —akademikoak— pizkundeko tradizioaren oinordekoak dira, eta tradizio horretatik irakatsi dute konposizioan koloreak emetasunez baliatzen, eta baita horien tonuak, haragiaren gardentasuna, atmosferak eta istorioak kontatzen jakitea estimatzen ere (Val, 2015).

Ikuskera hau Deweyren eta *Eskola Berria*-ren ideiekin bat ez badator ere, garaikidea izan zen Amerikako Estatu Batuetan (AEB) eta Europan. Artearen irakaskuntza akademikoaren helburua da ikasleak eskuzko trebetasunak garatzea eta estetika klasikoak ezagutzea. Hala, ikasketa bikaina duen artistaren ondorio litzateke ekoizpena: objektu perfektua.

Esan bezala, pintore akademikoek ikuskera —arauak zein ereduak— iraganean ainguratua dute, eta, bertatik egiten dute errealitatearen destilazio armonikoaren gisakoa den edertasun unibertsal baten proposamena, eta, horregatik, akademiak obra klasikoak biltzean ahalegindu dira, kanon estetiko horien purutasunak luze iraun dezan (Val, 2015). Izan ere, akademizismoan objektua da artearen ekoizpen prozesuaren elementu garrantzitsuena: garapen historikoari erreferentzia egiten diona, teknikoki asko garatutako eskua duen artistak eta darabilena, eta, modu kritikoan eta ziurtasunez sortutako obra.

Ikuskerak eta mugimenduak, sarri, historian egindako kontzeptualizazioen arabera, hertsia aurkezten dira. Baina hainbat artista akademikok, XX. menderako leihoak ireki eta

---

begirada berriak sustatu dituzte (Val, 2015), eta, gainera, iraganeko maisuei aurka egin gabe, akademiaren arauak hautsi gabe, eta baita XIX. menderko balio moralak errespetatuz ere.

### **3.2. Espresionismoa**

Ikuskera honen arabera, artea barne munduaren adierazpen intimoa da: purua eta zintzoa. Arte objektua sortzailearen sentimenduen adierazpen askea da, bere bizipenen eta afektu pertsonalen espresioa. Beraz, praktika artistikoa askatzailea da, eta pertsonaren berezko izaera garbian da sorkuntza gaitasuna. Ikuskera honetan oinarritutako eskolen irakaskuntza eredua ere erreprodukzioan zein interpretazioan ardazturikoa bada ere, bere ezaugarri nagusia artistak kutsatu gabeko jaiotzetikako gaitasun sortzailea duela ulertzea da, alegia, dohaina behar da artea sortzeko. Izan ere, artea sortzeko jaio egiten da.

Ikuskera honen aburuz, haurraren moduan, artea ederra da kultura gabea denean. Gillaume Apollinaire idazle, poeta eta arte kritikoaren aburuz, purutasuna, edertasuna eta egia ziren artearen hiru bertuteak (Apollinaire, 1994, Perniolak aipatua, 2016, 12.or.). Purutasuna lortzeko sena sagaratu behar da, eta hori artea humanizatzea edota pertsonalitatea jainkotzea modukoa da.

Espresionismoak zein kubismoak elkarbanatzen zituzten ideia hauek akademizismoaren erreakzio gisa sortu ziren, eta eskolak artistaren berezko purutasuna kutsatzen zuela zeritzon. Haurra izan da ikuskera honen ikonoa, bera arau, ohitura zein kultura gabea izaki. Jaiotzetikoa eta berezkoa dela pentsatzen da arterako gaitasuna: jeinuen ahalmena. Berezkotasuna babestean, ikuskera honek ukatu egiten du eskolaren zein lanaren bitartez artea egiteko gaitasuna izatea.

---

---

Hala, purutasuna da ikasi ondorengo ahanztura (Apollinaire, 1994, Perniolak aipatua, 2016, 12.or.).

Subjektuari garrantzia handia ematen diote espresionistek eta subjektibotasun intimoenaren aztarna da objektua. Espresionismoa emotibismoarekin lotu izan da, bientzat sortzailearen sentimenduek duten garrantzia dela eta, bizipenak eta afektu pertsonalak dituzte aldarri.

Alabaina, Apollinairek (1912) idatzitako manifestuan subjektu sortzailearen gain izandako arretaren nagusitasuna publikoaren begiradan kokatzen du, hala, *Pintura modernoaren subjektuaz* dio sinesgarritasunak ez duela, jada, inongo garrantzirik, eta artistak guztia sakrifikatzen duela bere irudiaren konposizioagatik, eta, ondorioz, hortik aurrera, subjektua ez dela kontuan hartzekoa, edota, hartzekotan, oso gutxi hartzekoa dela (Apollinaire, 1912, Danchevek aipatua 2011, 27or.). Subjektuari garrantzia kentzea, ordea, subjektu ekoizleari ahalguztidun izaera hori kentzearekin lotu behar da, eta ahalmen hori objektuan kokatzearekin, eta, ondoren, subjektu estimatzailean, alegia, publikoan. Izan ere, ikuskera honek, batez ere, modernitatea bilatzen du eta, aldi berean, publikoaren subjektibitatera iristeko ibilbide bat da (Porta, 2011).

### **3.3. Aro postmoderno**

Artea kulturaren elementuek eraturiko diskurtso estetiko da, espazioen, denboren, ekintzen eta pertsonen arteko harremanean eraikia. Kultura bakoitzaren elementu- eta kode-elkartzeen konplexutasuna zainduta sortzen da artea eta, noski, ez da mendebaldeko kulturara eta bere garai historikoetara mugatzen. Kultura bakoitzeko antolaketa ereduaren —patriarkalaren zein

---

matriarkalaren— baitako elementuen elkarrekintzaren konposizio kontzienteak eta kritikoak garatzen du diskurtso artistikoa. Artean eragina dute kulturaren nortasuna definitzen duten hainbat aldagaiak: memoria historikoak, inguruneak eta ingurumenak, teknologiaren garapenak, etab. Aldagai kultural horiek eta euren baitako kodeek eraten dute diskurtso artistikoa — independienteak badira ere, elkarri eragiten diote—.

Aro postmodernoa kontzeptzio tradizionaletan oinarrituriko praktikak zalantzan jartzen ditu arteak, eta baita artearen kritikak ere. Hezkuntza ikuspegi konstruktibistaren printzipioetan oinarriturik, arte hezkuntzak ulermenerako hezkuntza izan behar du: ekoizpen artistikoen ulermenaren, interpretazioaren eta balorazioaren, zein garai eta kultura ezberdinen adierazpen sinbolikoen ulermena. Subjektuak bere ingurunearekin eta ingurukoekin elkarrekintzan eraikitzen duen nortasuna da sortzailearen nortasuna: artista subjektua. Artistak sortzen duen objektua teknika ikasietatik zein desikasietatik eraikia zein deseraikia izan daiteke. Objektuaren balioa ez du teknika eta abilezia handiz sortu izateak bakarrik ebatziko, baizik eta baita objektu berrerabiliak ere: esanahi artistiko berri bat eraiki zaion objektuak.

Ikuskera irekiak objektuari garrantzia kendu eta diskurtso artistikoa aldarrikatzen du. Objektuaren sortzailearen berezkotasuna edota konplexutasun teknikoak arteari erantsitako balioetatik aldentzen da, hau da, elitismoa eta birtuosismoa baztertzen ditu. Ikuskera irekiaren begirada pragmatikoa da, eta diskurtso artistiko konplexuak interpretatzen dituzte objektu primarioetan. Hala, begirada lantzen da, alegia, nork, nola, noiz, nondik, norekin eta zertarako begiratzen duen erreparatzen da, objektuaz gain, hainbat aldagai baitaude diskurtsoan eragiten edota diskurtsoa eraten dutenak. Beraz, sortzailearen berezkotasuna edota konplexutasun teknikoa, dispositibo artistikoaren beste aldagai bat gehiago dira. Objektuen perfekzioak zein

---



---

euren mirespen historikoak sortzen dituzten konbentzioek ikuslearen begirada freskoa oztopatzen dute (Dewey, 1934), eta materialak, sortzailearen trebetasun teknikoak, ahultasunak zein garaipenak kentzean bideratuko da bere begirada artearen erreinura.

Bizipen artistikorako begiradak artista, elitea eta birtuositatea baztertu egiten ditu eta, Deweyk bezala, Allan Kaprow artistak ere (1993) zalantzan jarri ditu objektua eta subjektua, baita erakundeek promozionaturiko artearen estatusa ere. Begirada hau des-artistaren begirada gisa aurkezten du Kaprowk (1993), eta kultura praktika konplexua dela dio, norbanakoaren beharrak asetu ahal izateko: bizipena eta ezagutzaren garapena asetzeko. Des-artistaren begiradatik artea kulturaren bitartekaria da.

Begirada irekia begirada pragmatikoa da, objektuak errealitatean eragiten duen arrastoari begiratzen baitio: erresonantziari; arrastoa da artea. Jorge Oteiza artistak zioen (San Martin eta Moraza, 2006) arrastoa funtsezko prozesuak eta proiektu baten garapenerako erresonantzia gisa balio duten eragiketak agerian geratzen diren tokia dela: jakinduria berehalako bat dela eta, honen bidez, errealitatearekin neurtzen dugula geure burua, eta hala gure pertzepzioa eta gure ideiak ulertzen eta fabrikatzen ditugula. Izan ere, eskulturgilearen aburuz, sortzaileak bere obraz errealitate oso bat eraikitzen du, eta eskultura da horren materializaziorik eraginkorrena (San Martin eta Moraza, 2006).

Oraindik goiz da historialari eta kritikoentzat aro posmodernoaren amaiera finkatu eta gaur egungo aroaren kontzeptualizazioa burutzeko, baina generazio ezberdinak batzen diren garai berri honetan ere aldaketak badira. Aro garaikidean, teknika infografikoen garapenaren ondorioz, publikoaren eta errepresentazioaren areko harremana aldatu egin da, alegia, XX. mende amaierako artearen errepresentazio espazioen ezaugarriak aldatu egin dira, eta baita

---

publikoaren begirada eta jarrera ere (Porta, 2011). Horrek ikuslea, arte garaikidearen aurrean, obrak bere identitatearekin duen harremana kuestionatzera darama, baita obra hori ekoiztean artistaren jarrera zein ote den kuestionatzera ere.

#### **4. Arte hezkuntza eta arte-diziplinen irakaskuntza**

Arte hezkuntza da —Educación artística edota Art Education— nazioartean gehien onartutako kontzeptua, eta, oinarrizko hezkuntza testuinguruan, musika, eta adierazpen dramatikoak zein plastikoak biltzen ditu (Morales, 2001). Baina, kontzeptu berak, sarri, arte plastiko eta bisualetara mugatzen diren zenbait adiera hartzen ditu, hala nola, *hezkuntza estetikoak*, *irudiaren didaktika*, *irudi hezkuntza*, *irudi kultura*, eta abar. Bestalde, arte hezkuntza *arten bitarteko hezkuntza* kontzeptuarekiko ere ezberdina da, azken honek artea metodologia gisa baitarabil oinarrizko hezkuntzako edukien irakaskuntzan (arte integratuak).

Arte kontzeptua erabiltzean, arte plastiko eta bisualen dimentsioarekin egiten dugu lotura, eta artearen historian, gehien dokumentaturiko dimentsioa dela esan daiteke. Dimentsio guztietan efimeroena dantza izan da. Hainbat arrazoi tarteko, besteekin alderatuz, gutxi dira dimentsio honi buruzko testu dokumentuak. Antzerkia literaturaren dimentsioarekin erlazionatua ezagutu dugu obra idatziak direlako gehien dokumentatuak. Musikak ere, testu idatzi bidezko lengoia garatuta, musika sorkuntzarako bakarrik ez, baizik eta musika ezagutzaren garapenerako ere baliabide izan du testu dokumentazioa, —musika hizkuntza idatzien bildumak, alegia, partiturak—.

---

#### 4.1. Arte plastiko eta bisualen irakaskuntza

Arestian aipatu diren korronteekin bat dator Hernández (1997), arte hezkuntza plastikoa eta bisualari dagokionez, dio arte hezkuntza sistema konfiguratzeko duten korrontek hiru izan direla, nagusiki, eta Aguirrek (2000), korronte horien printzipioen marko berean, hiru eredu izendatu ditu (ikusi 1. taula).

Taula 1

*Arte hezkuntzako ereduak*

<b>Hernández 1997</b>	<b>Ezaugarria</b>	<b>Aguirre 2000</b>
<i>Ikuskera akademikoa</i>	Objektuaren balioan eta irakasleen instrukzioan oinarritutako hezkuntza eredu.	<i>Eredu logocentrista</i>
<i>Ikuskera espresionista</i>	Subjektu sortailean eta adierazpen artistiko sortzez garbikoetan oinarritutako hezkuntza eredu.	<i>Eredu espresionista</i>
<i>Ikuskera kontzeptuala</i>	Hizkuntzarekin alderatzean babesten bada ere objektuan oinarritua, eta, batez ere, bisualki adierazgarria egiten duen horretan oinarritutako hezkuntza eredu.	<i>Eredu filolingüista</i>

Aurreko atalean aipatu bezala, ikuskera hauen ezberdintasunek ez dute garai berean elkarbizitzeko duten gaitasuna baldintzatzen, hala ere, gaur-gaurkoz, hezkuntza dekretu eta hezkuntza planek, ikuspegi konstruktibista soziala eta interaktiboa izaki, ulemenean oinarrituriko ereduak dituzte erdigunean, hau da, ikuskera kontzeptualean eta eredu filolingüistan oinarritzen dira irakaskuntza arauak. Dena den, metodologikoki, izaera akademizista duten metodoak ere

baliagarritzat eskaintzen dituzte, izan ere, inspirazio konduktista eta kognitibista baliagarri izango dela babesten da (Dekretua 236/2015), hala nola, errepikapenen bidez eskuratzen diren edukiak irakasteko eta ikasteko.

#### **4.2. Dantzaren irakaskuntza**

Dantzaren sorkuntzan zein irakaskuntzan ere hiru korronte eta eskola nagusitu dira XIX. mendearen amaiera eta XX. mendean, mendebaldeko kulturari: klasikoa, modernoa eta garaikidea. Korronte hauek ere bat datoz, neurri batean, Hernándezen (1997) sailkapenarekin. XIX. mende amaierako eraberritze artistikoa ondorengo urteetan arte plastikoek eta dantzak izandako harreman estuaren abiapuntua da (Pastor, 2012). Hiru korronteek sortu eta garatu dute euren eskola eta gizartean aurki daitezkeen dantza genero gehien ezaugarriak korronte hauen baitakoak dira —puruak zein hibridatuak—. Horiez gain, tokian tokiko dantza tradizionalak ere korronte nagusi horien testuinguru historiko eta kultural bera osatu dute, baita tesi hau garatu den testuinguru soziokulturalean ere.

XIX. mende amaieran, teknologiaren garapen adierazgarriarekin bat, gizakia eta makinaren bat egite irudia indartsua zen garaian egonkortu ziren dantza klasikoaren kode formalak ere. Dantza klasikoak, eskultura akademikoek aurkeztutako idealak helburu, diziplina tekniko eta estetiko zorrotzaren eraginpean jarri ditu gorputzak (Pastor, 2012), eta, horretarako baliatu izan ditu hainbat material, azaletik, aurpegitik, zein iletik gorputz naturalen berezko ezaugarriak ezabatzeke.

Dantza modernoa klasikoak ezabatu nahi zuen ezaugarri naturalen aldarria eginez sortu zen, eta gorputzek tonu erlaxatua hartu zuten kulunkatze eta erortzeak dantzatzuz. Erortzea eta

---

---

bere ondorengo altxatze azkarra dantza teknika modernoaren ezaugarri dira, eta, ondorioz, dantza modernoaren ezaugarri —eszenan zein prestakuntzan— lurrean dantzatzeko esaldiak. Horrela, dantza modernoak gorputz naturala askatu egiten du, klasikoak ezarritako adierazpen mugetatik, eta bere gaitasun espresiboa eta komunikatiboa garatzeko aukera berreskuratzen du (Pastor, 2012).

Dantza garaikidearen mugak besteenak baino lausoagoak dira, kontzeptuaren naturak garaian garaiko bilakaerei garaikide deitu izan baitie, hala, neoklasikoa ere garaikidea izendatua izan da klasizismoan, edota, baita modernoa garaikide izendatua ere modernismoan. Hori horrela, zaila da mendeen arabera kokatzea, baina baita denbora muga ez den bestelako muga arabera deskribatzea ere. Kontzeptualizazioa, beste behin ere, konfrontaziorako baino korrante ezberdinen elkarbizitzaren ariketa naturala dela ulertu behar da. Hala ere, Merce Cuninghamen lanak aro posmodernoaren hasiera markatzen du (Pastor, 2012), eta dantza garaikideko ikasketak burutzeko goi mailako ikastetxeen erreferentzia da koreografoaren lana. Korrante honek gorputza hautemateko eta lantzeko moduen planteamendu berriak dakartza, gorputza eraikuntza fisiko eta soziala dela ulertuta, eta, hala, gorputza bera irudi eta objektu gisa —material artistiko gisa— erabilia da lan artistikoetan (Pastor, 2012).

Euskal dantza tradizionalak izandako bilakaera akademizistak dantza klasikoaren hoztasun eta perfekzionamendu ezaugarriak eman dizkio euskal dantza tradizionalari. XX. mendearen bigarren hamarkadaren amaieran Euskal herrian errusiar ballet folklorikoek sortutako harridurak hainbat ekintzaile bildu zituen, eta horien artean zen Segundo Olaetak Elai-Alai taldea sortu zuen Gernikan 1927an, eta, gerra ostean ere, dantza klasikoan trebatu eta euskal dantza tradizionalak taularatzeko eredu akademiko-errusiarra jorratzen jarraitu zuten eta hazi horretatik

---

ernaldu ziren ondoko hamarkadetan XX. mendeko euskal dantzaren hainbat ekimen (Araolaza, 2012). XXI. mendean, aro posmodernoan, euskal dantza tradizionalak ere bilakaera modernoa badu. Euskal dantza tradizioaletik abiatuz estetika modernoko ikuskizunak badira, oinarri tradizioaletik abiatuta dantzakera estilizatua darabilte, eta folklore dantzetako urratsak beste lengoaia koreografikoekin lotzen dituzte (Araolaza, 2012).

### **4.3. Musikaren irakaskuntza**

XIX. mendean, mendebaldeko estatuetan, eskoletako musika hezkuntza Rousseau eta Pestalozziren teorien baitan arautu zen. Euren printzipio pedagogikoetan musikak protagonismo garrantzitsua zuen —gustuan oinarrituz— nobleen sentimenduak pizteko eta balio moraletan hezteko (Valles, 2009). XIX. mende amaieran, teknologiaren garapen adierazgarriarekin bat, noski, musikaren irakaskuntza ere asko aldatu zen, hala, XX. mendearen lehen erdian, Haurraren gaitasun musikal guztien garapenerako ikuspegi metodologiko aktiboak sortu ziren musika hezkuntzan (Díaz, 2005). Gramofonoa erabiltzen hasi ziren 1911ean, AEBetan, eta musikaren hautemate trebetasunak garatzeko material didaktikoa sortu zen; Lehen mudu gerraren ostean, 1919an, Erresuma batuan, irratia eta harekin bat BBCren saio hezitzaileak sortu ziren, eta, herrialde berean, urte gutxiren buruan, kontzertu didaktikoak eskolalara zabaldu ziren (Valles, 2009). Ondoren, *Eskola Berria*-ren filosofiari jarraiki baliabide horren erabilera didaktikoan aurrerapausu handiak eman ziren, musikaren indarra berezia zela baizeritzaion, norbanakoaren hainbat indibidualtasun batzeko gaitasuna aitortzen baitzitzaion, —leialtasuna eta inspirazioa batzekoa— (Dewey, 1934). XX. mendearen bigarren erdian —musika hezkuntzako metodologia aktiboak, jada, egonkortuta— proposamen pedagogiko berriak sortu ziren, irakasleek haurra

---

---

sortzaile, inprobisatzaile eta konpositore musikal gisa ikustera bideratzen zutenak, honek bere adierazkortasuna garatu zezan (Díaz, 2005).

Euskal musika klasikoaren hastapenean, XIX. mendearen amaieran edota XX. mendearen haseran, hiriburuetakoko banda nagusiak sortu ziren: Bilbon 1895-ean, Gasteizen 1916-ean edota Iruñan, 1919an. XIX. mendearen amaieran Europako leku askotan eskola nazionalistak sortu ziren musika eruditua barnean eta herri bakoitzaren musika-tradizioei tokia egitea zuten helburu, orduan, opera nazionala euskaraz egiten ahalegindu ziren (Sanchez, 2012). Bestalde, euskal kantagintza modernoaren hasiera Mixel Labegeriek, 1961. urtean, Baionan (Lapurdi) magnetofoi batean grabaturiko kantuak argitaratu ziren unea jotzen da (Eskisabel, 2012). Hura, gitarra klasikoaz lagunduta eta euskal nortasunaren ukazioaren aurkako protesta kantak abestuz egina dira mugarri horren ezaugarri.

XXI. mendearen haseran, dio Díazek (2005) aurreko mendeetako musika hezkuntzaren ezagutza oraindik bizirik dela eta proposamen didaktiko asko eta anitzak aurki ditzakegula, eta dago musika hezkuntzak haurrari laguntzen diola bere entzumen prozesua garatzen, eta baita memoria ulerkorra, irudimen sortzailea, behaketa kritikoa, antolaketa psikomotorra, adierazpena eta komunikazioa garatzen ere.

#### **4.4. Antzerkiaren irakaskuntza**

Estatu espainiarrean, XX. mendera bitartean antzerkia helduen praktika artistikoa izan da, alegia, genero literario gisa ikasleek eskuragarri bazuten ere, ez da antzerkirik izan eszenan ez eta pedagogian (Cutillas, 2005). Haurrentzako aldizkarietan hasi ziren antzerkia eskaintzen hurrek

---

eta gazteek errepresentatu ahal izan zezaten eta 1938. eta 1936. urteetatik aurrera zenbait dramatizazio eta testu argitaratu ziren.

Mendearen lehen herenean ez da ez haur literaturarentzat ez eta haurrei zuzenduriko antzerkiarentzat aukerarik antzeman (Cutillas, 2005). Ondorenean, 70eko hamarkadan, Hezkuntza Lege Orokorrak ezarri zuen antzerkia oinarrizko hezkuntzan baliabide izateko abiapuntua, eta, batik bat 80eko hamarkadan garatu zen, materialgintzan eta eszenan egindako lana bitarteko.

## **5. Irakasleen prestakuntza**

### **5.1. Espainiako legediaren ikuspegi historikoa eta arte hezkuntza**

Irakasleen prestakuntza garai jakin bakoitzean indarrean egondako ikasketa planei egokitua izan da (Beas, 2010). Hala ere, irakasleriak ez du formazio espezifikorik izan bete behar izan dituen hainbat funtziotarako —gizarteak eskatuak, ikasleek eskatuak, zein berak identifikatuak—.

1940ean, gerra zibilaren ostean, 1914ko planeko arauen arabera ezarri ziren irakasle ikaskeak, eta, denbora gutxian, bi hiruilekotan, batxillerrek irakasle bilakatzeko prestakuntza egiten zuten (Rodriguez, 1998). Bi urte beranduago beste plan bat onartu zen, prestakuntza luzatzeko eta irakasleen prestakuntza iraunkorra arautzeko. Ministerioko ordenak etenik gabekoak ziren: 1945ean lau aldiz eraberritu ziren irakasleen prestakuntzako arauak, 1946an beste bi adiz, eta 1947an behin. Plan hauek hainbat aldaketa ekarri zituzten lehen hezkuntzan zein irakasleen prestakuntzan.

---



---

1950eko planak sarrera froga ekarri zuen, batxillergoko oinarri kulturalen ingurukoa. 50eko eta 60ko hamarkadatan irakasleen formakuntzarako ondoren ikasleei transmititu behar zizkien ezagutzak zein ideologia eta balore frankistak eurenganatzean oinarritu zen. Irakasle prestakuntzara sarbidea zuten ikasleen formazio maila baxua zen eta etorkizuneko irakasleen kultura maila igotzea zen kezka (Beas, 2010), ondorioz, eskasa zen prestakuntza pedagogikoari eskainitako denbora. Hori horrela, 1965eko erreformak eta 1967ko hezkuntza planak ikasketa psikologikoen eta pedagogikoen beharra jaso zuten, eta, horrekin batera, baita zenbait gizarte ekintza ere; horien artean, arte hezkuntza.

Urte hauetan irakasleen formakuntza jarraiak ere izan zuen eskaintza eta aipagarriena Lehen Hezkuntzako Didaktikaren Dokumentazio eta Orientazio Zentrua izan zen —*Centro de Documentación y Orientación Didáctica de Enseñanza Primaria (CEDODEP)*—. Erakunde honek komunitatean zuzenean egin zuen lan, baina zeresan haundia izan zuen administrazio publikoak ondorengo urteetan prestakuntza iraunkorraren ardura har zezan egindako lanean.

60ko hamarkadaren amaieran, irakasleen eta gizartearen artean eztabaida zen irakatsi beharreko edukiak, alegia, ikasgaiek lan mundurako prestatzeko funtzio instrumentala izan behar zuten, ala garapen pertsonalerako funtzio sozializatzailea, (Beas, 2010). 65eko erreformak marrazketako —*dibujo*— eta musikako —*música*— irakasleak, oposaketak gaindituak eta goi mailako titulua eskuratua zuten horiek, irakasle katedradunen kidegora sartu zituen. 1967ko hezkuntza planak ikasleen sexu banaketari erdizka eman zion amaiera, ikasgai orokorrak elkarrekin ikasita ere gizarte ekintza helburu zuten horiek ezberdinak baitziren, sexuaren arabera.

1970ean hezkuntza lege berri bat onartu zen, hezkuntza lege orokorra —*Ley General de Educación*—, eta oinarritzko hezkuntza orokorra ezarri zuen —*Educación Básica General*

---

(EGB)–. Hezkuntza plan berri horren ezaugarri nagusia hezkidetzarako ikuspegia zen, Alabaina ikuspegi horren dimentsio praktikoa ez zen garatu, baliabidegabeziagatik, batik bat (Beas, 2010). Horrez gain, ordura bitartean marrazketa —*dibujo*— eta musika —*música*— ikasgaiak arautu izan zituzten Espainiako hezkuntza legeek, arte hezkuntza arlo komunaren baitan zehazten ditu marrazketa eta musika. Plan honen orientabide pedagogikoak bost arlo proposatzen zituen: (1) hizkuntzaren arloa —*Lengua española*—, hastapena latindar hizkuntzan —*gastelania*— eta atzerriko hizkuntza batean; (2) estetikaren arloa, —*Formación estética: con especial atención a Dibujo y Música*—, marrazketa eta musikari arrera berezia eskainiaz; (3) Gizarte eta antropologi arloa, —*Geografía e Historia, con preferente atención a España y a los pueblos hispánicos: filosofía; formación política social y económica*—; (4) erlijio hezkuntza; (5) Matematika zientzien eta natur zientzien arloa: matematikak, natur zientziak, fisika eta kimika; eta (6) Heziketa fisikoa eta kirola. Hala ere, errealitatean, hizkuntza, gizarte zientziak eta matematikak ziren irakasleei esleituriko ikasgaiak.

Urtebete beranduago, 1970eko legeak hezkuntza plan berri baten saiakera ekarri zuen, baina ez zuen adostasunik lortu eta 1971eko *plan experimentalak* urte gatazkatsuak ekarri zituen. Plan honen ezaugarri nagusiak bi izan ziren: (1) irakasle ikasketak burutzeko *Ikastetxe Arautuak* —*Escuelas Normales*— Unibertsitate Eskola izatera pasa ziren, inolako prozesurik egin gabe (Beas, 2010), eta, ondorioz, irakasle ikasketak OHOk irakasleen formakuntzarako Unibertsitateko magisteritza ikasketa izatera pasa ziren —*Escuelas Universitarias de Formación del Profesorado de EGB*—; eta (2) espezialitateak sortu ziren, ordurarte generalistak izan ziren ikasketetan (Nieto, 2004), Unibertsitate plan berriaren diseinuan parte hartu zuten batzordeen eskutik: haur hezkuntza, lehen hezkuntza, atzerriko hizkuntza, heziketa fisikoa, musika hezkuntza, hezkuntza berezia eta, azkenik, hizkuntza eta mintzaira.

---

1970eko hezkuntza legeak arauturiko oinarrizko hezkuntza orokorreko hamaseigarren artikulua zioen, beste hainbat zehaztapenen artean, oinarrizko hezkuntza orokorraren zeregina zela ikasleak apreziazio eta adierazpen estetikoan eta artistikoan sarbidea izatea —*iniciación en la apreciación estética y artística*—. Bestalde, lege berak, hogeita laugarren artikuluan, oinarrizko ikasgaien artean aipatzen du formakuntza estetikoak, marrazketari eta musikari arreta berezia esakainiaz —*formación estética, con especial atención a Dibujo y Música*—. Arau horiek bete eta eskolaratutako haurren oinarrizko eskubideak bermatzeko, ordea, baliabiderik ez zuen irakasleen formakuntzak, eta, ondorioz, ezin zuen halako prestakuntzarik eskaini.

Espezialitate horiek, ordea, ez ziren 1991. urtera arte landu eta arautu, alegia, 1990. urteko hezkuntza lege berria —Ley Organica General del Sistema Educativo (LOGSE)— indarrean sartu arte. Hortik aurrera, eta, 1978ko konstituzioak ekarri zuen Unibertsitateen autonomia printzipioa aplikatuz, Unibertsitate bakoitzak bere planak garatu, aplikatu eta ebaluatu ditu, baina asko dira prozesu hori egiteko zaitasunak izan dituzten Unibertsitateak (Nieto, 2004).

Nieto (2004) kritikoa da hezkuntza lege eta planekiko, eta irakasleen prestakuntzarako unibertsitateen garapena balditzatzen duten hainbat ezaugarri aipatzen ditu, besteak beste espezialitateen sorrera, alegia, ordura arte bigarren mailakotzat hartutako ikasgaiak —arte hezkuntza eta gorputz hezkuntza kasu— besteekin parekatzean curriculumaren antolakean sortutako gatazka. Aipatu moduan, ez dira urte asko Musika Hezkuntzako espezialitatea unibertsitatean arautu zenetik, are eta gutxiago dira arau horiek hezkuntza planetan gauzatu zirenetik, eta, ondorioz, esan daiteke musika hezkuntzari arreta eskasa esakini zaiola. Esan daiteke, 1970eko legearen eskakizunei erantzuteko planteamendua egin, behintzat, egin zuela 1991koak musikako espezialitatea sortzean, espezialitate hau izan baita ardatz dramatizazioa eta

dantzak edota gorputz adierazpena garatzeko ere. Baina horretan, harreman subordinatu horren baitan, nekez izan dute arreta eskaintzarik aipatutako praktika artistikoei, alegia, nekez asebeteko ziren 1970eko legearen arauak.

1999. urtean sortu zen Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Eremua (EGMHE) —Bolonia (1999), Praga (2001) eta Berlin (2003)— eta, orduz geroztik, unibertsitate askotan bizirik dirauten gatazkak eta eztabaidak dira Nietok (2004) aipatzen dituenak. Izan ere, ezagutza eremuen zein espezialitateen ikuspegi teknikoak ikuspegi globala zailtzen du, graduiko ikasleen profilarik konplexutasuna eta aniztasuna bermatzeko hezkuntza planen diseinuan zailtasunak sortuz. Bide horretan, 2010. urterako amaitu dira unibertsitateetako hezkuntza plan berriak eta irakasle prestakuntzako ikasketak —Haur Hezkuntza zein Lehen Hezkuntza— graduiko ikasketak izatera pasa dira —lau urteko iraupeneko graduak—. Horretan, dio Nietok (2004) *ANECA/Magisterio* taldeak idatzitako azken informeak jasotzen dituen aldaketa aipagarrienak honakoak dira: (1) hiru urteko ikasketak lau urteko iraupena izatera igaro dira; (2) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduak independenteak dira, hau da, ikasle profil ezberdina prestatzeko ikasketak plan ezberdinak dituzte; eta (3) zazpi espezialitate izatetik, Lehen Hezkuntza gradua lau espezialitate izatera igaro da, eta Haur Hezkuntza Gradua bat izatera. Ondoren, ordea, 2011ko legeak 2006koa zuzendu ditu, eta, gaur-gaurkoz, honakoak dira: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Musika, Heziketa Fisikoa, Atzerriko Hizkuntza (frantsesa, ingelesa eta alemaniera), Hezkuntza Berezia eta, azkenik, Hizkuntza eta Mintzaira.

Beraz, gaur-gaurkoz ere, oinarrizko berriazko kompetentzia den arterako kompetentziaren garapena, horretarako prestakuntza mugatua eskaintzen zaion Lehen Hezkuntzako irakasleen ardurapean da, eta, aldiz, musikarako kompetentziarik bere horretan ez bada ere —dantzakorik

---

edo anterkirakorik ez den moduan, izan ere, arterako kompetentziak jasotzen baititu bere baitan—, Musika irakaskuntza espezialitatea arautzen du Estatuak. Ondorengo taulan (2.taula) lanbide horretan aritzeko prestakuntza onartzen zaien ikasketen zerrenda aurkezten da:

Taula 2

*Musika irakaskuntza espezialitatea irakasteko eskakizunak*

Especialitatea	Eskakizunak
Musika	<ul style="list-style-type: none"> <li data-bbox="570 699 1367 867">• Estatuak araututako lanbidean Laur Hezkuntzako irakasle lanetarako habilitatzen duen eta musikako aipamena duen graduko titulua izatea.</li> <li data-bbox="570 909 1052 940">• Musika arloan graduko titulua izatea.</li> <li data-bbox="570 982 1367 1077">• Musika Hezkuntza espezialitateko irakaslea izatea— <i>Maestro especialidad de Educación Musical (R.D. 1440/1991)</i>—.</li> <li data-bbox="570 1119 1367 1276">• Musikako Goi Mailako Titulua izatea — <i>Título Superior de Música de la Ley 1/1990, de 3 de octubre</i>—, gradu baten pareko balioa duena ondorio guztietarako.</li> <li data-bbox="570 1318 1367 1413">• Musikologian zein Musikaren Historia eta Zientzian lizentziatua izatea.</li> <li data-bbox="570 1455 1367 1619">• Musikako titulu profesionala izatea —<i>Título Profesional de Música de la Ley Orgánica 1/1990 o de la Ley Orgánica 2/2006</i>—.</li> </ul>

Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Eremuan (EGMHE) sartzearen helburuetako bat Europako gainerako herrialdeetako hezkuntza planekiko parekotasuna indartzea da, horrek,

besteak beste, mugikortasuna erraztu dezan. Parekotasuna bilatzeko intentzio hori hezkuntza graduen aldekoa izan daiteke, Espainiar estatuko arduradun politikoen aldean, aspaldidanik ulertu baitzuten Europar komunitateko hainbat estatutako arduradun politikoeek musikak haurraren garapen integralari egiten dion ekarpena (Díaz, 2005).

2006. urtean LOE eta 2013. urtean LOMCE hezkuntza legeek ez dute irakasle ikasketetara aldaketarik ekarri oraindik, baina, biek hala biek, ez dakarte alor artistikoarentzako aurrerapausutik. LOGSE legeak espezializazioen alde eginiko apustuak irakasleen prestakuntzako planetan presentzia badute, eta, hobetzeko asko bada ere, hori da norabidea (Díaz, 2005). Eta norabide horretan, musika hezkuntza eta arte hezkuntza oinarrian dituen, curriculum dekretuen eta irakasle ikasketen arteko desoreka zuzentzeko lan egin behar da, hau da, arte hezkuntzako espezialistaren prestakuntza behar da.

## **5.2. Arte hezkuntza: espezialistarik gabeko formakuntza**

Lehen hezkuntzako curriculumak arte hezkuntzako alorrean dituen helburuk eskakizun maila altuagoa dute lehen hezkuntzako irakasleen prestakuntzako helburuek baino (Alexander et al., 1992), eta, sen onak esaten duen moduan, irakasleak kompetentea izan behar du hainbat teknikan helburuak erdietsiko baditu, alegia, jarraibide zehatzak emateko gai izan behar du, ideiak argi azaldu, ariketa praktikoak erakusteko gai izan behar du, eta baita egoera eta galdera ezberdinak planteatuz ikasleeak ikasitakoaz jabetu daitezen ahalbidetu ere.

Arte hezkuntza —*plastika* klasikoa— espezialitaterik gabeko ezagutza eremua da eta irakasleen oinarrizko formakuntzan baino ez da garatu. 1970eko hezkuntza legetik hasita gaur egun indarrean dena bitartekoek arte hezkuntzaren beharra aipatzen dute oinarrizko

---

---

hezkuntzan, baina hori bermatzeko baliabiderik ez da bideratzen irakasleen prestakuntzan. Aipatu den moduan, 1990. urtetik aurrera espezialitateak sortzen dira irakasleen prestakuntzan, baina musikakoaz gain, ez da bestea adierazpena artistikoetarako espezialitaterik sortu. Anbizio haundiko lege eta hezkuntza plan horien ondarrera, ordea, artearen alorrerako irakasle espezialista profil bakarra sortu izanak eztabaida zapuztu du (Cuenca, 1997), eta hainbat dira erantzun gabe utzitako galderak: nahikoa al da musikako espezialista eremu artistikoaren beharrak asetzeko?; eta, orduan, ez al da lehen hezkuntzan artistikako espezialistaren beharrik?.

Eremu artistikoaren konkrezio eta definizio gabeziak irakasleen hasierako prestakuntzaren zein prestakuntza iraunkorraren hezkuntza planak markatu dituela, eta irakasleen prestakuntzako musikako espezialitateak egoerari *irtenbide praktikoa* bat eman nahi izanda ere errealitate faltsu bat sortzen du (Cuenca, 1997). Musikako espezialitatearen aurka egin baino, eremu artistikoaren dimentsio ezberdinen arteko harremanaren aniztasuna babesten du. Musikak, irudi hizkuntzak eta plastikak zein dramatizazioak norbere gorputzaren eta inguruaren apreziazio pertsonal eta kritiko, sentikor eta sortzaile gisa ulertuak izan behar dute. Hala, Musika espezialitatea lorpen eta aurrerapen handia izan da irakasleen prestakuntzan, horregatik, koherentea litzateke hezkuntza artistikoko espezialista profila prestatzeko hezkuntza plana ere.

Irakasleek ez dituzte eurengan hautematen arte hezkuntzako gai guztiak eskaini ahal izateko beharrezko dituzten ezagutzak eta esperientziak, alegia, lehen hezkuntzako irakaske “orokorren” —tutoreen— gaitasunetatik haratago doazela uste dute (Alter et al., 2009). Ondorioz, ikerketa autore hauek babesten dute, irakasleen hasierako prestakuntzan gabezia nabaria dela, eta, ikerketa Australian egin bada ere, arteen alorrak —orokorrean— pairatzen duen egoera dela, —lehen hezkuntzaren kalitatearen balintzatzailea—.

---

## **6. Irakaslearen hasierako prestakuntza eta prestakuntza iraunkorra**

Irakasleen hasierako prestakuntzak Hezkuntza Gradu ikasketei egiten die erreferentzia: Haur hezkuntza Gradua eta Lehen hezkuntza Gradua. Oinarrizko hezkuntza arautua sei urtetik hamaseira bitartekoa bada ere, Haur hezkuntza zein Lehen hezkuntza Gradu ikasketak estatuak arautzen ditu, eta, autonomi erkidego bakoitzak testuinguru soziokultural espezifiko bakoitzari dagozkion doikuntzak egiteko ardura du.

Irakasleen hasierako prestakuntzak euren oinarrizko gaitasunen garapenera du helburu, ondoren euren lan testuinguruan bete beharreko funtzioak asebetetzeko. Horretarako, bi eremu nagusi identifikatu daitezke: lehena, ezagutza espezifiko sendoak izatea; eta, bigarrena, ikaste esperientzia aberatsak diseinatzen, komunikatzen, gidatzen eta ebaluatzen jakitea. Izan ere, biak dira ezinbestekoak ikasleari ezagutzak, trebetasunak eta jarerak bereganatzek ahalbidetu eta hauek irakaslearen prestakuntza zientifiko eta didaktiko-pedagogikoari hertsiki lotuak dira Estatuko eskola kontseiluaren arabera (2015).

Irakasleen prestakuntza iraunkorra hezkuntza-sistemari balioa eransten dioten elementuetako bat da, hezkuntza-sistema eguneratzen laguntzen baitu, ikasleen garapen integrala errazteko gainditu behar dituen oztopoei aurre egin ahal izateko (Euskadiko Hezkuntza K, 2015).

Prestakuntza profesionalak aztertzea eta eguneratzea ezinbestekoa da gizartearen garapenaren neurriko garapena izan dezaten hezkuntza proposamenek. Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen (UNESCO, In Consejo Escolar del Estado, 2015) arabera, irakasleen prestakuntza iraunkorra ezagutza, jarrera eta trebetasunak berrikustea eta

---



eguneratzea bideratutako prozesua da, gizartearen aurrerapenetara eta aldaketetara egokitze beharrak sortua.

EAEEn, Euskadiko Hezkuntza Kontseiluaren Prest-Gara programak (2015) irakasleen gaitasunen profilaren kontzeptua sortu du eta, horrekin batera, hasierako prestakuntzaren eta prestakuntza iraunkorraren helburua irakaslanaren berriazko gaitasun horiek eta irakaslanari hertsiki lotutako beste gaitasun batzuk garatzea izan behar dela xedatu du. Ondorengo (3.taula) erakunde honek irakasleen prestakuntza hobetzeko proposamenak aurkezten dira.

Taula 3

*Irakasleen formaziorako hobekuntza proposamenak (Estatuko Eskola Kontseiluaren, 2015)*

<b>Hasierako formakuntza</b>	<b>Formakuntza iraunkorra</b>
<p>Profil profesionalaren gaitasunei egokitzen zaien hasierako hezkuntza programa sendoa eskaintzea.</p>	<p>Gizartearen garapenera eta aldaketetara egokitze irakasleen ezagutzen, jarreraren eta abilezien eguneratzea bideratuko duen formakuntza iraunkorra bermatzea.</p>
<p>Irakasle ikasketetako irakasle tutoreen aukeraketari arreta berezia eskaintzea, hauek lanbidearen dimentsio praktikoa azpimarratu dezaten, eta ikaslea hezkuntza zentruen funtzionamenduan eta antolaketa dinamikan integratzea gailendu dezaten.</p>	<p>Etengabeko prestakuntza eskubidea eta erantzukizuna dela ulertzea, eta horien antolaketa eta hornidura hezkuntza adiminzazioetako eta hezkuntza zentruetako titularren ardura dela ulertzea.</p>

Hasierako prestakuntzan balioetan hezteko elementu metodologikoak sartzea, —errespetua, erantzukizuna, esfortzua, lagunartekotasuna eta elkarbizitza—, irakaskuntzarako gaitasunen koherentzia mantenduz, hots, eskola horien aplikaziorako eremu pribilejiatua izaki.

Irakasleei hausnarketarako eta ikasketarako ingurune elkarbanatuak garatzen laguntzea, hezkuntza zentru baten beharren diagnosian oinarrituz, irakaskuntza praktika hobetzea helburu duten estrategiak elkarbanatzea sustatuaz.

Ondo definitutako nortasun profesionala eraikitzea hasierako prestakuntzaren helburu nagustzat hartuaz.

---

Irakasleen prestakuntzak iraunkorrak hasierako prestakuntzan jasotako formazioaren eguneratzea ahalbidetu behar du, eta, horretarako, arloen antolaketa curriculum eta irakasleen prestakuntza koordinatuz egin behar da, ezinbestean. Horrek lengo kritika edota eztabaida dakar berriro ere, alegia, artearen baitan identifikatzen diren diziplinen eta oinarrizko kopetentzien zein irakasle espezialitateen arteko oreka bermatu behar da.

## **7. Irakaslearen gaitasunak**

Estatuko hezkuntza eta kultura ministerioak (2006) unibertsitateko gradu eta master mailako ikasketen elaboraziorako jarraibideak proposatzean, kompetentziaren honako definizioa eman du: “Konpetentziak ezagutza, trebetasun —intelektual, manual, sozial zein bestelakoen—, jarrera eta

---

---

balioen konbinazioa dira eta tituluduna arazoak ebazteko zein testuinguru akademikotan, profesionaletan zein sozialetan interbenitzeko ahalduz dute”.

Ezagutza espezifikoa oinarrikoak dira, baita lan egingo duten testuinguruko lege markoak ezarritako arauen ezagutza ere —Curriculumak—, baita, nola ez, ezagutza espezifikoa horiek artikulatzeko teknika eta metodoak ere, ikasleek euren ikaste esperientzia eraikitzea ahalbidetuko dutenak. Bestalde, balioak eta jarrerak —irakasle funtzioa tajuz betetzeko konbentzimenduek, afektuek eta joerek eratuak—, izango dira irakaslearen barne eragile. Horregatik, irakasleen prestakuntzako curriculumak —bere alderdi pedagogikoetan zein espezifikoen— ikaste-irakaste prozesuaren konplexutasuna ulertzeko prestatzeko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak garatzea izan behar du helburu (Marcelo, 1995).

Euskadiko Hezkuntza Kontseiluak (2015) ondorengo erronkak finkatu ditu hezkuntza sistema indartzeko, irakasleen formaziorari dagokionez. Batetik, hezkuntza sistema formakuntza sendoa, irakaskuntzarekiko pasioa, eta, horrez gain, bokazio eta motibazio altuko irakasleez ornitzea: euren ikasleen garapenarekiko konprometua eguneratua duten irakasleak. Bestetik, irakasle funtzioak betetzeko ezinbesteko diren gaitasun profesionalak onartzea, hala nola, ezagutza lantzea eta kudeatzea, pertsonekin lan egitea, eta, azkenik, gizartearekin eta gizartean lan egitea.

## **8. Irakasleen autokontzeptua eta jarrera**

Kapitulu honi amaiera emateko, tesi honetan gakoak diren bi elementuen garrantzia mahai gainean jarri nahi da: irakasleen autokontzeptua eta jarrera. Lehen hezkuntzako irakasleekin

---

egindako ikerketa esperimentalak erakutsi du irakasleen autokontzeptuak ikasleen errendimendu akademikoan eragina duela (Aspy eta Buhler, 2001), baina baita bestelako hainbat alderditan ere.

Dantza irakasleek autokontzeptu altua duten heinean jarrera irekiagoa dute, ikaslearen alderdi indibidualakiko errespetu gehiago erakusten dute eta ikasleen trebetasunak eta abileziak garatzen laguntzen dute (Ibañez, 2006). Jokabide horiek oinarrizkoak dira irakasleak bere funtzioak bete ditzan, alegia, hezkuntza proposamenen diseinuaren erronka indibidualari eutsi behar zaionez, ikasle bakoitzak "bere" irtenbide edo soluzioa sortu behar du, eta justifikatu eta dokumentatu egin behar du soluzio hori (Dekretua, EAEko curriculum zehazten duena, 2016).

Ikasleek adierazgarritzat dituzten unibertsitateko irakasleen autokontzeptua altuagoa da, euren lanarekin gogobeteta daude, gainerakoek baino erronka gehiagori aurre egiten diete eta lidergoa sarriago hartzen dute (Rivera eta Hernández 2017), eta lidergoa —irakasleak ikaslearen guraso eta ikaskideekin batera, ikaslearengan eragiteko duen gaitasuna— ezinbestekoa da irakaslearen jardunean ikaslearen garapen mailari egokia zaion programazio koherentea diseinatuz ikasleak garatu beharreko oinarrizko gaitasunak garatzea ahalbidetzeko (Del Valle, De la Vega eta Rodriguez, 2015).

Irakasleen autokontzeptuan zeresana du bere komunikazio gaitasunaren autoebaluazioak eta bere ongizate psikologikoa eta lanbidearekiko gogobetetzea baldintzatzen ditu (Glotova eta Wilhelm, 2014). Ezinbestean, irakasleak, gaur-gaurkoz, ikasleen testuinguruko egoera errealak hartu behar ditu aintzat, eta benetako jarduerak proposatu; hala, eguneroko bizitzako arazo nagusiekin lotu behar baitu ezagutza, eta, gainera, ekintza konpetenteak egiteko, modu integratuan erabili behar dira eskura dauden baliabideak, arazo-egoerak ebazteko (Dekretua,

---

---

EAEko curriculuma zehazten duena, 2016). Horregatik, asmo nagusia informazioa eta jakintzak transmititzea baino gehiago da irakasleak behar duen komunikazio gaitasuna.

Hau guztia kontuan hartuta, ezinbestekoa da arte hezkuntzan diarduten irakasleen autokontzeptua neurtzea, eta, bereziki, autokontzeptu artistikoa neurtzea. Aldi berean, ezinbestekoa da jarrerak neurtzea, eta, berriz, bereziki, artearekiko jarrera neurtzea.

50eko eta 60ko hamarkadetan irakasleen jarreraren inguruko ikerketa zabal garatu zen, eta ikasleekiko, beste kulturatako jendearekiko, ikastearekiko zein hezkuntza helburuekiko jarrerak ikertu ziren (Nespor, 1987; Pajares, 1992; Peck & Tucker, 1973; Richardson, 1996), eta diote irakasleen sinesmenek eta jarrerak euren jokabidean eragin eta irakasle profilaren garapena baldintzatzen dutela. Bestalde, irakasleen pentsamendua ikertzeko 80ko hamarkadan hasita egindako ikerketek oinarrian izan dute irakasleen ideiek, sinismenek eta jarrerak lotura dutela euren jokabidearekin eta ekintzekin (Hall, 2005).

Lehen Hezkuntzako irakaslearen jarrerak ikasleak heziketa fisikoarekiko duen pentsamenduetan eragiten du (Moreno eta Cervelló, 2004), izan ere, irakaslearen aldeko jarreraren adierazle dira irakasleak ikasleen interesguneak identifikatzea eta haiek parte hartzeko metodologiak bideratzea. Irakasleen sinismenek jarreran eragiten dute eta jokabide demokratikoak edota autoritarioak izatearen baldintzatzaile dira (Rokeach 1960, Rirchardsoek aipatua, 1996).

Nesporrek (1987) —xake jokoa adibide jarrita— dio jokoa eta arauak ezagutu daitezkeela nahiz eta aspergarria zein erakargarria egin, edota hutsala eta dekadentea zein bikaina eta mistikoa iruditu. Baina sinesmen eta jarrera horiek baldintza adierazgarriak izango dira ezagutza horiek bereganatzeko moduan eta baita erabiltzeko moduan ere.

---

Lehen Hezkuntzan naturaren zientziak irakasteko irakasleek egin beharreko jarduera zientifikoak zailak direla sinesten badute edota horiek espezialistek bakarrik egitekoak direla uste badute irakasleengan arazoak sortzen dira, eta horrek, ondorioz, saioen helburuak erdiestea baldintzatzen du (Garcia eta Orozco, 2008). Izan ere, irakasleen sinesmenak eta euren jokabideen arteko eralazioa zuzena da eta plangintzetan, jarraibideak emateko erabakietan edota ikasgelako ekintzetan ikusten da (Pajaresek, 1992). Hala ere, oraindik behar beste ikertu gabe dago horrek ikasleen ikaste prozesuan dituen eraginak zein diren, bereziki arte hezkuntzaren alorrean.

*Arte sortzaileak* ikasgaia oinarrizko bi irakasgaietako bat da New South Wales estatuan, —Australian—, eta irakasleen hezkuntza programaren hamabiren bat osatzen du, ondorioz, arte sortzaileetan autokontzeptu positiboa izatea garrantzitsua da eta balio berezia du irakasleen prestakuntzan baldintza erraztatzailea baita konfiantzaz irakatsi ahal izateko (Yeung, McInerney eta Russell-Bowie, 2001). EAEko irakasleentzat, arterako konpetentzia, berariazko zazpi konpetentziatako bat da, baina irakasleen prestakuntzan eskaintzen zaion arretaz —aitortzen zaion garrantziaz eta ematen zaion balioaz— datuak falta dira.

---

**Bigarren kapitulua**

# **AUTOKONTZEPTU**

## **ARTISTIKOA**

### **1 Autokontzeptua**

- 1.1 Ikuspegi historikoa
- 1.2 Kontzeptuen formulazioa
- 1.3 Autokontzeptuaren garapena

### **2 Autokontzeptuaren barne egitura**

- 2.1 Autokontzeptu akademikoa
- 2.2 Autokontzeptu ez akademikoa
  - 2.2.1 Fisikoa
  - 2.2.2 Soziala
  - 2.2.3 Pertsonala

### **3 Autokontzeptu artistikoa**

- 3.1 Autokontzeptu artistikoaren dimentsioaniztasuna
- 3.2 Autokontzeptu artistikoa autokontzeptu akademikoaren baitan
- 3.3 Autokontzeptu artistikoa eta ekintza performatikoetan parte hartzea





## Bigarren kapitulua

### **Autokontzeptu artistikoa**

Kapitulu honetan autokontzeptu artistikoz gaur egun dakiguna berrikusiko da. Berrikuspena dagokion testuinguru zientifikoan egiteko, psikologia alorraren eta, honen baitan, autokontzeptuaren eremuaren bilakaera historikoa aztertuko dira. Behin kokatuta, autokontzeptu artistikoaren definizioa, ezaugarria eta egiturarekiko ustezko teoriak arakatuko dira. Alegia, kontzeptualizazio abstraktuak eta ikerketak elkarlanean eraikitako kontzeptualizazio praktikoa da.

Helburua autokontzeptuaren eraikuntzaren teoria nola garatu den adieraztea da, horretarako, teorizazio sistema honetan konstruktoa nola aztertu eta ulertu den ikusiko da, hau da, autokontzeptuaren egituraren eta osagaien inguruan gaur-gaurkoz dakiguna azalduko da. Hau da, autokontzeptuaren dimentsioaniztasunaren eredu nagusia aurkeztu eta egitura hierarkikoaren baitan dituen arloen markoa kokatuko da —akademikoa, hizkuntzak eta matematikak osatua; eta ez-akademikoa, fisikoak, pertsonalak eta sozialak osatua—.

---

Azkenik, hainbat ikerketek babestutako marko hori ezagutu ondoren, gutxiago ikertua izan den autokontzeptu artistikoaren teoriaren hastapena aurkeztuko dutu eta autokontzeptuaren gainerako dimentsioekin duen harremana zein beste aldagai psikoinstrukzionalekin duena aztertuko dira.

## **1. Autokontzeptua**

Bere esperientzia eta ingurunearekin dituen erlazioetan oinarrituz, pertsona batek bere buruarekiko eraiki duen irudia da autokontzeptua eta berebiziko garrantzia dute giroa indartzeak zein beste adierazleek (Shavelson, Hubner eta Staton 1976). Hamarkada batzuk lehenago, autokontzeptuaren ikerketaren hastapenetan, ordea, autokontzeptu unidimentsionalaren ikusmoldea nagusitu zen, nahiz eta William James, autokontzeptuaren teorian entzute aitortua duen lehenengo psikologoak, hiru izate ezberdindu: *ni* materiala, *ni* soziala eta *ni* espirituala. Bestela aldeztu zuten ondorenean Brookover, Thomas eta Patterson (1964), Rosenberg (1965), Coopersmith (1967) edo Marx eta Winne (1978) autoreek ere, ikuspegi global edo dimentsio bakarreko autokontzeptua. Aipatu bezala, 70eko hamarkadatik aurrera, ordea, ikertzaileen ikuspegia aldatu egin da. Orduz geroztik, autokontzeptua *ni*aren zatikako hautemateen multzoa dela ulertzen da eta norbanakoaren esperientzia eta garapenaren arabera etengabe hazi eta aldatzen den eraikuntza anitza eta hierarkikoa dela babesten dute ikerketek (Shavelson et al. 1976). Sostengu enpiriko handiagoa jaso du autokontzeptua dimentsioaniztuna dela babesten duen ereduak eta eredu honetan oinarrituz ikertzen da autokontzeptua gaur egun (Harter, 1983; Higgins, 1987; Marsh, 1987; Somstroem, Harlow, Gemma eta Osborne, 1991; Goñi, Esnaola, Ruiz de Azua eta Zulaika, 2003).

---

## 1.1. Ikuspegi historikoa

Autokontzeptua Psikologiak eta Soziologiak ikertu dute gehien bat, baina filosofiak ere aspaldidanik bilatu izan dio erantzuna “nor naiz ni” galderari, (Goñi, Madariaga, Axpe, and Goñi, 2011). Hala, autokontzeptuaren garapen historikoak baztertutako ideiak zein hasieratik tinko mantendurikoak ditu; hona hemen eredu eta paradigma nagusien errebisio historikoa (Rodriguez, 2008).

### 1.1.1. Pragmatismoa

1890. urtean William James autoreak argitaratu zuen “The principles of psychology” obra ordura artean ikertu eta argitaratu zituen hainbat aurkikuntzen bateraketa lana zen. Autokontzeptuaren ikerketan mugarriztat jo da XIX. mendearen amaieran argitaratutako lan hau, *ni*aren bi alderdiren arteko ezberdintasuna zehazten baitu: *ni* subjektu gisa eta *ni* objektu gisa. Bi kontzeptzio hauen arteko muga lausoa bada ere, honako zehaztapena egiten du obrak: *ni* subjektua *ni* objektua eraikitzearen erantzule da, eta *ni* objektua nire izateaz dudan irudi globala da. Halaber, irudi global honek lau osagai ditu: materiala, soziala, espirituala eta ego purua.

- *ni materiala* gorputza da eta bere-berea sentitzen den hori, hau da, familia, etxea eta beste objektu intimo eta pertsonalak. Izan ere, gertukoei zein norberaren intimitatearen sinbolo diren gainerako objektuei gerta dakiekeenak eragin egiten dio. Beroriek galtzeak norberaren pertsonalitatea gutxitzen den sentimendua dakar —atal garrantzitsu baten ezereztea— eta, beraz, gertaera psikologikoa da bere horretan.

- *ni soziala* kideengandik jasotzen den irudikapena da; alegia, gizarteak norberaren *niaz* duen irudia da. Gizatalde zein norbanako bakoitzarekiko irudia ezberdina izan daiteke; horregatik, hainbat irudik osatzen dute. Beraz, *ni* sozialaren beste bi izendapen posibleak fama edota ohorea dira: kideek norberarengandik espero den hori deskribatzen dutenak.
- *ni espirituala* norberaren esperientzietan oinarrituta, gaitasunek, ideiek eta pentsamenduek eraikia da. Nork bere *niaren* alderdirik intimoena eta iraunkorrena izaki, atalik egiazkoena ei da. Subjektuaren ardatzean maila gorena du eta subjektibo egiten duen osagaia da, esfortzua eta arretaren iturri, esperantzaren emaria duela dirudi.
- *ni ego purua* introspektzio ariketa intimoan oinarritua da eta norberaren esperientzien moldaeren ziklo bat garatzean datza, exekuzio gutxiagoz nork bere *niaren* egonkortze aktiboan.

Jamesen planteamenduaren definizioak eta egituraren ezaugarriak autokontzeptuaren ikuspegi aldaketaren zutarri dira, izan ere, hamarkada batzuk geroago, hainbat eredu hierarkiko eta dimentsioaniztun garatuko dira. Jamesen ondareak, ordea, bi ezaugarri hauek baino gehiago ere argitu zituen. Autokontzeptuaren izaera soziala deskribatu zuen: *ni* objektuaren osagai orok, taldeak zein norberak, bere buruaz duten irudietan oinarrituz eraikitzen du bere irudia. Eta irudi hauek elkarrekin eraikitzen dute irudi globala: autokontzeptua.

William Jamesen ondoan, John Deweyk ere *niaren* garapena prozesu dinamikoa zela zeritzon, eta prozesu hori hainbat faseren ondoren garatzen zela zioen: mundu sozialeko objektuak definitzea, jokabide jakinak zehaztea, ekintzaren hainbat aldaeraren ondorioei aurrea

---

---

hartzea, garatu ezinezko aukerak baztertzea eta, azkenik, ekiteko modu egokiena aukeratzea (Stryker, 1980). Bi autore hauen ondarea jasota garatu zuten Cooley (1902) eta Mead (1934) ikertzaileek interakzionismo sinbolikoa.

### ***1.1.2. Interakzionismo sinbolikoa.***

Interakzionismo sinbolikoak zioen *ni*aren eraikuntzaren ardatzak direla aktorea, ekintza, elkarrekintza soziala eta hizkuntza; azken hori, sinboloen eraikuntzarako tresna. Korrante honen sortzailea izan zen Cooley (1902), eta norbera objektu sozial gisa ikusteko, gizakiak duen gaitasuna bezala definitu zuen *nia*. Autore adierazgarrienetarikoa, alabaina, Mead (1934) izan zen, honek sendo garatu baitzuen korrontearen oinarri teorikoa. Autore honek ordena ezarri zuen *ni*aren eraikuntzan: gizartea, lehenik, eta berarekin sortzen den arima, ondoren. Bere analisisetan dimentsio sozialak, gizarteak alegia, lehentasuna zuen. Hala, beraz, eredu honek “looking glass self” zeritzon metafora erabiliaz azaltzen zuen gizartea, norberaren ispilua zela adieraziz. Norberak bere burua ezagutzera heltzeko, norberaren *nia* eratzeko alegia, “bestearen rola” hartzen duela zioen.

Meaden obra oinarrizkoa da pragmatismotik interakzionismo sinbolikorako bilakaera ulertzeko, eta horretatik konstruktibismo sozialerakoa (Monferrer, 2009). Meaden obraren planteamendua gizabanakoa eta gizartearen arteko harremanen teoria da, pragmatismoari hertsiki lotua, eta “errealitate naturala” bakarrik ez baina “errealitate sinbolikoa” ere aintzat hartzen duena. Hala, Meadek *nia* gizakiaren ekintzen izaera intersubjektibotzat jotzen zuen.

Mead (1934) konduktismo sozialetik eta erradikaletik aldendu zen, jokabidea aztertzerako mugatzeko joerarekin ez zegoen ados, jokabide horiek dimentsio sozialaren hanka bat soilik

---

zirela irizten baitzion. Meadek gizakiaren jokaerak zituen dimentsio guztiak ikertu zituen, eta, beraz, jokaeraz gain, arreta, pertzeptzioa, irudimena, arrazoibidea eta emozioa ikertuz egin zuen bat konduktismo psikologikoaren printzipioekin. Konduktismoa, izan ere, jokabidea aztertzeko metodo zientifikoaren aldeko korrontea izan zen, eta autokontzeptuaren ezagutzan atzera pausoa ekarri zuen (Rodríguez, 2008).

### ***1.1.3. Konstruksionismoa eta konstruktibismo soziala.***

Meaden ekintzaren teorian, etnometodologian eta, beraz, interakizionismo sinbolikoaren korrontean oinarritzen da konstruksionismoak, eta paradigma teoriko bera du konstruktibismoak ere, adimenaren etengabeko berreraikitze soziala azaltzea (Monferrer, 2009).

Konstruktibismo sozialaren arabera, subjektuak bere testuinguru fisiko eta sozialean eta, aldi berean, bere beharretan eta esperientzietan oinarrituz, eraikitzen ditu fenomeno esanahiak. Fenomeno hauek —ideiak, azalpenak zein sinesmenak— etengabe aldatzen dira gizartean, alegia, gizartearen konbentzioen aldaketan adierazgarri dira eta ez errealitatearen adierazgarri (McWilliams, 2010).

### ***1.1.4. Psikoanalisia.***

Freudek (1923), psikoanaliaren aitzindariak, autokontzeptuaren eraketaren inguruko teoria zabal garatu zuen. Psikoanalisia inkontzientearen hiru prozesuetan oinarritzen da subjektuaren pertsonalitatea osatzeko: *nia*, *zera* eta *super-nia*. Hizkuntzaren bidez prozesu inkontzienteak kontziente izatera pasa daitezke. Izan ere, inguruaren errepresentazioak jasota, *nia* aldatu egiten

---

da. *Niak* pertzeptzio hauek *zerari* igortzen dizkio, eta bertako plazera errealitateak ordezkatzeko dezan saiatzen da. *Niak* arrazoibidea eta hausnarketa irudikatzen ditu eta *zerak*, aldiz, pasioak. Korronte honek *nia* konstrukto dinamikoa dela dio eta inkontzientearen hiru prozesuek osatzen dutela aparatu psikikoa. Eta aparatu horren edukia *niarekiko* kontzepzioa da: autokontzeptua, alegia.

Hurtzaroko esperientzien ikuspegiak Freuden eredua babesten du, *kausalitatea*, *interpretazioa* eta *terapia* (Rosemberg and Morris, 1989). Psikoanalistak uste du jokabide neurotikoen *kausa* hurtzaroko esperientzietan dutela jatorria. *Interpretazio* freudiarrek helduen sindrome neurotikoa umetako esperientzien laburbiltze sinbolikotzat ditu, alegia, helduaren pertsonalitatea garapenaren aro goiztiarrean finkatua dela uste du. Azkenik, *terapia* freudiarrek jendearen egungo arazoetatik abiatuta euren hurtzaroko erroak arakatzeko esfortzua egiten du, hala, helduaren bizia menderatzeko boterea kentzeko.

### ***1.1.5. Psikologia fenomenologikoa.***

40ko hamarkadan AEBn garatutako korronte honi psikologia humanista, pertzeptziozko psikologia edo autokontzeptuaren psikologia ere esan izan zaio eta autokontzeptuaren ikerketan aurrerapenak ekarri ditu. Korronte konduktistak jokabidearen azterketara mugatzen zuen pertsonalitatearen garapena; eta inkontzientearen azterketara, psikoanalisiak. Horregatik, korronte honek norbanakoen barne markoari erreferentzia egiten dion analisia eskatzen zuen. Giza jokabidea ez dela inguruak eraginiko ondorio mekanikoa, ezta indar inkontzienteen efektua ere, baizik eta subjektuak errealitatearekiko egiten duen interpretazio subjektiboaren ondorio (Snygg eta Combs, 1949).

Rogersek (1959) dio autokontzeptua norberak bere *ni* edo *nire* konstruktoen baitan duen pertzeptzioa dela, eta, hortaz, autokontzeptuan eragina dutela besteek hauekiko duten pertzeptzioak eta bizitzako beste eremuekiko norberak dituen baloreek eta ideiek. Aldakorrak diren elementu fisiko, psikologiko, biologiko eta sinbolikoek eraturiko konstruktoa da eta ez ezinbestean kontzientea, nahiz eta kontzientzia hau eskuragarria izan. Aldakorra izan arren, memento zehatz batean neurtu eta definitu daitekeen entitatea da, neurri batean, behintzat. Norberaren izateaz kontziente izatea eta norberaren funtzionamenduaz kontziente izatea subjektu adierazgarriez osaturiko inguruak eragiten du. Hala da *ni* kontzeptua: dagokion esperientzia esparruko objektua.

#### ***1.1.6. Psikologia soziala.***

Psikologia soziala familia kasuen ikerketan oinarritu zen, hurrek gurasoekin bizi izandako esperientziek haurren erantzunetan zuen eragina aztertu, eta, hala, autoestimua definitzeko. Gurasoen jokabideak haurren autoestimuan eragin zezaketen lau faktore xedatu zituen Coopersmithek (1967): gurasoek haurra onartzea, hezkuntza mugak definitzea eta hauek errespetatzea, muga hauen barnean haurra errespetatzea eta, azkenik, gurasoek haurren ekintzak balioestea.

Bandurak garapen sozialaren teoria hurrek eta helduek euren esperientzian kognitoboki nola interbenitzen duten aztertuz eta interebentzio hauek jokabidea eta garapena nola baldintzatzen duten interpretatuz eratu zuen. *Ni*-ak norberaren egitura multzo eta prozesu batzuen baitan operatzen du, era guztietako jokabide etengabeetan (Bandura, 1979), eta, ondorioz, norbere segurtasuna indartzeko baino gehiago ere balio du, hau da, antsietatetik

---



---

babesten du. Izan ere, subjektuek euren buruaren eta inguru sozialaren irudikapen mentalak egin eta erantzun zein jokabide jakinak espero dituzte, hau da, autoefizikazia hautemateak edota autoerreakzio ebaluazioak sortzen dira. Horrela, subjektuetan ingurunekeo estimulu hauek nola eragiten ikertzen da, baina baita zer nolako inguruneak bilatzen dituzten ere (Grusec, 1992).

### ***1.1.7. Kognitibismoa.***

Psikologia kognitibistak *nia* norbera ezagutzeko eskema edo egitura gisa ulertzen du, nobere buruaz duen informazioa ordenatuz eratzen dena. Kelly (1955), Epstein (1973) eta Coopersmith (1967, 1977) izan ziren mugimendu honen baitan autokontzeptuaren egitura hori definitu zutenak, esanaz norberak bere esperientzien arabera eraikitako ezagutzek ezberdintzen zutela norbera besteengandik; gainera, bere eraikuntza horietatik kanpo egon zitezkeen beste ezagutzak eta esperientziak ulertzeko zailtasunak izan zitzakeela (Neisser, 1976).

Ikusi ahal izan dugunez, mende bat edo biren bueltan hainbat hipotesi eztabaidatu dira, behin eta berriz, autokontzeptuaren eraketa, osagaiak eta egitura ezagutu nahian. Eztabaida hauek komunean dituzte hainbat alderdi eta ezagutzak adierazteko kontzeptuak antzekoak izan dira, batez ere azken bost hamarkadetan.

### ***1.1.8. Kontzeptuen formulazioa***

Ez egia bakar bat, ezta ulermen bakar bat ere, bilatzen ez denean, esanahiak elkarrekin eraikitzen direla ohartzen gara, interpretazio subjektibo zein kolektiboetan oinarrituz. Berdintasunak nahiz

---

ezberdintasunak ulertuz, garrantzitsua da kontzeptu bakoitzaren adierari buruzko zehaztapenak egitea eta baita horren aukeraketa irizpidea arrazoitzea ere.

Adiera bera edo antzekoa duen esanahia eraikitzean hainbat kontzeptu erabili izan dira, eta hala erakutsi du errepasso historiko labur honek ere. Baina aipatutakoak baino gehiago ere badira autokontzeptuaren balizko sinonimoak: *autopertzeptzioa*, *autoestimua*, *autoirudia*, *ni-a*, *autoexijentzia*, *autoerrealizazioa*, *autokontzientzia*, *autoezagutza*, *autobalorazioa*, *autoebaluazioa*, *autoidentitatea*, *etab.*

Autokontzeptua eta autoestimua dira gehien parekatzen diren bi terminoak. Biek ala biek oinarrian dute norberaren gaitasun zehatzen azterketa, baina autokontzeptua deskribapenera mugatzen den moduan, autoestimua norberak pertsona gisa duen balio epaitzen du, (James, 1890).

## **1.2. Autokontzeptuaren garapena**

Autokontzeptua adinarekin aldatuz doala jakina zen, baina edukia aldatzeaz gain egitura ere aldatuz doala zioen Harterrek (1985). Adinean aurrera joan ahala zehaztasun gehiagoz deskribatzeko gaitasuna garatzen da, eta inguru sozialaren araberrako erreferentziak gehitzen dira. Izan ere, txikitatik gai gara gure gaitasunak deskribatzeko —fisikoak zein kognitiboak—, baina balioak eta gure izatearen inguruko argudio abstratuak gizartean parte hartze autonomoa eta aktiboa izatean garatzen dira. Beraz, adinarekin autokontzeptuaren dimentsioak eta hierarkia aldatzen dira eta, ondorioz, egitura eta antolaketa (Harter eta Pike, 1984).

---

## 2. Autokontzeptuaren barne egitura

William Jamesen (1890) teoria, *niaren* hiru osagaien definizioa, autokontzeptuaren egitura azaltzeko lehen saiakera bezala hartzen da. Aurka zituen ikuspegi global eta unitarioa zuten ikertzaileak, baina 70eko hamarkadako ikertzaileek, Shavelson eta besteek, hainbat ikerketen emaitzak medio, dimentsioaniztun ereduak sendo ezarri zuten ikertzaileen komunitatean. Eta berretsi: autokontzeptu orokorrak beste hainbat dimentsio dituela bere baitan, norbere deskribapen horren aspektuak beste, eta dimentsio horiek beste hainbat dimentsio dituztela euren baitan.

Autokontzeptua ezaugarri orokor eta unitario moduan ikusi izan da hainbat hamarkadetan eta ikuskera hau zutenek, zenbait osagai zituela onartzen bazuten ere, osagai hauek modu independentean aztertuta ezin ezagutu zitekeela autokontzeptua berresten zuten (Brookover, Thomas eta Patterson, 1964; Copersmith, 1967; Marx eta Winne, 1968; eta, Rosermborg, 1965). Eta, noski, ikuskera honetatik eraikitako neurtresnek eskala bakar batetan bildutako itemen bitartez neurtzen zuten norberarekiko pertzeptzio positiboak, baliozkotasun sentimenduak eta norberarekiko asebetetze maila (Rosenberg, 1965).

Ikerketa enpirikoek, ordea, ez dute balioetsi dimentsio bakarreko ikuskera, eta, aldiz, hainbat dira, 70eko hamarkadaz geroztik, dimentsioaniztun ikuskera indartzea ekarri duten analisi enpirikoak.

Ikuskera aldaketaren mugarri Shavelson eta besteak izan ziren (1976). Eurena zen dimentsioen aniztasunaren antolamenduari buruzko teoria nagusia: antolamendu hierarkikoarena. Hala ere, azken lau hamarkadetan egindako hainbat eta hainbat ikerketek hierarkia eredu ezberdinak babestu dituzte. Ereduotan zenbait dimentsio behin eta berriz berresten dira, hala

nola, pertsonala edo emozionala, soziala, fisikoa eta akademikoa, baina euren arteko erlazioen hipotesi ezberdinek, hainbat egitura planteamendu egiten dituzte (Rodríguez, 2008). Nolanahi ere, gaur egun guztiak bat datoz autokontzeptuak egitura hierarkikoa duela berrestean.

## **2.1 Eredu independentea eta korrelazionatua.**

Faktore independenteen eredu dimentsioaniztunak bere baitako dimentsioek elkareraginik ez dutela berresten du. Eredu honek faktoreen guztizko independentzia denfenatzean (Marsh, 1997; Marsh eta Hattie 1996) enpiriko gutxi jaso du, eta zerbait gehiago elkareragite ahula onartu duenean (Marsh, Barnes eta Hocevar, 1985; Marsh eta Hocevar, 1985; Marsh eta Shavelson, 1985). Elkareragite hori bazela erakutsi zuten ondorengo ikerketek, ordea. Hala, beste eredu honek, faktore interdependienteen eredu dimentsioaniztunak, askos ere babes enpiriko handiagoa du, (Marsh, 1997).

### **1.2.1 *Eredu fazetaniztuna eta fazetaniztun taxonomikoa.***

Eredu fazetaniztunak eta fazetaniztun taxonomikoak ere eztabaida hau elikatzen dute (Marsh eta Hattie, 1996). Lehenaren ustez, multi-fazetak, autokontzeptuaren domeinuak mailak lirateke, fazeta bakarraren baitan. Bigarrenak, aldiz, multi-fazeta taxonomikoak, hainbat fazeta —bi gutxienez— eta mailak eraikitzen dutela autokontzeptua diote.

---

### 1.2.2 *Eredu kompensatorioa.*

Planteamendu oso antzekoa zen eredu kompensatorioarena, Winne eta Marzena (1981), fazeta orokorraren baitan espezifikagoak diren fazetak biltzen dituela aukontzeptuak zioena.


### 1.2.3 *Faktore hierarkiko dimentsioaniztunaren eredia.*

Eredu hau Shavelson eta besteek (1976) azaldu zuten. Autokontzeptua hainbat dimentsioek deskribatzen dutela zioten, antolaketa hierarkikoa duela, eta, guztietan gorena autokontzeptu orokorra dela. Eredu honetan oinarritzen da tesi hau, autokontzeptuaren dimentsio artistikoa hierarkia horretan zein mailatan kokatzen den aztertuz.

Autokontzeptua eta bere barne egituraren inguruko zalantzek ez zuten ahalbidetzen ikerketetan aurrera pausuak ematea, ez baitzen definizio argirik, ez egitura planteamendu finkorik, ez eta interpretazioetarako eredurik. Problematika horri erantzuteko Shavelson eta bere taldeak eginiko hainbat ikerketek enpirikoki babesturiko definizioa ekarri zuten, eta alor honetako ikerketaren historian mugarrria ezarri. Autokontzeptua bere esperientzia eta ingurunearekin dituen erlazioetan oinarrituz, pertsona batek bere buruarekiko eraiki duen irudia da, eta berebiziko garrantzia dute giroa indartzeak zein beste adierazleek (Shavelson, Hubner eta Stanton 1976).

Ordura bitartean, Autokontzeptuaren dimentsiobakarreko ikuspegitik planteaturiko ikerketak autokontzeptuak beste aldagai psikologikoekin izan zezakeen erlazioa aztertu zen, batik bat. Shavelson eta bere taldearen ekarpenak onarpen zabala izan zuen komunitate zientifikoan, eta horrek eredu dimentsioaniztun hierarkikoa errespetatzen zuten hainbat neurtresnen sorrera ekarri zuen. Baita, aldi berean, ikusmolde teoriko ez hain zehatz edo

adostuen beste zenbait galde sorta baztertuak izatea ere, (Esnaola, Goñi eta Madariaga, 2008). Geroztik, komunitateak oinarri teoriko sendoa izan du ikerketa bideratzeko. Ondorengo irudian (1.irudia) Shavelson eta bere kideen egitura proposamena aurkezten da.



*Irudia 1.* Shavelson, Hubner eta Stantonen (1976) eredu hierarkiko dimentsioaniztuna.

Goiko irudian ikusi dezakegun antolaketa hierarkiko hau izan da mugarria. Maila gorenean da deskribapen orokorra eskaintzen duen faktorea eta bi azpi maila ditu: akademikoa eta ez akademikoa. Hauek, aldi berean, hainbat dimentsio dituzte euren baitan, faktore bakoitzaren zehaztasunak deskribatzeko.

---

Eredu hau garatzeko proposamenak ere egin zitzaizkion, (Harter, 1982; Hattie, 1992; Pallas, Entwisle, Alexander eta Weinstein, 1990), baina komunitatearen erabateko hobespena jaso zuela esan daiteke, izan ere, autoreak berak jarraituriko lanak, zein beste hainbat ikertzaileenak, ereduaren oinarriaren fidagarritasuna onartu dute (Marsh eta Shavelson, 1985; Marsh 1987; Shavelson eta Marsh, 1986). Hona ereduaren oinarri nagusiak:

1. Egituratua eta antolatua da: norbere esperientziak euren ezaugarrien arabera sailkatzen ditugu —kategorizatu—, eta lehendikako esperientziekin duten loturaz ohartzean —kontzientzia hartzean— eratzen dugu irudi berria; eta, ondorioz, ikasi.
2. Dimentsioaniztuna da: esperientzia horien sailkapen sistemak hainbat fazeta ditu: independienteak, baina eralazionatuak.
3. Hierarkikoa da: fazeta hauen antolaketak hainbat maila ditu eta euren interdependentzia mailak definitzen du hierarkia horretan duten tokia.
4. Egonkorra da hierarkiaren mailaren arabera: autokontzeptu orokorra egonkorra da, baina dimentsio zehatzak esperientzien arabera aldakorrek dira.
5. Ebolutiboa da: norbere irudia garatzen dugu, adinean aurrera, esperientziak bizi ahala.
6. Izaera deskribatzailea eta ebaluatzailea du: norbere izaera, jokabideak eta gaitasunak besteenekin alderatuz zein idealekin alderatuz epaitzen ditugu.
7. Izate propioa duen konstruktua da: harremana izan arren independentea da beste hainbat aldagaiekiko, hala nola errendimendua edota pertsonalitatea.

Dominio eta dimentsioei dagokienean, autore gehienak bat datoz Shavelsonen ereduarekin: autokontzeptu orokorra eta bere bi dominioak izendatzean ere: akademikoa eta ez

---

adademikoa, azken honek fisikoa, soziala eta emozionala dituelarik bere baitan. Hortik haratago, badira ezberdintasunak dominio bakoitza deskribatzen duen dimentsioen planteamenduetan.

## **2.2 Autokontzeptu akademikoa.**

Akademikoa autokontzeptuaren ikerketan arreta gehien jaso duen dimentsioa da, (Arens, Yeung, Craven & Hasselhorn, 2011; Marsh, 1990; Marsh eta Shavelson, 1990), izan ere, ikaslearen motibazioan eragitean esfortzu eta iraunkortasun gehiagoz jardun eta errendimendu akademikoan positiboki eragiten duen aldagaia da (Bandura, 1997). Bada eragin negatiboa izan dezkeela ondorioztatu duenik ere (Zakay, 1994), baina ikerketa honen froga enpirikoak eztabaidatuak izan dira eta ez da beste ikerketarik izan ondorio hori babestu duenik. Bai, aldiz, eragin indartzailea duela dionik. Errendimendu akademikoan duen harreman zuzena izan da alor honen ikerketak lortu duen arretaren arrazoia (Esnaola, Goñi eta Madariaga, 2008).


Mirasen arabera (2004), autokontzeptu akademikoa ikasleak bere ikastun izateaz duen irudikapena da, hau da, hezkuntza testuinguruan ikasketei aurre egiteko beharrezko ezaugarriak eta trebetasunak dituen ustea du. Autokontzeptu akademikoaren egitura bat baina gehiago planteatu dira, nahiz eta guztiek ere Shavelson eta Stantonen (1976) egitura hierarkiko dimentsioaniztunaren oinarritik abiatu. 1. irudian ikusi bezala, Shavelsonek —iturri gehien arabera— eskolako irakasgaietan oinarrituz lau dimentsio irudikatu zituen: matematikak, hizkuntza, historia eta zientziak.

Hala ere, 80ko hamarkadan egitura hirerakikoaren baitan eginiko ikerketek beste eredu hierarkiko bat proposatu dute (Marsh eta Shavelson 1985). Hamabi eta hamasei urte bitarteko nerabeekin eginiko ikerketetan Marsh eta Shavelsonen ikusi dute harremana ahula dela maila

---




bereko dimentsioen artean —ingelesa (jatorrizko hizkuntza) eta matematika—, eta indartsua, aldiz, hauek maila goreneko autokontzeptu orokorrarekiko duten harremana. Bi dimentsioek izate independentea erakutsi dute, beraz, hasieran planteaturiko Shavelsonen (1976) eredua baztertu eta beste eredu bat planteatu da. Hala, eredu honen arabera, maila gorenaren baitan hiru dimentsio dira: akademiko matematikoa, akademiko ingelesa (jatorrizko hizkuntza), eta, azkenik, ez akademikoa (2.irudia).



*Irudia 2.* Marsh eta Shavelson (1985) autokontzeptu akademikoaren eredu hierarkikoa.

80ko hamarkadaren azken urteek eredu hierarkiko berri baten onarpena ekarri du, babes enpiriko nahikorekin (Marsh, Byrne eta Shavelson, 1988; Marsh, 1990); ondorengo irudiak (3.irudia) erakusten duen ereduak komunitatearen errekonozimendua irabazi du, non autokontzeptu akademikoa eta hizkuntzetakoaren dimentsioak identifikatu diren.



*Irudia 3.* Marsh, Byrne eta Shavelsonen (1988) autokontzeptu akademikoaren eredu hierarkikoa.

### 2.3 Autokontzeptu ez akademikoa.

Autokontzeptuaren ikerketan alor akademikoak bereganatu du ikertzaileen arreta lehen urteetan, eta ez du hala egin izan 90eko hamarkada arte alor ez akademikoak: fisikoak, pertsonalak eta sozialak. Ondoren, autokontzeptu fisikoaren ikerketan aurrerapen nabarmena egin bazen ere, autokontzeptu sozialean eta pertsonalean ez da hala izan beranduago arte, (Esnaola eta besteak, 2008).

#### 2.3.1. Autokontzeptu fisikoa.

Autokontzeptu positiboak lotura zuzena du ariketa fisikoa burutzeko joerarekin, kirola egiteko ohitura dutenek euren trebetasunekiko eta sasoi fisikoarekiko pertzeptzio hobea dute (Biddle eta besteak, 1993), eta kirola praktikatzek zein sasoi egoteak gure ongizate psikologikoan eragin positiboa dute, beste hainbat eragileren artean, (Rodriguez, 2008; Esnaola, Goñi eta Madariaga, 2008).

Gure iritziz onak garelako uste izateak garrantzia gehiago du, gure errendimenduak erakusten duena erakutsita ere (Zulaika, 2000), izan ere, lotura gehiago du autokontzeptu

---

fisikoak trebetasun fisikoaren pertzeptzioarekin, errendimenduak erakusten duen trebetasun fisikoarekin baino (Riley, Zulaikak zitaturia, 2000).


Gismero (2001) psikologoaren arabera, norbere gorputzarekin pozik ez egotea, autokontzeptu fisiko baxua izatea alegia, garrantzitsua da anorexia eta bulimia nerbiosoa kasuetan. Aldagai honen ebaluazio sistematikoa komenigarria da, ez soilik terapeutikoki eskuhartzean, baizik eta prebentzioan (Gismero 2001). Autokontzeptu fisikoak elikadura jokabidearen nahasmenduaz ohartarazteko balio dezake (Goñi eta Rodriguez, 2004). Adinak, sexuak, kirolerako joerak eta masa indizeak neurtuz, autokontzeptu fisiko baxua izanez gero, elikadura jokabide nahasmendua izateko aukerak hatzeman daitezke (Goñi, Rodriguez eta Ruiz de Azua, 2006).

Esnaolak eta besteek (2008), CIMEK galdesortari erreferentzia eginez, autokontzeptu fisikoa nerabezaroan kalteberagoa dela ohartarazten dute, presio kulturala dela eta: nahiago dute gorputz argala eta erakargarria izan.

Osasunaren kultura, gorputz lirainak eta kirol-ohiturak bultzatzen dituen joera oso hedatua dago eta jarduera fisikoak egiten dituztenek errefortzu sozial positiboak eskuratzen dituzte, gainera, modako balio horiei esker, errazago barneratzen dira gizartean (Zulaika, 2000). Herritarrengan duen eragina dela eta, noski, intereseko gaia bilakatu da hainbat sektoretako profesionalentzat: mediku, irakasle, etab. Autokontzeptu fisikoa neurtzeko aukerak interes haundia sustatu du testuinguru formalean, kirol testuinguruan zein klinikoetan, eta, 76ko dimentsioaniztasunaren mugarriaz geroztik —baina batipat 90eko hamarkadatik aurrera— autokontzeptu fisikoa espezifikoki neurtzeko galdesorta berriak sortu dira (Esnaola eta Goñi, 2006).

---

Sonstroemek (1978) aktibitate fisikoetan parte hartzeko eredu psikologikoa proposatu zuen (4.irudia). Eredu honen arabera, autokontzeptu fisikoak aktibitate fisikoa egiteko erakarpen psikologikoa aktibatzen du eta, aktibitate fisikoa egitean, trebetasun fisikoa indartzen da. Gainera, bostgarren irudiak erakusten duen moduan, zikloa errepikatzeak berrelikadura sortzen duela babesten du eta, ondorioz, aldagai guztiak indartuko liratekeela.



*Irudia 4.* Aktibitate fisikoetan parte hartzeko eredu psikologikoa (Sonstroem, 1978).

Eredu honi jarraituz ondorengo urteetan, bi dimentsio bereizten ditu Sonstroemek, autokontzeptu fisikoaren baitan: kirolerako gaitasuna eta itxura fisikoa (Fox, 1987). Aurrerago, Sonstromek (1994) berak, ordea, lau dimentsio bereizten dituen eredu babestu du: aktibitate fisikorako gaitasunaren pertzeptzioa, egoera fisikoa, gorputz erakarrria eta indarra. Emakumeekin eginiko ikerketa honen ondorioetako bat honakoa da: emakume dantzariak

---


aktibitate fisikoa egiteak harremana duela euren aktibitate fisikorako gaitasunaren pertzeptzio positiboarekin eta itxura fisikoaren pertzeptzio negatiboarekin.

Franzoi eta Shieldek (1984), aldiz, hiru dimentsio bereizi dituzte autokontzeptu fisikoaren baitan. Dimentsio hauek, gainera, ezberdinak dira emakumezkoetan eta gizonezkoetan: lehena, sasoi fisikoa da, bi sexuen deskribatzaile; bigarrena, gizonezkoetan erakargarritasun fisikoa da eta emakumezkoetan erakargarritasun sexuala; eta, hirugarrena, gizonezkoetan gorputzaren goikaldearen indarra da eta emakumezkoetan, aldiz, pisuaren ardura.

Marshek (1988) Self Description Questionnaires (SDQ) galde sortaren hainbat bertsio diseinatu dira, adin tarte ezberdinetako subjektuen autokontzeptua neurtzeko. Galde sorta honek bi dimentsioren deskribapena jasota neurtzen du autokontzeptua: kirol trebetasuna eta itxura fisikoa. Bi dimentsio hauek autokontzeptu fisikoa neurtzeko tresna gehienetan ez dira falta, baina autokontzeptuaren dimentsioaniztasuna dela eta beste hainbat ere, izan, badira, (Goñi, Esnaola, Ruiz de Asua eta Zulaika, 2003).

Marsh buru dutela, ikertalde berak galde sorta honetan oinarriturik Physical Self Description Questionnaires (PSDQ) galdesorta diseinatu du, eta bederatzi dimentsio ditu hurrengo bertsio honek: indarra, gizentasuna, aktibitate fisikoa, erresistentzia, kirol trebetasuna, koordinazioa, osasuna, itxura fisikoa eta malgutasuna (Marsh, Richards, Johnson, Roche eta Tremayne, 1994; Tomás, 1998). Bederatzi dimentsioez gain autokontzeptu fisiko orokorra eta autoestimua —estimua orokorra edo norbere buruarekin gustora sentitzea— neurtu dira (Marsh, Martin eta Jackson, 2010). Ondorengo irudian (5.irudia) Marsh eta bere kideek proposaturiko autokontzeptu fisiko orokorraren egitura aurkezten da.

---




*Irudia 5.* Marsh eta besteen (1994) PSDQ galdesortaren dimentsioak eta antolaketa hierarkikoa.

Geroago, dimentsio guztiak mantenduz, baina itemak 70etik 40ra murriztean sortutako bertsio laburrak ere —Physical Self Description Questionnaires (PSDQ-S)—, subjektuen ezaugarri psikometrikoak neurtzeko gaitasuna erakutsi du.


PSDQ zein PSDQ-S neurtresnen ezaugarri nagusia dimentsioaniztasuna da, beraz, subjektuari buruzko informazio zehatzagoa eskaintzean da bere indargunea. Badira, beste zenbait galde sorta egitura orokorragoa izanagatik neurketa fidagarriak eskaintzeko gai direnak ere: Foxen Physical Self perception Profile (PSPP) galde sorta, (Fox 1987; Fox eta Corbin, 1989); edota, Richardsen (1988) Physical Self-Concept Scale (PSC) galde sorta.

Foxen (1989) ereduak, Physical Self-Perception Profile (PSPP) galde sortak, lau dimentsio ditu: kirol-trebetasuna, sasoi fisikoa, erakargarritasun fisikoa eta indarra. Galde sorta hau azken urteetako tresnarik fidagarrienetarikoa dela esan daitekeela alor honetan autoritate gehien duen ikertzailearen —Marshen— (2007) iritziak hobesten baitu (Goñi, Esnaola, Ruiz de Azua, Rodríguez eta Zulaika, 2003). Jarraian aurkezten den irudian (6.irudia) ikusi daiteke Foxen egitura erdua.



*Irudia 6.* Foxen (1987) PSPP galdesortaren dimentsioak eta antolaketa hierarkikoa.

Foxek bere ikerketa nerabeekin gauzatu zuen, eta etorkizunerako eginiko proiektzioen artean helduen autokontzeptu fisikoa neurtzeko moduko galde sortaren diseinua aipatu zuen (Chase, 1991). Proposamen hori bat zetorren beste hainbat ikertzaileren iradokizunekin, horien artean Marsh bera (1985), eta hala diseinatu zuen Chasek 1991. urtean helduentzako PSPP-A (Physical Self-Perception Profile for Adults) galde sorta. Honek ere ondorengo irudian (7.irudia) ageri den lau dimentsiotako egitura planteatu zuen autokontzeptu fisikoarentzat:




*Irudia 7:* Chaseren (1991) Pertsona helduen autokontzeptu fisikoa, PSPP-A.

Tesi honen testuingurura etorriaz, Psikor taldearen Cuestionario de Autoconcepto Físico (CAF) eta Autokontzeptu Fisikoaren Itaunketa (AFI) galde sortak ditugu XXI. mende hasieran garatuak. Batak bestaren itzulpena badirudi ere, esan behar da, ezaugarri soziolingustiko ezberdinak dituzten subjektuen ezaugarri psikometrikoak neurtzeko diseinaturiko bi galdetegi independente direla, eta ondorioz, tresna bakoitzak bere balioztatze prozesua igaro duela (Goñi, Esnaola, Ruiz de Azua, Rodriguez eta Zulaika, 2003). Hori bai, jarraian aurkezten den irudiak (8.irudia) erakutsi bezala, biak ala biak lau dimentsio dituzte: trebetasun fisikoa, sasoi fisikoa, erakargarritasun fisikoa eta indarra.

---





*Irudia 8. Esnaola (2005) Autokontzeptu fisikoaren Itaunketa, AFI.*

### **2.3.2. Autokontzeptu soziala.**

Autokontzeptuaren definizioa eraikitzeke, eginiko ibilbide historikoak erakutsi bezala, dimentsio soziala oso aintzakotzat hartua izan da, eta garapen pertsonalean inguruak zein ingurukoek duten eragina deskribatzeko ikertu izan da (James, 1890; Mead, 1934; Copersmith, 1967). Autokontzeptu sozialaren ikerketa ez da akademikoa edo fisikoa bezainbeste garatu (Goñi, 2009), baina egun bada ezaugarri psikometriko egokiak dituen galde sortarik ere (Fernandez, Rodriguez eta Goñi, 2016).

Autokontzeptu soziala neurtzeko berriazko galde sortak urriak dira eta ez dituzte egiaztatuak euren ezaugarri psikometrikoak: Social Self-Inventory –SSEI– (Lawson, Mashall eta McGrath, 1979) eta Social Self-Concept Scale –SSCS– (Zorich eta Reynolds, 1988).

Dimentsio bakarreko ikuspegia nagusi zen garaian hainbat galde sortek norbere gaitasun sozialen hautemateaz itauntzen zuten, eta norbere ikuspegi globala eraikitzeke adierazgarritzat zen dimentsio soziala. Fittsek 1965. urtean Tennessee Self Concept Scale (TSCS) galde sorta

diseinatu zuen, eta urte batzuk beranduago, 1988. urtean, item gutxiagorekin emaitza fidagarriagoak eskaini zituen bigarren bertsioa. Coopersmithek 1967. urtean diseinaturiko Coopersmith Self Steem Inventory galde sortak ere jasotzen zituen dimentsio soziala neurtzeko itemak, eta baita Texas Social Behavior Inventory —TSBI— izeneko galde sortak ere (Helmreich, Stapp eta Ervin, 1974).

76ko hamarkadaren ondorenak, Shavelson eta besteen eredu dimentsioaniztunaren ondorengo ikerketek, ordea, dimentsio soziala zehaztasun gehiagoz neurtzeko galde sortak eman zituen. Hastapen horietan Helen Harter nagusitu zen bere lehen galde sortaren eraginkortasuna hobetzeko hainbat ikerketa burutuaz eta adin tarte zehatzei egokituriko galdetegiak sortuaz. 1982. urtean Perceived Competence Scale for children (PCS) galdetegia sortu zuen eta norberak berdinen artean hautematen duen onarpen mailan zuen enfasia. Horren harira, agian, hiru urte beranduago, neurgai zen dimentsioaren izena gaitasun soziala izatetik berdinen onarpena izatera igaro zen, eta galde sorta Self-Perception Profile for Children (SPPC) izena izatera.

Bidean, 1984. urtean, Harter eta Pikek lankidetzan haurreskola eta lehen hezkuntzako lehen ziklorako bertsio ilustratu bana sortu zituzten, Pictorial Scale of Perceived Competence and Social Acceptance izenekoak. Ondorenean ere beste bi galde sorta sortu zituen, haiek bigarren hezkuntzako eta nerabeen ezaugarrietara egokituak: bata Self-Perception Profile for Adolescents izenekoa (Harter, 1988), eta bestea, Neemanekin lankidetzan, Self Perception Profile for College Students izenekoa (Neeman eta Harter, 1986).

Aldi beretsuan autokontzeptua neurtzeko erabili den galde sortaren lehen bertsioa sortu zuten Marsh, Parker eta Smithek (1983), Self-Description Questionnaire I (SDQI) izenekoa. Ondorenean etorri ziren bigarren eta hirugarren bertsioak, SDQII eta SDQIII,

---

---

nerabeentzako eta nerabe zein helduentzako, hurrenez hurren. Lehen bertsioak berdinen arteko harremanetan du enfasia, bigarrenak trebetasun sozialetan, eta hirugarrenak bietan.

1992. urtean Brackenek sorturiko Multidimensional Self Concept Scale (MSCS) galde sortak ere, besteen pareko, bi dimentsio beretsu jasotzen ditu: norberak beregan hautemandako onarpen soziala eta trebetasun soziala.

Espainiar estatuan, 1994. urtean Musitu, García eta Gutiérrezek sorturiko Autoconcepto Forma-A (AFA) galde sorta eta 2001. urtean García eta Musituk sorturiko Autoconcepto Forma-5 (AFA-5) galde sortak ditugu.

Gure testuingurura etorrira, Psikor taldeak (Goñi, E. eta Fernandez, A., 2007) autokontzeptu soziala neurtzeko barne egitura egonkorra erakutsi duen galde sorta diseinatu du, eta hasierako bertsioak hiru dimentsio bazituen ere, ondorenean eginiko egokitzapenen ondoren egitura bidimentsionala du: erantzunkizun soziala eta trebetasun soziala. Galde sorta honek ezaugarri psikometriko egokiak ditu, baina autokontzeptu orokorraren egitura hierarkikoaren konposizioari dagokionean, findu beharreko aspektuak ditu, izan ere, bere dimentsiotako bat (erantzunkizun soziala) eta autokontzeptu pertsonalaren dimentsio bat (moralak) bizitza sozialari erreferentzia egiten dieten dimentsioak dira eta, ezberdintasun horiek lauso direnez, barne egituraren definizioa argiagoa izan daiteke (Fernandez, A., Rodriguez, A. eta Goñi, A., 2016).

### ***2.3.3. Autokontzeptu pertsonala.***


Autokontzeptuaren baitan gutxien ikerturiko dimentsioa pertsonala dela erakusten duen datu argiena berau neurtzeko berariazko galde sortarik ez izatea da (Goñi, 2009). Pertsona baten

---

autokontzeptua (globala zein orokorra) eta autokontzeptu pertsonala ez bereiztearen ondorio izan daiteke, alegia, beste dimentsioen deskribapenetatik eraikitako irudi global hori autokontzeptu pertsonala bailitzan uste izatean, ez da norberak bere garapenari buruz dituen pertzeptzioetan erreparatu.

Autokontzeptu soziala neurtzeko galde sorten baitan eginiko errebisioan izendaturiko Self Description Questionnaire III (Marsh eta O'Neil, 1984) edota AFA (Musitu eta besteak, 1994) eta AFA-5 (García eta Musitu, 2001) neurtresnek dimentsio morala zein emozionala ere jaso badituzte ere, Tennessee Self Concept Scale (Fitts, 1972) galde sorta da *ni pertsonala* dimentsioa izendatuta, pertsonari erreferentzia egiten dion dimentsioa izendatu izan duen bakarra.

Horren ondotik Autokontzeptu Pertsonalaren galdetegia dugu (APE), autokontzeptu pertsonalak pertsona bakoitzak indibiduala izateaz duen usteari erreferentzia egiten diona (Goñi, E. 2009). Jarraian aurkezten den irudian (9.irudia) ikusten den moduan, garapen pertsonalaren autopertzeptzioa lau dimentsio definitzen ditu proposamen honek: emozionala, etiko edo morala, autonomia eta autoerrealizazioa.



Irudia 9. Goñiren (2009) Autokontzeptu Pertsonalaren galdetegia (APE)

### 3. Autokontzeptu artistikoa


Autokontzeptu soziala eta pertsonalaren kasuan aipatu dugu gutxi direla bata zein bestea neurtzeko galde sortak, eta halatsu gertatzen da autokontzeptu artistikoa neurtzeko tresnekin ere. Autokontzeptu artistikoa orokorraren baitan kokatzen bada ere, nahikoa entitate aitortu diote jarraian aurkeztuko diren ikerketek. Musikari erreferentzia eginez sortu ziren lehenak eta ondoren beste alor artistikoetakoak, beraz, izan badira, eta, beraz, atal honetan horiei egingo zaie aipamena, autokontzeptu musikaletik hasi eta artistikoan sakonduz.

#### 3.1. Autokontzeptu musikala.

Autokontzeptu musikala neurtzeko lehen bi galdetegiak The Self-Concept in Music (Svengalis, 1978) galde sorta eta Self-Esteem of Musical Ability Scale (Schmitt, 1979) galde sorta dira. Lehenak musikarako trebetasunei buruz galdetzen du, baina batez ere kanturako gaitasunaren autopertzeptzioa neurtzen du. Galderei bai ala ez erantzuteko aukera eskaintzen duenez erantzunak orokorrak dira. Bestalde, bigarren galde sortak autoestimua musikala elikatzen duten hiru iturri definitzen ditu: trebetasun eta lorpenen ebidentziak, inguruko adierazgarrien feedbacka eta etorkizuneko helburuak musikarako gaitasunei dagokienez.

Ondoren etorri zen Musikako autokontzeptuaren inbentarioa —Music Self-Perception Inventory (MUSPI)—, musika arloko hainbat ekintzetan norberak beregan hautematen dituen gaitasunen inguruan eginiko deskribapena, hala nola, musika instrumentuak jotzea, abestea, irakurketa musikala, konposizio musikala, musika entzutea, musikarako gaitasun orokorra eta

musikarekin mugitzea (Vispoel, 1993b). Ondorengo irudian (10.irudia) Vispoelek eginiko proposamena ikusi daiteke.



*Irudia 10.* Vispoelen (1993b) Music Self-Perception Inventory, MUSPI.

Zazpi dimentsio hauek deskribatzeko laurogeita lau item dituen galdetegiak ondorengo hamabi kategoria ditu (Vispoel, 1993): (1) norbere gaitasuna besteenarekin alderatuta; (2) norbere gaitasun espezifikoa beste arlo batekoekin alderatuta; (3) erosotasun eta segurtasun maila arlo horrekin harremana duten atazak burutzean; (4) erosotasun eta segurtasun maila beste batzuekin batera atazak burutzean; (5) ataza ezberdinetan parte hartzeko edo parte hartzea ekiditeko joera; (6) ataza ezberdinak ikasteko erraztasuna edota abiadura; (7) norbere trebetasunen honeste edota ez honesteari buruzko ebaluazio adierazpenak; (8) musikarako doain naturala izatea edota ez izatea hautematea trebetasun jakinetan; (9) norbere trebetasuna edo trebetasun eza besteek aitortua dela hautematea; (10) arlo jakin batean egindako lorpenen hautematea; eta (11) etorkizunean atazak burutzeari buruzko proiektzioa.

---


Vispoelek ondorengo urteetan ere autokontzeptu musikalaren ikerketan sakontzen du ordura bitarteko autokontzeptu eskalak aztertuz, izan ere autokontzeptuaren ikuspegi psikometrikotik, neurketa tresnak eta autokontzeptuaren teoria eskuz-esku doaz (Vispoel, 1994).

### **3.2. Autokontzeptu artistikoa.**

Autokontzeptu artistikoa neurtzeko The Art Self-Concept Inventory (King, 1983) galde sortak arte sorkuntza, kritika eta arteaz gozatzeaz galdetzen du, eta ASDQ-I eta ASDQ-II (Marsh, 1990) galde sortak erabilia Marshek autokontzeptu akademikoaren baitan artea eta arte industrialari buruzko autopertzeptzioak neurtu ditu, testuinguru akademikoko ikasgaien arabera antolaturiko galdera sortaren bidez.

Walter Visopel AEBetako psikologoak ASPI (*The Art Self-Perception Inventory*) (Vispoel, 1993a) nerabeentzako galde sorta sortu du, eta, jarraian, bi urte beranduago, helduentzako egindako bertsioa —The Art Self-Perception Inventory for adults— (Vispoel, 1995). Horiek izan dira eredu dimentsioaniaztunean oinarrituta diseinatu eta informazio zehatzagoa eskaintzeko gaitasuna izan duten galdera sortak. Ondorengo irudian Vispoelen eredu tetradimensionalak ikus daitezke (11.irudia).

---



*Irudia 11.* Vispoel (1993c) The Art Self-Perception Inventory (ASPI).

Vispoelek (1993c) Marshen SDQ-II galde sorta erabili du ASPI galdera sorta balioztatzeko helburuarekin. Ikerketako emaitzetan oinarrituz, autokontzeptu artistikoaren barne egitura trinkoa dela aipatzen du, eta, ASPIren fidagarritasuna erakutsi duenez, ondorioztatzen du nerabeak gai direla euren arteetako gaitasunak lau dimentsio nagusi hauen baitan identifikatzeko. ASPI galdera sorta balioztatzeko moduko emaitzak direla ikusita, haurrentzako eta helduentzako egokitzapenak egiteko asmoa erakusten du.

Ondorengo urteetan hainbat ikerketa burutu ditu autore honek (Vispoel, 1994; Vispoel, 1995; Forte eta Vispoel, 1995). 1995. urtean egindako ikerketen artean da autokontzeptua eta autoestimua arteko bariantzaren analisia aztertuzteko egindakoa (Forte eta Vispoel, 1995). Ikerketa honetan autokontzeptu artistikoa neurtzeko ASPI galdera sortaren bidez autokontzeptu artistikoa eta autoestimua arteko harremanak aztertu dituzte, eta ikerketako parte hartzaile kopuru mugatua eta homogenea izateak ondorioei indarra mugatzen dien arren, eta, autokontzeptuaren dimentsio gehienek autoestimua auresateko garrantzia garrantzia gutsi dutela

---




---

ondorioztatu arren, ikerketak babesten du autokontzeptuaren dimentsio artistikoa —matematikoa eta fisikoarekin batera— autoestimua aurreratu duen dimentsio adierazgarria dela.

Vispoelek (1995) urte horietan autokontzeptuaren eta autoestimua arteko harremanean bezala, autokontzeptuaren egiturako dimentsioek euren artean zein mailatako harremanak dituzten ikertzen du Shavelson, Hubner eta Stantonen (1976) eredu hierarkikoan oinarrituz. Unibertsitateko ikasleekin egindako ikerketa honetan, parte hartzaileek autokontzeptu artistikoa akademikoaren baitan egituratua ote duten hipotesia da abiapuntua, baina emaitzak dimentsio espezifikoaren inguruko informazio mugatua da (Vispoel, 1995), eta, ondorioz, ez nahikoa autokontzeptu artistikoa autokontzeptu orokorraren baitako egitura hierarkiko horretan zein mailako harremanetan kokatzen den argitzeko.

Ildo beretik, hezkuntza graduiko ikasleen autokontzeptu artistikoa eta bere baitako lau dimentsioak —dantza, antzerkia, musika eta ikusizko arteak— ikertu dituzte Yeung eta McInerneyk (2001), Australian. Lau dimentsio horietatik haratago joan dira eta dimentsio bakoitzeko hiru trebetasun zehatzetako autokontzeptuekin batera aztertu dute egitura hierarkikoa, hala, osagai kopurua eta aniztasuna bide, hainbat mailatako harremanak osatutako egitura hierarkiko konplexua aurkeztu dute. Honakoak trebetasunak: musikan abestea, mugitzea eta musika entzutea; ikusizko arteetan marraztea, margotzea eta 3D artelanak ekoiztea; dantzan tradiziozko dantzak, dantza modernoak eta inprobisazioa; eta, azkenik, antzerkian mimika, istorio kontaketa eta gidoi idatziak (12. irudia).

---



Irudia 12. Yeung eta McInerney (1993) *Creative Arts Students' Attitude (CASA)*.

Vispoelek (1995) egindako planteamenduaren bide beretik, autokontzeptu artistikoa autokontzeptu akademikoaren baitan planteatzen dute (Yeung eta McInerney, 2001). Daude Shavelson eta kideen (1976) planteamenduaren egitura trikotasun bera ez badu ere, badela arrazoirik hierarkia akademikoan dimentsio artistikoak lekua izatea koherentea dela pentsatzeko, baldin eta dimentsio artistikoaren aniztasunak dituen loturak aztertzen badira. Horregatik, Foxen (1997) hiru mailatako eredu hierarkikoaren baitan egin dute euren planteamendua eta aztertu lehen mailan autokontzeptu artistiko orokorra, bigarreanean lau dimentsio artistiko eta hirugarreanean dimentsio bakoitzaren baitako trebetasun artistikoa dituen egitura.

Emaitzek planteamenduaren koherentzia berresten dute, hau da, parte hartzaileen autokontzeptu artistikoaren barne egitura dimentsioaniztuna eta hierarkikoa dela babesten dute

emaitzek. Hiru mailatako egituraren konplexutasunak —dimentsioaniztasunaren eta izaera hierarkikoa medio— autokontzeptuaren deskribapena lausotzea espero badaiteke ere, testuinguru curricularreko —akademikoko— item zehatzez osaturiko neurketa tresnak argi deskribatzea lortzen du parte hartzaileen autokontzeptu artistikoa. Hori horrela, ikerketa honen ekarpen nagusia komunitatean adostasun handia duen dimentsioaniztasunetik haratago joan eta egitura hierarkikoaren konplexutasuna dekrribatzeko neurketa tresnen diseinurako erreferentzia esakintzea da, testuinguru soziokultural zehatzetarako alegia.

---



## Hirugarren kapitulua

# ARTEAREKIKO JARRERA

### **1 Jarreraren definizioa**

- 1.1 Jarreraren ezaugarriak
- 1.2 Jarreraren osagaiak

### **2 Desiragarritasun soziala: zintzotasunaren arazoa**

- 2.1 Disonantzia kognitiboa
  - 2.1.1 Autokonsistentziaren eredua
  - 2.1.2 Autokonfirmazioaren eredua

### **3 Artearekiko jarrera**

- 3.1 Jarreraren neurketa
- 3.2 Artearekiko jarreraren neurketa
- 3.3 Irakasleek artearekiko duten jarrera



*Pintura ikusteko ohiturarik ez duten horiek,*

*lan bat ona edo txarra den balioztatzeko duten modu bat*

*lan horrek errealitatearekiko duen hantza neurtzea da,  
erreal den horrekiko hantza zenbat eta haundiagoa, orduan eta hobea da obra.*

*Horrela ezin da inoiz arteaz bete-betean gozatu.*

*(Sáez, 2016).*





## **Hirugarren kapitulua**

### **Artearekiko jarrera**

Kapitulu honetan artearekiko jarrera eta bere neurketaren oinarriak azalduko dira; jarrera aldagai psikoinstrukzional ikertuenetarikoa da giza jokabidearen ezagutza helburu duen komunitatean. Jarrerak hiru osagai dituela esatean bat datoz ikertzaile gehienak: sinesmenak, afektuak eta joerak. Osagai hauek deskribatzea helburu duten neurketa tresnak eta euren ezaugarriak ere azalduko dira, ikerketa honen helburuei erantzuteko baliabideak eskaintzen dituen neurrian.

#### **1. Jarreraren definizioa**

William Jamesek dio (1890) fenomeno mentalak zenbait baldintzek eraginak direla (“parte ante” edo jokabidearen aurreko jarrera) eta fenomeno mentalean eraginikoak (“parte post” edo jokabidea) ondorioak dakartzala jokabidean. Jokabideak, zehazten du, ez dira muskularrak bakarrik (boluntarioak zein oharkabekoak), baizik eta arnas sisteman, zirkulazio aparatuan zein

---

gainerako gorputzaren antolamenduan eragin dezaketela. Hausnarketa honen ondorio da teoria: edozein fenomeno mentalen aldaketak gorputzaldi aldaketa dakar.

Idatzi baten formak irakurlearen ideia eta sentimenduetan eragina du, begietan mugimendu bat edo beste eragin baitezake (James, 1890). Mugimendu hauek irakurlea baldintzatzen dute: iritzia ematean, eztabaida-jarrera bat edo beste hartzean, aholkuak eskaintzean zein liburuen aukeraketan. Horregatik, kondizio mentalaren aurreko egoeraz gain, horren ondorio den baldintzari ere erreparatu behar dio psikologiak.

Jarrera zerbaitekiko ikasitako aurretiko joera da; erantzun positiboa zein negatiboa sustatu dezaketen ideiek, afektuek eta jokabideek baldintzatua. Thurstonen (1931) definizioak jarrera objektu psikologiko batekiko afektua zela bazioen ere, urte horietako ikerketa andanak garatu zuen jarreraren konplexutasuna deskribatzea ahalbidetzen zuen beste definiziorik. Hori horrela, jarrera —esperientzien bidez antolatua— norbanakoa erlazionatzen den objektuei zein egoerei erantzutean eragin zuzena edota dinamikoa duen prestutasun egoera mental eta neurologikoa da (Allport, 1935).

Eagly eta Chaiken (1993) ikertzaileen aburuz, jarrera entitate jakin bat ebaluatzeko joera psikologikoa da, aldeko zein kontrako graduazioaz. Definizioaren ezaugarri nagusietako bat ebaluagarritasuna da. Jarrerak objektu psikologikoaren ebaluazio bilduma adierazten du eta onatxarra, onuragarria-kaltegarria edota atsegina-desatsegina dimentsioen baitan jasotzen da (Ajzen, 2001).

Jarrera iragan mendean psikologia arloan interes gehien sortu duen aldagaia izan dela esan daiteke, hurrengo arrazoiak kontuan hartuta (Allport, 1935): lehenik, ordura bitarteko

---

---

inongo korronteez ez dutelako aldagai hau jabetzan; bigarrenik, herentziaren eta inguruaren eraginaren eztabaidatik aldentzen delako; eta, hirugarrenik, kontzeptua norbanakoak zein hainbat kultura eredu aztertzea ahalbidetzeko bezain malgua delako.

Jarrera afektua izatetik (Thurstone, 1931) gaur egun ezagutzen dugun konstrukto konplexu eta ebaluagarri gisa ezagutzeko, aurrerapen garrantzitsuak egin dira iragan mendeko 20ko eta 30ko hamarkadetan (Bogardus, 1925; Guttman, 1941; Likert, 1932). Hori horrela, jarrerak ezaugarri ezberdinak eta osagaien arteko erlazio ezberdinak proposatzen dituzten kontzeptualizazio ariketen bidez hainbat eratarata definitu badira ere, inork gutxik jartzen du zalantzan euren ebaluagarritasuna.

### **1.1. Jarreraren ezaugarriak.**

Morris eta Stuckhardten (1977) arabera jarrerak sei ezaugarri ditu: (1) kontzeptu ebaluagarri afektiboak dira eta jokabide motibatua bideratzen dute; (2) ikasi egiten dira, ez dira jaiotzetikakoak, eta, beraz, irakatsi daitezke edota eurentan eragin daiteke; (3) erreferente sozial espezifikokoak dituzte eta aldakorrak dira, batetik, objektuari dagokiona definitzeko zehaztasunaren arabera, eta, bestetik, objektuari dagokionaren tipo eta kopuruaren arabera; (4) egonkor eta iraunkor samarrak dira; (5) aldatu egiten dira, kalitateari zein intentsitateari dagokionez; eta, azkenik, (6) elkar erlazionatuta daude.

Ondorioz, jarrerak esaten zein egiten dugun horretan eragiten duela esan daiteke, baita lehen mailako harremanek eta esperientzian oinarrituriko ikasketek jarreraren eragin handiagoa dutela ere, eta, beraz, familiarekin, irakaslearekin edota berdinkideekin bizitako esperientziak

---

esanguratsuagoak direla (Morris eta Stuckhardt, 1977). Bandurak (1977) ikasketa sozialaren teoria garatzean babesten du haurrek besteak behatuz eurenganutzen dituztela jarrerak.

Ez dira hain aldaerazak eta elkar erlazionatuak izateak zerikusia du horretan, hain zuzen ere, jarrera batek bestea babesten du. Horrela uler daiteke jarreraren egonkortasuna eta aldatzeko erresistentzia. Hala ere, jarrerak positiboak edo negatiboak eta indar eta intentsitate ezberdinekoak izan daitezkeenez, batzuk besteak baino errazago sortu zein aldatu daitezke.

Stuckhardten arabera (1977), erreferentea objektu fisiko konkretuen multzoa izan daiteke —edozein unitate, kategoria edota klasetakoa—, baina fenomeno abstraktua ere izan daiteke; hala nola, kontzeptua, gaia edo jokabidea.

Jarrerak objektu psikologikoak ebaluatzeko airurriak direla esan daiteke, baina horrela esanda, subjektuak objektua edozein dela ere jarrera bakarra duela uler daiteke, eta, azken ikerketek konplexutasun gehiago atzeman dute jarreretan (Ajzen, 2001). Subjektuek jarrera bat baino gehiago izan ditzakete jokabide bakarraren baitan: bata adierazia eta bestea ez. Dualitate hori eragiten duten faktoreen identifikazioa izan da azken urteetako ikerketen helburua, eta motibazioa zein gaitasuna eta horren hautematea edo ebaluazioa dira eztabaidaren protagonistak.

## **1.2. Jarreraren osagaiak.**

Usadioz, autore gehienek jarreraren hiru osagai zehaztu izan dituzte: pentsamenduak, sentimenduak eta ekintzak. Hau da, hiru dimentsio identifikatu ohi izan dira: kognitiboa, ideiek osaturikoa; afektuzkoa, emozioek osaturikoa; eta konatiboa, joerek osaturikoa. Morales (2006) pedagogoak, Rosemberg eta Hovland (1960) aipatuz, jarreraren egitura hau psikologia

---

---

garaikidean ez ezik, aintzinatik datorren kontzeptzioa dela dio, alegia, greziar filosofiatik (*logos*, *pathos* eta *ehos*) zein indiarretik (gizakiak *ezagutu*, *sentitu* eta *egin* egiten du). Hona hemen osagaien definizio zehatzagoa:

- kognitiboa: subjektuak jarrera hartzen duen objektuari buruz dituen datu eta informazio multzoa. Objektua zehaztasunez ezagutzeak, subjektua eta objektuaren arteko harremana indartzen du.
- afektiboa: objektuak subjektuarengan sortzen dituen sentazio eta sentimenduen multzoa da. Objektuaren eta subjektuaren arteko harremanaren gertutasunak joera indartzen du.
- konatiboa: subjektuak objektuarekiko hartu dituen jokabide multzoa da. Objektuaren eta subjektuaren arteko esperientzien maiztasunak eta intentsitateak joera indartzen dute.

Jarreraren osagaiek ez dute beti norabide bera, ordea; alegia, zenbaitetan ideiek norabide jakin bat badute ere, emozioen eta jokabideen indarrak jarrera ideiena ez den norabide batetara bideratu dezake. Beste modu batera esanda, kasu horretan bezala, zenbaitetan ideiak eta informazioa bat izanda ere, norbanakoaren jokabidea (adierazpena) bestelakoa da. Beraz, jarreraren osagaiek indar ezberdina izan dezaketela ondoriozta daiteke, edo baita jokabidean eragiten duten aldagaiak jarrera baino gehiago izan daitezkeela ere (Ajzen eta Fishbein, 1980).

Autokontzeptuak jarreraren duen eragina aztertzeke joera handia da dimentsio kognitiboa ikertzen denetik, izan ere, subjektuaren jokabidea gehiago baldintzatzen du norberak bere buruaz dituen usteak, izaerak berak baino (González eta Tourón, 1992).

---

## **2. Desiragarritasun soziala: zintzotasunaren arazoa**

Betiko kezka da subjektuei zerbaitekiko duten jarrerari buruz zuzenean galdetzean euren erantzuna zintzoa izango ote den ala ez. Jarreraren inguruko galde sortak erabiltzean ontzat ematen da parte hartzeileek pentsatu edo sentitzen duten hori erantzungo dutela, baina, sarri, hori fede asko izatea da, izan ere, erantzunetan eragin dezake irudi ona adierazteko desirak, alegia, sozialki onargarria den moduan erantzuteak (Morales, 2006).

Hori horrela, erantzuna subektiboki zintzoa bada ere, objektiboki faltsua izan daiteke, alegia, *ni ideal* horrek baldintzatua izan daiteke, norbera den hori baino izan nahi duen hori adieraziz (Morales, 2006). Izan ere, autokontzeptua kontzeptualizatzean aipatu den moduan, autokontzeptuaren eraketan kontzeptuak zeresana du —objektuarekiko norberak duen kontzeptzioak—, hau da, autokontzeptuak izaera deskribatzailea eta ebaluatzailea du, norbere izaera, jokabideak eta gaitasunak besteenekin alderatuz zein idealekin alderatuz epaitzen ditugu (Marsh eta Shavelson, 1985; Marsh 1987; Shavelson eta Marsh, 1986). Baina ikusgai da, harreman hori bi noranzkotakoa dela, eta, esan bezala, autokontzeptuak kontzeptuaren formulazioa baldintzatu dezakeela.

### **2.1 Disonantzia kognitiboa: jarrera eta jokabidearen arteko inkongruentzia.**

Subjektuak, sarritan, politikoki zuzena denak baldintzatuta deskribatzen ditu bere ideiak, hau da, errepresentazio sozialen arabera zuzena edota okerra denak baldintzatuta. Egunerokotasunean, hainbat egoeretan, jendea rol sozial jakinak hartzera bultzatua da, eta, ondorioz, sarri, ez ditu bere usteekin bat datozen adierazpenak egiten (Janis eta King, 1954). Alegia, zenbaitetan, jarreraren osagai kognitiboaren ebaluazioa kanpo instrukzioek baldintzatua da. Horrela,

---

---

disonantzia kognitiboa, espezifikoki, pertsona bati ideia jakin bati buruzko desadostasuna izanda, diskurtsoa bat-batean garatzera behartzean adierazten da, eta bere iritzia diskurtsoak babestutako ideiarda gerturatzen da.

Bide horretan, Festingerrek (1957) zabal aztertu ditu subjektuaren jarreran eragiten duten kanpo erreferentzien ondorioak, disonantzia kognitiboaren teoria babesteko. Kanpo erreferentzien eraginak parte-hartzaileen jokabidean duen ondorioa aztertu du: erabakiaren ondorioak, men egitera behartzearen ondorioak, borondatez edo derrigorrez informatua izatearen ondorioak eta gizarte laguntza paperaren ondorioak.

Ikerketa horretan oinarrituz, Festingerrek (1957) honako ebazpenak egin ditu: (1) subjektuak bat ez datozen bi kognizio ditu: lehen ezagutza norberak sinesten duena (“X”) eta bigarren ezagutza publiko egindako bere sinismenaren adierazpena (“ez X”); (2) subjektuak publiko egindako bere sinismenaren adierazpena (“ez X”) kontsonantea da, alegia, bat dator “Ez X” esateko egindako presio, sari promesa edota zigor mehatsuen kognizio osagaiekin; (3) disonantziaren guztizko magnitudea kalkulatzeko kontsonantziak zein disonantziak hartu behar dira kontuan, hala, kontsonantziak zenbat eta handiagoak izan, orduan eta txikiagoa da disonantziaren guztizko magnitudea (1.irudia); eta, azkenik, (4) disonantzia eta kontsonantzia, biak, neurtuz gero disonantziaren guztizko magnitudea txikiagoa da.

---

$$\text{Disonantziaren guztizko magnitudea} = \frac{\text{Disonantzia}}{\text{Disonantzia} + \text{Kontsonantzia}}$$

*Irudia 13.* Disonantziaren guztizko magnitudea kalkulatzeko formula

Goiko irudiko formulari jarraiki, ondorengo erabakiek neurketaren zehaztasuna areagotuko dute: (1) disonantzia ezabatzea, (2) kontsonantziak gehitzea, (3) disonantzien hautemandako garrantzia murriztea, edota (4) kontsonantzien hautemandako garrantzia gehitzea.

Disonantzia kognitiboaren teoria garatu eta jarrera eta jokabidearen arteko inkongruentziaren eragileak zehaztasun gehiagoz azaltzeko hainbat ikerketa burutu ziren, ondorengo urteetan, baina ondorengo bi paradigma ziren nagusi ikerketa horien oinarrian: indukzioa onartzearen paradigma —*induced compliance*— eta aukera askearen paradigmak —*free choice*—.

Indukzioa onartzearen paradigma, Festinger eta Carlsmith (1959) psikologoek ikertu zuten, eragindakoa betetzea sustatzen zuten egoerak aztertuz. Paradigma honi behartze bidezko onarpena —*forced compliance*— izena ere eman izan zaio, baina ezagunagoa da indukzioa onartzearen paradigma —*induced compliance*— izena. Esperimentuan parte hartu zuten ikasleak aspergarria zela pentsatzen zuten ariketa ikaskideei dibertigarria zela esatera induzituak ziren, sariaren bidez. Hala, saria zenbat eta txikiagoa izan orduan eta txikiagoa zen norbere intuizioaren aurkako jarrera, alegia, haundiagoa zen jokabidea mantentzeko jarrera, eta, ondorioz, txikiagoa



disonantzia. Halaber, paradigma honen baitan kokatu daiteke esfortzuaren merezimenduan oinarrituriko disonantzia paradigma ere —*effort justification*—, paradigma honek erdietsi gai den helburuaren merezimendua du estandarra, hau erdietsi nahi bada disonantzia izango da, baina, aldiz, ez bada erdietsi nahi, ez du disonantziarik sortuko.

Aukera askearen paradigmatik —*free choice*—, aldiz, aukera askeko egoeretan disonantzia kognitiboaren inplikazioa aztertu du, izan ere, aukeratutako objektuarengan identifikatutako alderdi desatseginek eta aukeratu gabekoaren atseginek disonantzia elikatzen dute. Egoera horretan disonantzia ebazteko alternatibak erabaki osteko hedapena gertatzen da, alegia, aukeratutako alternatiba erakargarriagoa bilakatzen da, eta ez erakargarria, aldiz, aukeratu gabekoa (Brehm, 1956). Aukera askearen paradigma honen harira, Festingerren (1957) aurkikuntzetan oinarritu diren hainbat ikerketa egin dira disonantzian eragiten duten aldagaiak eta euren arteko harremanak zehaztasun gehiagoz deskribatzeko asmoz eta, hala, hainbat eredu garatu dira disonantzia kognitiboa arrazoitzeko. Horien artean, ordea, autokontzeptuari erreferentzia egiten dioten ereduak bi dira: autokonsistentziarena eta autoafirmazioarena.

### **2.1.1 Autokonsistentziaren ereduak.**

Aronson (1992) psikologoak dioenez, disonantzia jokabidea eta autokontzeptuaren arteko inkonsistentziaren ondorioz agertzen da. Bere aburuz, autokontzeptu positiboa izan eta inkonsistentea izan daitekeen jokabideari aurre egitean, disonantzia sortzen da, alegia, inkompetente sentiarazi gaitzakeen egoera baten aurrean sortzen da disonantzia. Hala, eredu hau Festingerren (1957) abiapuntuko ereduarekin bat datorrela esan daiteke, neurri batean, alegia, bat egiten du bi inkonsistentzia jokabidea aldatzearen ondorio dela baieztatzean, halabaina jatorrizko

teoriak edozein bi aldagairen arteko ezberdintasunak inkonsistentzia sor dezakeela dio, eta, aldiz, autokonsistentziaren ereduak zehazten du inkonsistentzia espezifiko dela, objektu espezifiko horrekiko autokontzeptuak eragina. Beraz, ikuskera honen arabera, autokontzeptuak estandar gisa jokatzen du eta estandar honekiko inkonsistenteak diren ekintzen aurrean disonantzia areagotzen du.

Egindakoa betetzearen paradigma berriz definitu du Cooperrek (1999), eta babestu nahi den objektua subjektua ere izan daitekeela dio. Eta, beraz, urkoari edota egoerari kalte egitea ekiditeak disonantzia eragin dezakeela, baina norberak bere buruari sor dakioken kalte egoera ekiditea ere disonantziaren eragilea dela adierazi du. Ondorioz, erantzukizun pertsonala Aronson (1992) zein Cooper (1999) ikertzaileen paradigmatan kontuan hartuak dira.

### ***2.1.2 Autoafirmazioaren ereduak.***

Steeleek (1988) babesten duen autoafirmazio ereduaren arabera, disonantziaren eragileak ez dira inkonsistentzia kognitiboa ez eta jokabidea eta autokontzeptuaren arteko inkonsistentzia ere. Autoafirmazioaren teoriak babesten du subjektuen pentsamenduak eta ekintzak motibazio indartsu batek gidatzen dituela, norbere moralak eta integritatea mantentzeko (Steele, 1988). Hala, babesten du, konsistentzia kognitiboak bere horretan motibatzen ez gaituenez, autoestimua indartzeko, gure motibazioa ekintza disonantearekiko erlaziorik gabeko moduetan asebetu daitekeela (Steele eta Lui, 1983), alegia, norbanakoak bereak ez diren sinesmenak bere egin eta autoestimua indartu dezakeela, horretan, disonantzia sortuz.

---

Hori horrela, Steel (1988) ez dator bat autokonsistentziaren ereduarekin, izan ere, autoafirmazioaren ereduaren arabera disonantzia areagotu zein gutxituko duena autoestimua da, hau da, eredu honen arabera, autoestimua altuko subjektuek disonantzia izateko joera izango dute, hau da, altuagoa izango da euren disonantzia magnitudea; eta, alderantziz, autoestimua baxukoek disonantziarik ez edota disonantzia magnitude txikiagoa izango dute.

### **3. Artearekiko jarrera**

Artearekiko jarrera erreferente artistikoekiko aurretiazko joera afektiboa, ikasitakoa, egonkor samarra eta ebaluagarria da eta jarreraren oinarritzko ezaugarri gehitzen zaizkien honako ezaugarri espezifikoak ditu (Morris eta Stuckhardt, 1977, Pelak aipatua, 2004): (1) artearen natura, arte objektuak eta arte hezkuntzarekiko afektuen ebaluazioa da artearekiko jarrera eta jokabidearen motibatzailea da; (2) jarrera ikasia denez, artearekin kontaktu zuzena izatea artearekiko jarrera hartzeko determinatzailea da; (3) artearekiko jarreraren erreferentzia sozialak espezifikoak dira eta bere eduki dominioa artea, artearekin zerikusia duten objektuak eta fenomeno artistikoak dira, alegia, artean erreferentziazko jarrera artelan bakar bat zein arte kategoria oso bat izan daiteke; (4) jarreraren egonkortasuna baldintzatzen dute norberak bere jarrera aldatzeko duen erresistentziak, bere jarrera indartzeko ikasten duena aukeratzeak, eta baita hainbat jarrera interrelazionatuak izateak ere; (5) jarrera kalitatez eta intentsitatez aldakorra da eta oso positiboa/aldekkoa, neutrala zein oso negatiboa/aurkakoa izan daiteke, eta, horretan, neutrala izatea jarrerarik ez izatearen adierazle izan daiteke; eta azkenik (6) jarrerek interrelazio maila ezberdina dute.

### 3.1. Jarrerren neurketa

Jarrerren neurketa objektu zehatz batekiko egin ohi da, eta, aldi berean, bere hiru osagaiko egiturarekin bat datozen adierazpen ezberdinak kontuan hartuaz; hori da, hain zuzen ere, jarrerren neurketako ikuspegiak bereizten dituen (Morales, 2006). Arte hezkuntzan artearekiko jarrera indartua eta positiboa izatea irakaskuntzarako baldintza izan daiteke, eta horretarako garatutako neurtresnak, beste zenbait aldagai neurtzeko tresnekin batera erabilia, hezkuntzari gogoetarako ikuspegia ekar dakioke (Stuckhardt, 1976).

Jarrerak neurtzeko metodo gehienak dimentsiobakarrekoak dira (Eagly eta Chaiken, 1993), eta, aldi berean, dio Moralesek (2006) gehienak eskala ordinalak dira, beraz, ez dute eragiketa algebraikorik ahalbidetzen (batzbestekoaren kalkulua edo ohiko desbideraketa), eta ezta analisi parametrikotarako metodorik ere (Pearsonen  $r$  koefizientea edo Studenten  $t$  koefizientea).

Ondorengo taulan (4.taula) eskalen eraikuntzarako metodologiaren arabera sailkaturiko hiru neurketa tresna mota ageri dira, sailkapen gehiago badira ere, honakoa da gehien aipatua, eta, ondorioz, klasikoena (Morales, 2006).

Taula 4

*Eskala eta neurketa tresna motak*

Diferentziala	Batutzailea	Metagarria
Thurstone (1928, 1929)	Likert (1939)	Guttman (1950)
Subjektuak eskainitako itemen artean aukeraketa bat egiten eta erantzun	Subjektuak bi eta bost (ohikoena) aukera eskaintzen dizkion eskala batean	Subjektuak item dikotomiko gutxi batzuei erantzuten die eta posizio jakin bat hartzen

---

dikotomikoak ematen ditu, kokatzen du bere erantzuna, du eskalan, balio horretatik eta aukeratutako item guztien itemaren formulazioaren behetiko balioak haintzat baturak adieraziko du aurrean duen adostasun hartzen dituelarik. subjektuaren puntuazioa. mailaren arabera, eta hainbat itemen artean deskribatzen da aldagaia.

---

*Oina:* Edwards, 1957a, Moralesek aipatua, 2006

Goian ageri diren neurketa mota hauez gain besterik bada ere, hauek dira adierazgarrienak, eta horien artean zabalduena Likert (1939) eskala da, hainbat alderaketa ikerketak bere bidagarritasuna babestu dutelako (Morales, 2006). Likert eskalan subjektuak muturreko balioetan kokatu ohi diren item horiek ezberdintzen dituzte subjektuen adierazpenak.

Moralesen (2006) arabera, Likert eskala baten itemak idazterakoan ondorengo faktoreak izan behar dira kontuan: (1) garrantzia, hau da, jarrera objektuarekiko harreman argia izan behar dute; (2) argitasuna, alegia, adierazpen xumeak egin behar dira, ukazio bikoitzak ekidin, *beti* edo *inoiz ez* gisako adierazpen unibertsalak sahiestu, eta ez dira erabili behar bi afirmazio dituzten esaldiak; (3) diskriminazioa, hots, edonork aldeko edo aurkako jarrera agertuko lukeen adierazpenak ekidin; eta, azkenik, (4) bipolaritatea, izan ere, zenbaitetan objektuarekiko aurkako jarrera adieraziko da eta beste zenbaitetan aldekoa.

### **3.2. Artearekiko jarreraren neurketa**

Jarreraren neurketa objektu zehatza, lan honen kasuan, artea den neurrian, tresna zabalduenak aurkezten dira ondoren (5. taula).

---

Taula 5

*Artearekiko jarrera neurtzeko tresnak*

Urtea	Autorea	Neurketa tresna	Ezaugarriak
1947	Bettelheim	“The Inventory of the Arts”	Subjektuen iritzia neurtzen du ikusisko arteetan.
1953	Beittel	“The Art Asceptance Scale”	Unibertsitateko ikasleen jarrera estetikoak neurtzen ditu.
1957	Burkhart	“The Uniqueness of Self-Concept Scale”	Batxilergoko ikasleen sormen prozesuak eta objektuen kalitatea neurtzen ditu.
1964	Shaffer	“The Shaffer Art Attitude Scale”	Oinarrizko hezkuntzako irakasleen artearekiko jarrera, artea irakastearekiko jarrera eta arte irakaslearen <i>ni</i> -a neurtzen ditu.
1966	Eisner	“The Eisner Art Attitude Inventory”	Bigarrenengo hezkuntza eta batxilergoko ikasleen artearekiko jarrera neurtzen ditu.
1971	Grossman	“The Grossman Scale”	Irakasleen jarrera neurtzen du, ikasleen arte ikasketetarako gaitasunarekiko dutena, artea irakasteko dutena eta arterako duten inplikazio pertsonala neurtuz.
1976	Stuckhardt	“The Stuckhardt Art Attitude Scale” (SAAS)	Unibertsitateko ikasleen ikus arteekiko jarrera orokorra neurtzen ditu.

---

1980	Stuckhardt eta Morris	“Attitudes Toward Arts Education Scale” (ATAES)	Irakasleen artearekiko jarrera neurtzen duen dimentsiobakarreko tresna.
1983	Jensen	“Analysis of the Attitudes Towards Fine Arts Education”	Hezkuntza administrazioko kargudunen artearekiko jarrera neurtzen du.
2007	Pavlou eta Kambouri	“Attitude Scale for Art Experienced in School” (ASAES)	Oinarrizko hezkuntzako ikasleen jarrera neurtzen du artearen irakaskuntzarekiko

---

Ikerketa honetarako goiko taulan izendaturiko eskalen artean adierazgarrienak Stuckhardt eta Morrisen (1980) eskala eta Pavlou eta Kambouriren (2007) eskala dira, euren egitura osatzen duten dimentsioen eta hierarkia ereduari dagokionez.

### 3.3. Irakasleek artearekiko duten jarrera

Irakasleek sinesten dute artea balioetsia dela hezkuntzan eta gizartean (Alter et al., 2009), gainera, sinesmen hauek deskribatzean ez dira oinarritu eurek oinarrizko hezkuntzari eurek aitortzen dioten balioan bakarrik baizik eta sinesten dute ikasleek, familiek eta gizarteak orokorrean artearen balioa haintzat hartzen dutela. Alabaina, ikerketa berberak erakutsi du irakasleek duten artearekiko jarrera mugatua dela, izan ere, diote ez dutela beste ikasgaiak bezain “akademikoa” hautematen, aitortzen dute irregulartasunez praktikatzen dutela eta lehen hezkuntzako curriculumeko beste ikasgaiekin alderatuta lehentasun gutxiago eskaintzen diotela (Alter et al., 2009). Irakasle askok departamentuetako zuzendariei egozten diete matematika eta

---

hizkuntza ikasgaiei denbora gehiago eskaintzeko eskaera egitea, eta, aldi berean, onartzen dute zailtasunak dituztela arte hezkuntzan erregulartasuna eta koherentzia bermatzeko, curriculumak alor honi ezarritako denbora mugak direla eta (Alter et al., 2009).

#### **4. Artearekiko jarrera neurketa tresnaren eraikuntza**

Neurketa tresnak testuinguru soziolinguistiko bakoitzeko ezaugarrietarako diseinatua izateaz gain, neurtzea helburu duen aldagaiaren ezaugarriak eta osagaiak neurtzeko diseinua izan behar du. Horregatik, neurketa tresnen eraikuntza bereziki erabilgarria da, sarri, daudenak ez baitira helburu eta egoera espezifiko guztietarako egokituak, edo baliteke behar beste egokituak ez izatea (Morales, 2006).

Jarrerren neurketen helburua subjektuen ebaluazioa zein jarrerren egitura eta neurketa metodologia izan daitezke (Morales, 2006), ikerketa honetan bi helburuak erdietsi nahi dira: parte hartzaileen jarrera neurtzeko tresna egokia diseinatzea eta aldagai psikoinstrukzionala neurtzea.

---



# AURRETIKO IKERKETA

## **1 Autokontzeptu artistikoaren barne egitura eta neurketa**

1.1 *The Art Self-Perception Inventory* —ASPI—

1.2 AUART autokontzeptu artistikoa neurtzeko galde sorta berria

## **2 Artearekiko jarreraren barne egitura eta neurketa**

2.1 *Creative Arts Students' Attitude* —CASA—

2.2 *Attitude Scale for Art Experienced in School* —ASAES—

2.3 ATTART artearekiko jarrera neurtzeko galde sorta

## **3 Aurretiko ikerketa arte hezkuntzan**

3.1 Eskolaz kanpoko arte ekintzetako esperientziaren araberako ezberdintasunak

3.2 Irakasleen prestakuntzaren araberako ezberdintasunak

## **4 Aurretiko ikerketa autokontzeptu artistikoan**

4.1 Sexuaren araberako ezberdintasunak

4.2 Espezialitatearen araberako ezberdintasunak

## **5 Aurretiko ikerketa artearekiko jarreran**

5.1 Ikasmilaren araberako ezberdintasunak

5.2 Sexuaren araberako ezberdintasunak

## **6 Aurretiko ikerketa autokontzeptu artistikoan eta artearekiko jarreran**



*Izaerak ez dira absolutuak*

*eta baldintzen eraginpean daude.*

*Baldintza horien bila ibiltzea da ikertzaileen egitekoa.*

*William James*

---



---

Laugarren kapitulua

### **Aurretiko ikerketa**

Kapitulu honek ikerketa honen izaera deskribatzailearen baitako korrelazio ikuspegia azalduko du, autokontzeptu artistikoak eta artearekiko jarrerak beste zenbait aldagai psikologikoekin duten harremana aztertuz. Ikerketa honek bi aldagai psikoinstrukzionalen arteko direkzionalitatea ezagutzeko gaitasunik izango ez badu ere, ondorengo ikerketei baliagarri izan dakiekeen informazioa eskaini dezake.

#### **1. Autokontzeptu artistikoaren barne egitura eta neurketa**

Neurketa tresna baten diseinua abiatzeko beharrezkoa da eredu teoriko justifikatua izatea eta, bigarren kapituluan aipatu den moduan, autokontzeptu artistikoa neurtzeko edozein galde sortak ondorengo presuntzio teorikoak oinarri izan beharko lituzke: (1) autokontzeptua dimentsioaniztuna da, hau da, bere baitan dituen arlo espezifikoak ezberdinak dira euren artean

---

eta baita autokontzeptu orokorrarekiko ere, Shavelson eta Stanton (1976) psikologoek ekarpenaren ondotik etorritako beste hainbat ikerketek babesten duten moduan (Arens, Yeung, Craven, eta Hasselhorn, 2011; Fernandez eta Goñi, 2008; Goñi, Esnaola, Ruiz de Azua eta Zulaika, 2003; Marsh eta Shavelson, 1985 eta 1990; Mansour, Martin, Anderson, Gibson, Liem eta Sudmalis, 2016; Marsh, Martin, eta Jackson, 2010; Vispoel, 1993a, 1993b, 1993c eta 1995); (2) autokontzeptuak egitura hierarkikoa du, izan ere, bere arloak ez dira plano bakar batean aurkitzen, baizik eta euren garrantziaren arabera modu piramidalean antolatzen da, alegia, subjektu bakoitzak bere hierarkia du arlo jakinei ematen dion garrantziaren arabera (Rosenberg, 1979; Harter, 1985; Sonstroem eta Morgan, 1989); (3) autokontzeptua sendoa da, alegia, errealitatearen eta errealitate horretan berak egiten duen interbentzioaren inguruko bere interpretazioa eta bere hautematea koherenteak dira, izan ere, subjektuak bere autokontzeptuarekiko kontsekuente izateko desira du eta horrek ahalbidetzen du bere jokabidea erregulatzea; (4) autokontzeptua aldakorra da, orokorrean sendotasunerako edo egonkortasunerako joera badu ere, bai baititu zenbait aspektu egonkortasun hori ez dutenak, eta hala, autokontzeptuak egitura erdi iraunkorra duela esaten da (Webster eta Sobieszek, 1974).

Arte sorkuntza, kritika eta arteaz gozatzeaz galdetzen du *The Art Self-Concept Inventory* (King, 1983) galde sortak, baina fidagarritasun altua eskaintzen badu ere, dimentsiobakarreko neurketa instrumentua da. Hori horrela, Vispoelek (Vispoel, 1993a; 1995) diseinaturiko neurtresnak dira ikerketa honek bat egiten duen presuntzio teorikoak betetzen dituztenak, hau da, autokontzeptu artistikoaren baitan dimentsio espezifikokoak (hierarkia) eta bereziak (dimentsionalitatea) neurtzen dituztenak.

---

### 1.1. The Art Self-Perception Inventory –ASPI– (Vispoel, 1993a; 1995).

Vispoelen neurketa tresnak lau dimentsio deskribatzea du helburu: musika, ikus arteak, dantza eta arte dramatikoak. Lehenengo diseinaturiko galde sorta nerabeen autokontzeptu artistikoa neurtzeko sortu zen eta berrogei item ditu. Bigarren sorturikoak, helduen autokontzeptu artistikoa neurtzeko inbentarioak, aldiz, berrogeita zortzi item ditu, baina item asko berberak dira bi galdetegietan.

ASPI galde sortaren bi bertsioetan dimentsioak berberak dira eta baita zenbait item ere. Halaxe, berberak dira item horiek biltzen diren kategoriak ere: (1) norbere gaitasuna besteenarekin alderatuta; (2) norbere gaitasun espezifikoa beste arlo batekoekin alderatuta; (3) erosotasun eta segurtasun maila arlo horrekin harremana duten atazak burutzean; (4) erosotasun eta segurtasun maila beste batzuekin batera atazak burutzean; (5) ataza ezberdinetan parte hartzeko edo parte hartzea ekiditeko joera; (6) ataza ezberdinak ikasteko erraztasuna edota abiadura; (7) norbere trebetasunen hobeste edota ez hobesteari buruzko ebaluazio adierazpenak; (8) musikarako dohain naturala izatea edota ez izatea hautematea trebetasun jakinetan; (9) norbere trebetasuna edo trebetasun eza besteek aitortua dela hautematea; (10) arlo jakin batean egindako lorpenen hautematea; eta (11) etorkizunean atazak burutzeari buruzko proiektzioa.

Galde sorta hauetako itemek eskola testuinguruari erreferentzia egiten diete, izan ere, Vispoelek (1995) autokontzeptu artistikoak beste dimentsioekin zuen harremana aztertu nahi izan zuen autokontzeptuaren egitura hierarkikoa argitzeko. Ikerketa horretan ASPI galde sortarekin batera SDQ-III (Marsh, 1989) galde sortari erantzun zieten parte hartzaileek. Guztira, beraz, hamazazpi dimentsio ziren aztertuak autokontzeptu orokorraren baitan: (1) matematikarako gaitasuna; (2) hizkuntza gaitasuna; (3) eskolarako gaitasun orokorra; (4) arazoak

ebazteko sormena; (5) trebetasun fisikoa; (6) itxura fisikoa; (7) beste sexuko pertsonetikiko harremana; (8) sexu berekoekiko harremana; (9) gurasoekiko harremana; (10) erlijioa/espiritualtasuna; (11) zintzotasuna/fidagarritasuna; (12) egonkortasun emozionala; (13) autoestimua; eta lau artistikoak, alegia, (14) dantzarako trebetasuna; (15) arte dramatikorako trebetasuna; (16) ikus arteetarako trebetasuna; eta (17) musikarako trebetasuna.

## **1.2. AUART autokontzeptu artistikoa neurtzeko galde sorta berria**


Ikerketa honetan Vispoelen neurketa tresna erreferentziazkoa izan da dimentsioaniztasunaren eta eredu hierarkikoaren ikuspegiarekin bat egiten duen proposamen bakarra delako. Horregatik, hark Shavelson eta kideen (1976) ereduan oinarrituz autokontzeptu artistikoaren egitura argitu zuen neurrian, gure testuinguru sozialeko biztanleen autokontzeptu artistikoaren egitura planteatzeko abiapuntu nagusia da. Hala ere, bere neurketa tresnaren itzulpena ez litzateke nahikoa egokituko gure gizarteanren kontzeptzioetara, hezkuntza zein prestakuntza sistemataraz edota beste hainbat ezaugarrietara, eta, ondorioz, beharrezkoa da autokontzeptu artistikoa neurtuko duen tresna diseinatzea, parte hartzaileen ezaugarriak ahalik eta zehatzen deskribatzeko.

AUART galde sortak, gutxienez, lau dimentsio dituela aintzat hartzen dugu: (1) dantzako autokontzeptua, alegia, norberak dantzarako hautematen dituen trebetasunen deskribapena; (2) arte dramatikoko autokontzeptua, hau da, arte dramatikoa aritzeko noberak dituen abilezietan oinarritutako irudia; (3) autokontzeptu musikala, hots, norberak musika ekintzetarako dituen gaitasunen hautematea; eta (4) arte plastikoa, alegia, arte plastikoen alorrean norberak beregan

---



nabari dituen trebetasunetan oinarrituriko deskribapena. Ondorengo irudian (14.irudia) ikerketa honek autokontzeptu artistikoa ikertzeko oinarri duen eredua aurkezten da.



*Irudia 14.* Autokontzeptu artistikoa neurtzeko galde sortaren egitura (AUART).

## 2. Artearekiko jarreraren barne egitura eta neurketa

ATTART galde sortaren diseinua abiatzeko eredu teorikoa justifikatzeko aurkeztu dira aurrekariak hirugarren kapituluan eta horietan oinarrituz ondorengo presuntzio teorikoak ditu oinarri ATTART artearekiko jarrera neurtzeko galde sortak: (1) kontzeptu ebaluagarri afektiboak dira eta jokabide motibatua bideratzen dute; (2) ikasi egiten dira, ez dira jaiotzetikakoak, eta, beraz, irakatsi daitezke edota eurentan eragin daiteke; (3) erreferente sozial espezifikokoak dituzte eta aldakorak dira, batetik, objektuari dagokiona definitzeko zehaztasunaren arabera, eta, bestetik, objektuari dagokionaren tipo eta kopuruaren arabera; (4) egonkor eta iraunkor samarrak dira; (5) aldatu egiten dira, kalitateari zein intentsitateari dagokionez; eta, azkenik, (6) elkar erlazionatuta daude (Morris eta Stuckhardt, 1977).

Artearekiko jarreraren atalean, berau neurtzeko hainbat galde sorta zerrendatu badira ere, gehiengoa dimentsiobakarrekoak izaki, ez datoz bat proiektu honen presuntzio teorikoekin.

Alaber, ondorengo bi neurketa tresna hauen artean lehena dimentsioabakarrekua bada ere, atalek lan honen dimentsioekin bat egiten du. Bestalde, bigarrenaren eredia dimentsioaniztuna da eta planteamenduarekin bat egiten du.

### **2.1. “Creative Arts Students’ Attitude” –CASA– (Yeung eta McInerney, 2001)**

Stuckhardt eta Morrisen (1980) “Attitudes Toward Arts Education Scale” (ATAES) neurketa tresnak hezkuntza testuinguru formalean landutako arteekiko —ikusizko arteak, musika, dantza eta antzerkia— jarrera neurtzen du. Hori bai, dimentsioabakarrekua da, ez ditu dimentsio espezifikoak.

Yeung eta McInerneyk (1999, 2001), ordea, arte sortzaileetako irakasleen autokontzeptua neurtzeko tresna sortu dute, lau dominio —musika, ikus arteak, dantza eta arte dramatiko— autokontzeptu artistikoa neurtzeko. Lau dimentsio horiez gain, hasiera batean 21 trebetasun espezifikotan deskribatzen zuen tresnak autokontzeptu artistikoa (Yeung eta McInerney, 1999), baina gerora 12 trebetasunetara mugatu da neurketa hori (Yeung eta McInerney, 2001).

Ikerketa horietan erabilitako autokontzeptu artistikoaren neurketarako tresnak —Creative Arts Students’ Attitude (CASA)— du izena, eta, autoreek tresna deskribatzean autokontzeptu artistikoa neurtzeko tresna dela diote, baita aldi berean, izendatzean jarrerari erreferentzia egin ere (Yeung eta McInerney, 2001). Diote CASAk neurtzea helburu duena arteetako hautematea dela, gozamenarena, ezagutzena, trebetasunena eta konfiantzarena. Modu honetan, afektuei eta trebetasunei erreferentzia eginez, jarreraren eta autokontzeptuaren baitan kokatzen den proposamena da.


---

---

Dominio espezifikoko item horiez gain, trebetasun espezifikoko bi item ere baditu neurketa tresnak —hiru trebetasun lau doiminiotan—, beraz, hamabi item gehiago ditu Zehazki esatera, honakoak dira trebetasunak: musikako dominioan, abestea, mugitzea eta musika entzutea; ikus arteen dominioan, marraztea, margotzea eta 3-D artelanak sortzea; dantzako dominioan, tradizioko dantzak, dantza modernoak eta inprobisazio dantzak; eta, azkenik, arte dramatikoko dominioan, mimika, istorio kontaketa, eta gidoi idatzia.

Ikerketa hau lan adierazgarria da proiektu honetan, autokontzeptu artistikoa eta artearekiko jarrera neurtu dituen ikerketa bakarra delako eta autokontzeptu artistikoa eta artearekiko jarreraren harremana dominioen mailakoa dela babesten duelako (15. Irudia).

---



*Irudia 15.* “Creative Arts Students’ Attitude” —CASA— (Yeung eta McInerney, 1999). Autokontzeptu artistikoa eta artearekiko jarreraren dimentsio mailako korrelazioa.

## 2.2. “Attitude Scale for Art Experienced in School” —ASAES— (Pavlou eta Kambouri, 2007).

Pavlou eta Kambouriren (2007) “Attitude Scale for Art Experienced in School” (ASAES) eskala dimentsioaniztuna da eta arte plastiko eta bisualen neurketa ondorengo faktore hauen arabera bideratzen du: (1) ikasleen atsegina ataza artistikoeikiko, (2) ikasleen autokonfiantza euren arterako gaitasunetan, (3) ikasleen hautematea ikusizko eta plastika saioretan egiten dituzten jardueren erabilgarritasunarekiko, eta, azkenik, (4) ikasleen hautematea arte hezkuntzako irakaslearengandik jasotzen duen babesarekiko.

---

Ikerketa hau interesgarria da proiektu honetan, artearekiko jarrera neurtu dituen tresna bada ere arteetako jardueren hautemateaz galdetzen duelako eta ereduak proposatzen dutuen dimentsioak autokontzeptu artistikoa eta artearekiko jarreraren arteko harremana estrukturala dela planteatzen duelako, nahiz eta, ikerketa honen presuntzio teorikoak autokontzeptu artistikoa eta artearekiko jarrera bi konstrukto ezberdinak direla haintzat hartzen duen.


### **2.3. ATTART artearekiko jarrera neurtzeko galde sorta.**

Artearekiko jarreraren osagaien eta dimentsioen araberako egitura planteamendu ezberdinak ikusita, alegia, domeinuarekiko espezifikoak direnak edota trebetasunekiko espezifikoak direnak, ATTARTen egitura planteamendua egiterako garaian hartutako erabakia anbizio handikoa da.

Ikerketa honetan, jarreraren osagaiei jarraiki, ATTART galde sortak, gutxienez, hiru dimentsio dituela aintzat hartzen dugu: artearekiko ideiak, afektuak eta jokabideak. Baina, horrez gain, bakoitzaren baitan artearen baitako lau trebetasun arlo identifikatu dira: dantza, arte dramatikoak, musika eta arte plastikoak.

Hori horrela honakoak dira ATTART galde sortaren dimentsioak: (1) kognitiboa, hau da, artearekiko, alegia, norberak dantzako, arte dramatikoak, musikako zein arte plastikoko trebetasunen inguruan dituen usteak; (2) arte dramatikoak autokontzeptua, hau da, arte dramatikoan aritzeko noberak dituen abilezietan oinarritutako irudia; (3) autokontzeptu musikala, hots, norberak musika ekintzetarako dituen gaitasunen hautematea; eta (4) arte plastikoak, alegia, arte plastikoen alorrean norberak beregan nabari dituen trebetasunetan oinarrituriko deskribapena. Jarraian agertzen den irudian (16.irudia) ikerketa honek artearekiko jarrera ikertzeko oinarri duen ereduak aurkezten da.

---



*Irudia 16.* Artearekiko jarrera neurtzeko galde sortaren egitura (ATTART).

### 3. Aurretiko ikerketa arte hezkuntzan

Arterako irisgarritasun mugatuak ondorio adierazgarriak ditu hiriguneetatik kanpoko biztanlegoaren artearekiko jarreraren, hau da, eskualdeetako edota landaguneetako pertsonen artearekiko jarreraren, eta baita familia ekonomia baxukoak zein hezkuntza hain formala jaso ez duten horien jarreraren ere (Ewing, 2010).

### 3.1. Eskolaz kanpoko arte ekintzetako esperientziaren arabera ezberdintasunak.

Hamaika eta hamabi urte zituztenean hasi eta hamalau urte luzez ikerturiko ikasleen emaitzek adierazi dute (Eccles eta Barber, 1999) curriculumetik kanpoko ekintzetan parte hartzeak babestu egiten duela errendimendu akademikoa, eta, aldiz, arrisku jokabideetarako joera gutxitu —alkohola eta drogen kontsumoa—, hala, gainera, komunitateko ekintza ez curricularretan aritzea eta hogeita bat urterekin Unibertsitatean ikasten aritzea maila adierazgarrian erlazionatu dira. Zehazki, arteetako ekintzetan —arte performatiboak (antzerkia eta musika banda)— parte hartu duten gizonezkoek etorkizunean alkohol eta droga kontsumo baxuagoa dutela babestu da.

Australian ere ikertu dira nerabe eta gazteek ekintza performatiko eta sortzaileetan —dantza, antzerkia, zinema, musika eta ikusizko arteetan— duten parte hartzea eta autokontzeptu artistikoa ikertu dira (Mansour eta besteak, 2016). Testuinguru ezberdinetan ikertu dituzte ikasleak, hau da, ikastetxe ezberdinetako ikasleek parte hartu dute, baina baita etxean eta komunitatean egiten dituzten ekintza performatiboak ere: ekintza performatikoetan aritzeak testuinguru akademikoan —motibazioan eta konpromisoan— zein ez akademikoan —autoestimuan eta bizitzarekiko gogobetetasunean— ere onurak dituela erakutsi da (Martin eta besteak, 2013).

Autokontzeptu artistikoaren eta arte performatikoetan parte hartzearen arteko harremana argitzeko helburua duten lanak egin dira, hau da, autopromozio eredia jarraitzen duen —autokontzeptuak aurreratu duen parte hartzea—, edota, alderantziz, trabetasunen garapenaren eredia jarraitzen duen —parte hartzeak autokontzeptua baldintzatzen duen— ezagutzea.

Ondorioren arabera, arteetako esperientziak —eskolaz kanpoko ikasketek zein guraso eta haurren elkarrekintzek— autokontzeptu artistikoa aurreratu dute, horrela, emaitza horiek trabetasunen garapen eredia betetzen dela dierrazten dute, eta, beraz, arte ekintzetan parte

hartzeak autokontzeptu artistikoa indartzen duela. Izan ere, diote autoreek komunitateak curriculumetik kanpoko ekintza egituratuak dira eta identitatea, pasioa eta aukera sustatzen dituzte, autokontzeptu artistikoa indartzearen moduko egoera psikiko positiboak bideratuz (Mansour et al., 2016).

### **3.2. Irakasleen prestakuntzaren arabeko ezberdintasunak.**

AEBetako arte hezkuntzako programa baten baitan egindako ikerketako arte hezkuntzako espezialisten —musika, ikus arteak, dantza eta antzerkia— autokontzeptu artistikoa eta artearekiko jarrera ikertu dira, eta bertan esperientzia gabeko zein 20 urtez gorako esperientziadun irakasleek hartu dute parte (May eta Robinson, 2016), eta euretako %54ak dio hezkuntza graduak prestatu duela bera arte hezkuntzarako eta %60ak prestakuntza iraunkorrak prestatu duela dio. Programa honetako espezialistek oinarritzko hezkuntzako irakasleekin lan egiten dute euren proposamen didaktikoetan artea integratu dadin, eduki zein metodologia gisa.

Euren lanaz euretako gehiengoak (%98) uste du arte hezkuntzak arterako prestakuntza ona eskaintzen duela, eta kopuru berbera da oinarritzko hezkuntzako gainerako helburuak indartzen dituela uste dutenena. Antzera, euren prestakuntzaz galdetzean, %96ak uste du Hezkuntza Graduako arte hezkuntza ikasketek musika, ikus arteak, antzerkia eta dantza irakatsi beharko luketela eta %94ak uste du ikasketa horietan arteak hezkuntza proposamenetan integratzeko plangintzatan trebatu beharko lituzketela, alegia, gehiengo argi batek bi arteetako esperientzien zein didaktifikazio esperientzien beharra babesten du. Parte hartzaileen %30ak uste du hasierako prestakuntzak egoki prestatu dituela modu eraginkorrean arteak hezkuntza proposamenetan integratzeko, eta, bestalde, askok (%80) uste dute prestakuntza iraunkorrak

---



---

pestatu zituela egoki lan horretarako. Erdiek baino zertxobait gehiagok (%54) uste dute artea hezkuntzan integratzeko profesionalak trebatzeko aukera nahikoak eskaintzen direla.

Oinarrizko hezkuntzako irakasleekin duten harremanaz galdetzean, arte espezialisten %90ak euren eta irakasle tutoreen arteko elkarlana osagai garrantzitsutzat du arteak irakasteko, baina %40ak soilik hautematen du elkarlan hori egiteko beharrezko denbora eskura izatea. Erdiek uste dute irakasle tutoreek konpromezua dutela arte espezialisten lanean, eta beste erdiak ezetz uste du.

Kasu hauek tesi honen testuinguru sozialetik urrunagokoak badira ere, pentsa daiteke irakasleen pertzeptzioa euren oinarrizko prestakuntzarekiko negatiboa izatea eta, ondorioz, hautemandako prestakuntza gabezia horrek euren autokontzeptuan negatiboki eragitea; kasu honetan, autokontzeptu artistikoan.

#### **4. Aurretiko ikerketa autokontzeptu artistikoan**

Datozen lerroetan autokontzeptu artistikoaren aldagarritasuna aztertuko da sexuaren eta arte-espezialitatearen arabera. Aldagain horien baitan aurretiko ikerketek argitaratutako ondorioei egingo zaie aipamena.

##### **4.1. Sexuaren araberako ezbedintasunak.**

Vispoel autokontzeptu artistikoaren inguruan ikerketa gehien jorratu dituen aditua da eta, beraz, bere lanetan topa daitezke datuak gizonezkoek zein emakumezkoek euren burua hautemateko desberdintasunen inguruan. Nerabeekin burututako ikerketetan emaitzek emakumezkoen autokontzeptu artistikoa dantza, musika eta antzerkiaren alorrean sendoagoa dela diote (Vispoel,

---

1993), edota musika eta dantza alorretan (Vispoel, 1995; Vispoel eta Forte, 2000). Gizonezkoen kasuan, ordea, autokontzeptu artistikoa sendoagoa da ikus arteen alorrean (Vispoel eta Forte, 2000).

AEBetako ikerketa horien emaitzek Vispoel eta Forte (2000) psikologoaren aburuz sozialki desiragarriak diren erantzun ereduaren eragina erakusten dute, erantzunek gizarteko estereotipoei erantzuten baitie. Hipotesi horiek babestu zein baztertzeko asmoz, SDQ-III, ASPI eta BIDR (autoengainu eta inpresioen kudeaketako galdera sorta) neurketa tresnez baliatuz unibertsitateko ikasleekin garatutako ikerketak (Vispoel eta Forte, 2000) erakutsi du hasiera batean emakumezkoek modu adierazgarrian musika dantza eta ikus arteetako dimentsioetan autokontzeptu altuagoa badute ere, inpresioen kudeaketa kontuan hartuta ezberdintasun adierazgarri horiek desagertu egiten direla.

Autokontzeptuan ezberdintasunak aurkitu diren ikerketatan dominio jakin horretako ekintzarako esperientzia mailari lotuak izan dira, hau da, berariazko ekintza artistikoetan aritzeak berariazko dimentsio horren autokontzeptu artistikoa sendoa izatearekin lotura duela ikusi da. Eta, diote autoreek kezkarria litzatekeela ez hala izateak adieraziko lukeena, sexu bakoitzak autokontzeptu baxua duen arloan gailendu ezin dela pentsatzeak ekintza jakin horretan saiakera egiteko jokabidea mugatuko bait luke. Hala ere, emaitzek ez dute erakusten daturik inpresioaren kudeaketaren eraginaren interpretazio zehatzak egiteko, eta, ondorioz, ezberdintasunak adierazgarriak direla ondorioztatzea zuzenagoa da (Vispoel eta Forte, 2000).

---

#### **4.2. Arte-espezialitatearen araberako ezberdintasunak.**

Marshek eta Rohek (1996) diote arte performatiboetako eskola espezializatuetakoa, alegia dantza eskolatak, musika eskolatak eta antzerki eskolatak, ikasleek autokontzeptu artistiko altuagoa dutela —bakoitzak bere espezialitatean— beste espezialitatekoekin alderatuz gero, eta are handiagoa dela ezberdintasuna espezializatate horiek gabeko ikasketak burutzen dituzten ikasleen autokontzeptu artistikoarekiko. Ez da ezberdintasunik izan, ordea, autokontzeptu artistikoaren ikus arteen dimentsioari dagokionez hiru espezialitateetako parte hartzaileen artean.

Arte espezialitateko ikasleen arteetako autokontzeptuak lotura sendoa du euren autoestimuekin, eta, arinago bada ere, baita euren autokontzeptu akademikoarekin ere, eta, aldiz, ohiko ikasketak burutzen dituzten ikasleen autokontzeptu artistikoa ez da hain sendoa eta, gainera, ez du loturarik autokontzeptu akademikoarekin eta ezta autoestimuekin ere.

Hala ere, deigarria da, son handiko arte performatiboen ikastetxeetan ikasiagatik ere, ez euren autokontzeptu artistikoaren eta akademikoaren arteko lotura izatea, hau da, arte performatiboetan espezializatu diren horiek, ekintza artistikoetan trebatzeari eskaintzen dizkioten eskola orduak ugariak izanda ere, eskola kontzeptuarekin lotzen dituzten jarduerak matematika eta hizkuntza izatea.

Horren arrazoia “ohiko” eskola orduetatik kanpo ikastea dela uste da (Marsh eta Roche, 1996). Artea ez da, antza, eremu akademikoan beste alorrak bezain adierazgarria hautematen, ezta horretan espezializatze biden den horiengan ere.

## **5. Aurretiko ikerketa artearekiko jarreran**

Australian eginiko ikerketa batetan, ikasketa maila altua artearekiko jarrera positiboarekin lotua dagoela ondorioztatu da (Ewing, 2010). Adierazgarria da artearekiko ideia elitista oso zabaldua izatea, izan ere, ikerketa horretan parte hartutakoen %50ak osagai elitista bat identifikatzen du artearekiko erakarpena zuten horiengan. Ikerketa berean, babesten dute txikitandik artearekin harremana izateak lotura duela artearekiko jarrera positiboa izatearekin, eta baita helduaroan arte ekintzetan parte hartzearekin ere, eta, ondorioz, arteek irisgarriagoak eta adierazgarriagoak izan beharko lukete eguneroko bizitzan.

Ikaste prozesuan arte sortzaileek, maila sistemikoan, duten balio eta babesgabeziak irakasleek arte hezkuntzarekiko duten estimu baxua betikotu dezake (Alter et al., 2009). Eta gehiago prestakuntzan baliabide nahikorik eskaini gabe irakasleei egiten zaien artearekiko jarrera eskakizunean, izan ere, Lehen Hezkuntzako irakasle “orokorrei”, alegia tutoreei, ezagutzen ez dutena irakasteko eskatzen zaie, eta, sarri, maite ez dutena: artea (Eisner, 1997).

### **5.1. Ikasmilaren arabeko ezberdintasunak**

Hezkuntza Gradu lehen mailako ikasleek artearekiko dituzten pertzeptzioak —ideiak edota sinesmenak— oso positiboak dira, eta, mailak aurrera egin ahala ahulduz doaz, hirugarren mailan — ikastetxeetan praktikatan igarotako denboraren ostean— beherakada adierazgarria jasaten dute, (Welch, 1995). Autore honek dio esperientzia berriek —duela gutxi gertatuek— baldintzatzen dituztela, gehienbat, norbanakoaren ideiak; Lehen Hezkuntzako ikastetxeek ez dute arte hezkuntza lehentasunezko ikasgaitzat eta, beraz, ikasleek ikastetxeekin harremana duten neurrian eskastuz doaz euren artearekiko sinesmenak.

---

## **5.2. Sexuaren araberako ezberdintasunak.**

Artearekiko irisgarritasunak artearekiko jarrera baldintzatzen du eta ikusi da gizonezkoetan jarrera ez dela emakumezkoetan bezain sendoa (Ewing, 2010). Irakasleen aburuz, lehen hezkuntzan mutilak dantzarekiko duten jarrera ez da positiboa, eta, ondorioz, dantzak ekiditen dira (Alter et al., 2009), izan ere, irakasleek praktika gatazkatsu gisa bizi dute, eta erregularitasun falta eta arreta falta horrek alor honetan ikasleek duten hezkuntza baldintzatzen du.

## **6. Aurretiko ikerketa autokontzeptu artistikoa eta artearekiko jarreran**

Elkarrekiko erlazioa dute autokontzeptu artistikoak eta arte ekintzetan parte hartzeak eta baita autokontzeptu artistikoak eta eskolaz kanpoko arteetako prestakuntzak ere (Mansour et al. 2016), beraz, ondorioztatu daiteke autokontzeptu artistikoak arte ekintzetan parte hartzea iragarri dezakeela, eta, baita alderantziz ere, alegia, arte ekintzetan parte hartzeak autokontzeptu artistikoa iragarri dezakeela. Hori horrela, diote autoreek autokontzeptu artistikoa arteetan parte hartzeko iragarlea, erraztatzailea zein bitartekaria izan daiteke.

Domeinu espezifikoko autokontzeptuak errendimenduaren emaitzak iragartzen ditu —jokabidea barne—, eta bere arteetako errendimenduaren inguruko autoebaluazioa ona egiten duen ikasleak autoebaluazio horrekiko proportzionala den jokabidea har dezake, hau da, arte ekintzetan parte hartzeko jokabide ona izango du. Hala ere, baliteke, autoafirmazio prozesua (Steele, 1988) aktibatzea, alegia, autokontzeptu artistiko altua izan, eta, berau indartzeko helburuarekin, arte ekintzetan parte hartzea (Mansour et al. 2016).



## **SECOND PART**

# ***EMPIRICAL RESEARCH***

---







## Chapter five

# METHOD

- 1 Research question**
  - 2 Objectives**
  - 3 Hypothesis**
  - 4 Research importance**
  - 5 Variables and instruments**
    - 5.1 Socio-personal variables
    - 5.2 Artistic self-concept
    - 5.3 Attitude towards art
  - 6 Participants**
    - 6.1 Sample
    - 6.2 Artistic self-concept
    - 6.3 Attitude towards art
  - 7 Procedure**
    - 7.1 First phase: survey design and collecting data
      - 5.3.1 First collection
      - 5.3.2 Second collection
      - 5.3.3 Third collection
    - 7.2 Second phase: data analysis and writing
  - 8 Statistical analysis**
-



## **Chapter five**

### **Method**

This chapter will analyse the research question and it will explain the objectives and hypothesis. It will also state the importance of this research: Bachelor of Education Degree students' artistic self-concept and attitude towards art. Then, it will bring forward the surveys designed to respond to that objective and the variables within it. It will also describe the participants and the procedure of the data collection. The chapter will be closed by explaining the data analysis.

#### **1. Research question**

There's been a significant amount of surveys designed to measure teachers' self-concept, however the artistic dimension has not been attended till the nineteen nineties. Many of these investigations were dedicated to clarify the internal structure of the self-concept and to analyse

---

the relations between its dimensions. In regard to these investigations nowadays the self-concept is considered multidimensional and hierarchical.

Further from the discussion about the structure of the self-concepts, there are several works that have investigated the connections between artistic self-concept and other psychological variables. However, only few of those works relate the self-concept, also named self-perception or self-image, to variables such as performance or attitude.

In most of the cases the participants were students at university, high school or secondary school, and only few were primary school students. The majority of these investigations used Vispoels' Art Self Perception Inventory (ASPI), either the one designed for adolescents or the later version for adults. There has also been some work done on translation and adaptation of the surveys into other cultural contexts.

The review of above mentioned works has made possible to set the objectives for this work. First, there has been found a very limited amount of work about Bachelors' Education Degree students' artistic self-concept and attitude towards art. Besides, there was no an appropriate survey designed to measure the specific psychometric characteristics of this socio-cultural and socio-linguistic context.

Therefrom it is considered significant to investigate this subject, as more we now about what is enhancing teachers' confidence, more we will be able to help them to develop a joyful and skilful teacher profile. Regarding to this, it is necessary to know in which part of the program students enhance their artistic self-concept and attitude towards art, in terms of which subject areas are helping that. Also, it is necessary to identify if there are differences between men and women or among different ages or age-groups.

---

Moreover there have been identified significant studies re-enforcing the idea that performing art experience is a key factor to enhance performing art student's and teachers' artistic self-concept and attitude towards art. In this line, it is easy to think that the same effect would be provoked by reinforcing artistic experiences of Bachelor of Education Degree students. And consequently their general self-concept would be enhanced.

Thereby, this is the research question: how do Bachelor of Education Degree students describe their competence in arts? And, how is this related to their attitude towards art?

## **2. Objectives**

This research aims to confirm the tetra-dimensional structure of the artistic self-concept and attitude towards arts by creating and validating appropriate questionnaires. This survey would enable to identify the characteristics of the artistic self-concept and attitude towards arts among participants of different profile: sex, age, BE Degree (infant or primary) and experience on artistic performance.

There is not any scale to measure the artistic self-concept, neither attitude towards arts in Basque language. Therefore, the mayor contribution of this thesis would be the validation of two questionnaires that fulfils the psychometric characteristics. For that reason the scales will have to success on reliability and validity. Therefrom, differences among student's artistic self-concept and attitude towards art could be analysed.

---

Consequently, these are the main objectives set for this thesis:

1. To design a reliable instrument to measure the artistic self-concept (AUART) and verify if it confirms the hypothesised tetra-dimensional structure of the artistic self-concept: dance, theatre, music and plastic arts.
2. To design a reliable instrument to measure the attitude towards art (ATTART) and verify if it confirms the hypothesised four-dimensional structure of attitude towards art: dance, drama, music and plastic arts.
3. To analyse the mean differences of Bachelor of Education Degree students' artistic self-concept and attitude towards art, in regard of the socio-personal variables like: sex, age, level of education and experience in art.

### **3. Hypotheses**

Regarding to the first two main objectives there has not been set any hypothesis as such.

However it is essential to verify the following:

- The centrality and discriminatory capacity of the items.
- The reliability or internal consistency of the instruments.
- The adjustment of the model with the data gathered by AUART or, what it is the same, the validity of the construct.

The Hypetheses set for main differences are shown in the following table (Table 1).

Table 1

*Hypotheses of the investigation in regards of the objectives*

---

Objective	Hypotheses
Objective 1: To design a reliable instrument to measure the artistic self-concept (AUART) and verify if it confirms the hypothesised tetra-dimensional structure of the artistic self-concept: dance, theatre, music and plastic arts.	Good psychometric properties
Objective 2: To design a reliable instrument to measure the attitude towards art (ATTART) and verify if it confirms the hypothesised four-dimensional structure of attitude towards art: dance, drama, music and plastic arts.	Good psychometric properties
Objective 3: To analyse the differences in means of Bachelor of Education Degree students' artistic self-concept and attitude towards art, in regard of the socio-personal variables like: sex, age, level of education and experience in art.	
3.1. <i>Socio-personal variable: sex</i>	<p>Hypotheses 1: women are expected to have better dance self-concept than men, however higher values are not expected in any other dimensions, moreover, it is not expected the artistic self-concept to be significantly different.</p> <p>Hypotheses 2: men are expected to have better plastic arts self-concept than women.</p> <p>Hypotheses 3: women are expected to have better attitude towards dance and also overall towards art.</p>
3.2. <i>Socio-personal variable: experience in art</i>	Hypotheses 5: those students with experience in a specific artistic domain are expected to have better self-concept in that specific artistic domain and better attitude towards that specific domain.

---

Hypotheses 6: those experienced students in arts are expected to have a better artistic self-concept and a better general self-concept and better overall attitude towards art.

---

#### **4. Research importance**

The artistic self-concept and the attitude towards art have not been as widely researched as the physical or academic self-concept. Therefore, the development in the control and intervention on those variables may bring up significant progress to the formation of Bachelor of Education Degree students. Therefore, the main contribution of this thesis is the validation of the surveys.

Positive self-concept is significant in teacher training and that is supported by many investigations, and that is why this work's first aim is to know the artistic dimensions of the self-concept. Teachers' preparation in arts is generally no bearing. Only few people get art-education and that endorses the idea of arts being exclusive for those who are born with a special sense. Those social representations can affect negatively in teacher training as they might see improbable to achieve these innate abilities. Therefore this research aims to help to identify early those students with low artistic self-concept and help them to strengthen their self-image and reinforce it on those ones with higher rates.

The attitude towards art is also a significant variable to strengthen in teacher training. Investigating this variable will enable to find out how positive or negative is participants' attitude and how related is to artistic self-concept. Afterwards, it will also be possible to design adequate intervention programs to reinforce the attitude by attending to its internal dimensions. In fact, it

---



---

is easy to think that teachers may easier appear interested about art when feeling, thinking or behaving positively about art.

Therefore, the goal of this research is to measure the specific population. Participants belong to everyone and each university in the Basque Autonomous Community that offers Bachelor of Education Degree studies, and they are male and female, and either first, second, third and fourth year students. Apart from the AUART and ATTART survey, they also responded to AUDIM33 and to a survey about their experience in arts in after-school activities, which is offering the chance to analyse the possible relations among all those variables: general self-concept, academic self-concept —maths and language—, non-academic self-concept —physical, personal and social—, artistic self-concept and attitude towards art.

## **5. Variables and instruments**

This part will describe the variables that the investigation aims to measure and the instrument designing procedure. The investigation includes personal variables together with the artistic self-concept, other dimensions of the self-concept and the attitude towards art.

### **5.1. Socio-personal variables**

- Sex. Dichotomous variable that registers participants' sex, either male or female.
  - Age. Ordinal variable that classifies respondents between 18 and 65 years old. This variable organizes participants in different categories: those ones in their late adolescence (ages 18 to 20); the ones in their early youth (ages 21 to 23); and, the rest of them, students in their adulthood (ages over 24).
-

